ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

eek: BAO-2023a075

ERANSKINA / ANEXO

2023 **Bizkaiko Batzar Nagusietarako Hauteskundeak** **Elecciones Juntas Generales de Bizkaia**	SOBRE Nº [ ] **.GUTUN AZALA**

LURRALDE HISTORIKOA TERRITORIO HISTÓRICO **BIZKAIA**	UDALERRIA MUNICIPIO	ERROLDA-BARRUTIA DISTRITO CENSAL	ATALA SECCIÓN	MAHAIA MESA	MUGABARRUA CIRCUNSCRIPCIÓN

.....ko ..... epaile jn./and.hauteskunde mahai horretako mahaiburuak, mahaikideek eta kontu-hartzaileek

EGIAZTATZEN DUGU:

gutunazal honetan ondoko agiriok daudela:

Sra/Sr. Juez ..... de ..... la/el presidenta/e, vocales e interventoras/es de la referida Mesa electoral,

CERTIFICAMOS:

que este sobre contiene los siguientes documentos:

1.GUTUNAZALA

- Hauteskunde mahaia eratzeko aktaren hitzez hitzeko kopia
- Bilkuraren aktaren jatorrizkoa, berari dagozkion hauteskunde-agiriak erantsita dituela:
  - Boto-emaileen zerrenda zenbakituaren kopia
  - Boto-txartel baliogabeak edo erreklamazioren bat izan duten boto-txartelak

2 eta 3.GUTUNAZALAK

- Hauteskunde mahaiaren eratzeko aktaren hitzez hitzeko kopia
- Bilkuraren aktaren hitzez-hitzeko kopia

SOBRE 1

- Copia literal del acta de constitución de la mesa electoral
- Original del acta de sesión, con los documentos electorales a que se haga referencia:
  - Copia de la lista numerada de votantes
  - Papeletas de votación nulas o que hayan sido objeto de reclamación

SOBRES 2 Y 3

- Copia literal del acta de constitución de la mesa electoral
- Copia literal del acta de la sesión

MAHAIBURUAK, MAHAIKIDEEK ETA KONTU-HARTZAILEEK gutun-azal hau sinatuko dute, sinadurek ireki beharreko hegala gurutza dezaten.
LA PRESIDENCIA, VOCALES E INTERVENTORAS/ES firmarán este sobre de forma que sus firmas crucen la solapa por la que en su día deba abrirse.

MG.BN/SM.JG

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza saila

Enkante-iragarkia, 23/2023

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko Zerga-Bilketa Exekutiborako Zerbitzu Burutzak

Jakitera ematen du: Bizkaiko Foru Ogasunarekin dituen zorrak direla eta Zerga-bilketa exekutiborako Zerbitzuan zorrak ordaintzera behartuta egoteagatik abiabidean den premiamenduzko administrazio-prozeduran (besterentze-espedientea: 2023GJ7000006EN010101) honako hau erabaki da gaur:

BESTERENTZEKO ERABAKIA

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Dirubilketa Araudian ezartzen denaren arabera, Foru Ogasuna-Zerga-Bilketa Exekutiborako Zerbitzua, enkantearen sistemaren bidez, honako ondasun hauek besterenduko ditu:

BESTERENTZE-MOTA

ENKANTEA

Sorta bakarra

Ondasunaren deskribapena

Hirikoa. Familia bakarreko etxebizitza, planoko berrogeita zazpigarren partzelan, Peña Flor gunean, «El Mirador urbanizazioa» Señan, Limpiaseko Udalean. Beheko solairua eta teilatupea ditu, eta guztira berrehun eta bat metro eta hogeita hamazortzi dezimetro karratuko azalera eraikia du. Beheko solairuak ehun eta bederatzi metro eta laurogeita hamalau dezimetro karratuko azalera erabilgarria du, eta honela banatzen da: sukaldea, bi bainugela, lau logela, egongela-jangela eta ataripea, eta teilatupeko solairuak laurogeita hamaika metro eta berrogeita lau dezimetro karratu hartzen ditu, eta honela banatzen da: banagailua, bi bainugela eta hiru logela, eta sukaldea. Eraikinak haize guztietatik egiten du muga eraiki den lursailaren gainerakoarekin.

Erregistroko datuak

Laredoko erregistroan, 00694 liburukian, 00036 liburuan, 0157 folioan inskribatutako Limpiasko 3133 finka.

Besterentzen den eskubidea

Jabea %100,00.

Balorazioa

212.098,24 euro.

Lehentasunezko kargak

— Kargaren titularra: Kutxabank, S.A.

— Egungo zenbatekoa: 82.291,11 euro.

— Eguneraketaren data: 2023ko martxoaren 30ean

Lizitazio-mota

129.807,13 euro.

eek: BAO-2023a075

Berme-gordailua

4.200,00 euro.

Datuak informatzeko bakarrik dira eta lizitatzailearen ardura izango da egoera fisikoa eta juridikoa egiaztatzea eta Bizkaiko Foru Aldundia erreklamazio guztietatik salbuetsita egongo da.

Higiezin horiek gorputz zehatz gisa eskualdatzen dira, eta adjudikaziodunak adierazten du horietako bakoitzaren egoera fisiko eta juridikoa ezagutzen eta onartzen duela, eta jasotzaileak berariaz uko egiten diola ebikzioagatik eta/edo ezkutuko akats edo akatsengatik egindako saneamendu ekintza orori.

Enkantean parte hartu nahi dutenei jakinarazten zaie enkantean honela egingo dela:

A) Interesa duten lizitatzaile guztiek sorta bakoitzerako adierazten den nahitaezko berme-gordailua jarri behar dute Enkantearen Mahaiaren aurrean. Ohartarazi zaie gordailuan utzitako zenbateko hori behin betiko sartuko dela Foru Diruzaintzan adjudikaziodunek errematearen prezio ordaintzen ez badute; betiere, adjudikazioa eraginik gabe uzteak gordailutzako zenbatekoan izan ditzakeen kalte handiagoen ondorioz izan dezakeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

B) Bakarrik onartuko dira, gutxienez, besterentzeko ezarritako oinarriaren % 50 hartzen duten proposamenak, eta horietan ez dira ondasunen eskualdaketagatik sortzen diren zeharkako zergak sartuko.

C) Eskaintzak jendaurreko egintzan irekiko ditu Enkante Mahaiko buruak 2023-09-28(e)an, goizeko 10:00etik aurrera, Foru Ogasunean.

D) Eskaintzak aurkezteko epea erabaki honen iragarkia argitaratzen denean hasi eta eskaintzak irekitzeko adierazitako dataren aurreko egunean amaituko da, bi egunak barne. Gutun-azal itxi batean aurkeztu beharko dira eta hurrengo bulegoetan baino ezin izango dira aurkez tu (Foru Ogasuna Kaputxinoen kalea, 4-48013-Bilbo-Diru-Bilketa helbidean) eta jendeari arreta emateko ordutegian.

   Eskaintzetan, halaber, behar bezala identifikatu behar da eskaintza zein sorta edo ondasuni dagokion, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

   a) Lizitatzailearen nortasun juridikoaren egiaztapena, eta, behar denean, haren ordezkaritzarena ere.

   b) Gordailua itzuliko den bankuko kontuaren identifikazioa esleipendun gertatu ezean.

   c) Gordailuaren ordainketaren frogagiria, ordainketaren gutunaren bidez.

   d) Lizitazioa egin nahi deneko ondasunaren eta/edo eskubidearen edo lotearen identifikazioa.

   e) Eskaintza ekonomikoa. (gutun-azal itxian aurkeztuko da)

   Eskaintza bakarra onartuko da pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko, batera edo banaka aurkeztuta, eta hainbat eskaintza badira, handiena hartuko da.

E) Interesdunek eskuragarri dauden tituluak aztertu ahal izango dituzte Foru Ogasuna-Zerga-Bilketa Exekutiborako Zerbitzua bulegoetan enkantea egin baino egun bat lehenago arte, baina ezin izango dute beste titulurik eskatu.

F) Esleipen-akta sinatu aurreko edozein unetan, enbargaturiko ondasunak edo eskubideak askatu ahal izango dira, zorra eta prozedura kostuak ordainduta.

G) Sorta edo ondasun bakoitza eskaintza ekonomikorik handienari adjudikatuko zaio; eskaintza batzuk berdin-berdinak suertatzen badira, lehen aurkeztu denari adjudikatuko zaio.

H) Enkantea amaituta, adjudikaziodunei dagozkien gordailuak Foru Ogasuna-Zerga-Bilketa Exekutiborako Zerbitzua esku geldituko dira adjudikazioaren prezioaren kontura emandako kopuru gisa, eta itzuli egingo dira gainerako gordailuak.

   Adjudikaziodunek errematea ordaindu beharko dute, hau da, osatutako gordailuaren eta adjudikazioaren prezioaren arteko aldea ordaindu beharko dute. Hilabeteko epea izango du horretarako, adjudikazioaren berri ematen den egu-

eek: BAO-2023a075

netik aurrera zenbatzen hasita eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudiko 79. artikuluko 3. zenbakian adierazitako epea igaro ondoren, Foru Administraziok adjudikazioa egiteko lehentasuna izan dezan, eta gainerako eskaintzen berri izan ondoren handiena berdindu edo gainditu nahi duen erabaki dezan. Eskaintzak ireki eta hamar egun balioduneko epea izango du horretarako.

I) Aipatutako araudiko 80.1 g) artikuluan adierazitako epea igarotzen bada, adjudikaziodunak ez du erreматearen prezio osatuko, eta eratutako gordailua galduko du. Gainera, ondasuna automatikoki adjudikatuko zaio bigarren eskaintzarik onenari eta horrela hurrenez hurren. Adjudikatzeko eskubidea ezin izango zaio inoiz beste norbaiti laga.

J) Egindako idaztoharra baino lehenagoko karga eta zamek eta lehentasunezkoek lehenean jarraituko dute, eta iraungitzeari ez zaio adjudikazioan lortutako zenbatekoa aplikatuko.

K) Adjudikatutako ondasunaren eskualdaketak sortzen dituen gastuak, zerga-, notario, zein erregistro-gastuak, hala izena ematekoak nola ezereztekoak, barne, adjudikaziodunaren konturakoak izango dira beti.

L) Jabetza horizontalaren mendeko erkidegokoak diren ondasunen kasuan, adjudikaziodunak beren-beregi salbuetsiko du gauzatzailea erkidegoaren zorren egoera egiaztatzeko betebeharretik, eta adjudikaziodunari dagozkio ordaintzeke geratzen diren gastuak.

Jakinaraz biezaie erabaki hau zergapekoari eta gainerako pertsona interesdunei, eta eman biezaio honen berri jendeari, ediktuak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Foru Aldundiko web orrian (www.bizkaia.eus).

Bilbon, 2023ko apirilaren 5ean.—Zerga Bilketa Exekutiborako Zerbitzuko Buruak

eek: BAO-2023a075

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuaren 257/2023 FORU AGINDUA, apirilaren 11koa. Honen bitartez, «Nerbioi-Ibaizabal bizikleta-bidea trazatzeko proiektua. Tartea: Bolueta (Bilbo) - La Basconia (Basauri)» izeneko proiektuak ukitzen dituen ondasun eta eskubideen errenda jendaurrean jartzea ebazten duena.

Gaur onartu da halako Foru-Agindua, zeinaren xedapenak jarraian argitaratzen diren:

Lehena: Informazio publikoan ezartzea honako proiektu honek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrena, zeina agindu honekin batera doan eranskinean jaso baita: «Nerbioi-Ibaizabaleko bizikleta-bidea eraikitzeko proiektua. Tartea: Bolueta (Bilbao) - La Basconia (Basauri)». Izapideak hamabost egun baliodun iraungo du, zerrendako akatsak zuzentzeko behar diren datuak idatziz aurkeztu ahal izan daitezen. Hori guztia, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2 eta 19.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Alegazioak Sail honetako bulegoetan aurkeztu beharko dira (Lersundi 9-7. 48009-Bilbo).

Proiektua Ahaldun Nagusiaren urriaren 27ko 175/2022 Dekretuaren bidez onetsi da. Horrekin ulertzen da onura publikoko adierazpen inplizitua egin dela zortasunak desjabetzeari, aldi batean okupatzeari eta ezarri edo aldatzeari begira, babes harturik 25. artikuluan ezartzen duena ekainaren 27ko 10/2014 Foru Araua, Bizkaiko Bizikleta Bide Foralei buruzkoak.

Bigarrena: Kontuan harturik lizitazio-espedientea jada hasita dagoela eta proiektuaren helburua dela 1,34 kilometroko bizikleta-zidor partekatu bat eraikitzea ziklo eta oinezkoentzat, eta hala garraiobide osasungarri eta jasangarri baten erabilera sustatu, zeinak, finean, autoaren presentzia gutxitzen lagunduko baitu, ebazten da urgentziazko deklarazioa eskatzea, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideak okupatzeko, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako prozedura aplikatzeari begira. Horretarako, eta gorago esan bezala, informazio publikoaren izapidea orobat egingo da Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Erregelamenduaren 56.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Hirugarrena: Ebazpen hau interesatuei jakinarazi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Lurraldeko beste bi egunkaritan argitaratzea, eta, halaber, Basauriko eta Etxebarriko udalei ere igortzea, udal mugarte horietan daude-eta kokatuta ondasun eta eskubide ukituak, udal horiek iragarkien oholean jar dezaten.

Bilbon, 2023ko apirilaren 11n.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

eek: BAO-2023a075

PROIEKTUA: NERBIOI-IBAIZABALEKO BIZIPISTA EGITEKO ERAIKUNTZA-PROIEKTUA. TARTEA: BOLUETA (BILBAO)-LA BASKONIA (BASAURI)
PROYECTO: PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE LA BICIPISTA DEL NERBIOI-IBAIZABAL. TRAMO: BOLUETA (BILBAO)-LA BASKONIA (BASAURI)

Finka zk. N.º Finca	Titularraren izen eta helbidea Nombre y domicilio del titular	Desjabetzapena / Expropiación Azalera m²-tan / Superficie m²	Beh. Bet. Zortasuna m²-tan Servidumbre de Paso m²	Aldi Baterako Atzematea m²-tan Ocupación Temporal m²	Katastroko Datuak Datos Catastrales
Udal Mugartea / Termino Municipal: BASAURI					
0003/0	ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS	4.411,00	—	—	015 0005 00109
0021/0	BASAURIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BASAURI	367,00	—	229,00	015 0001 00066
0022/0	HDROS. DE LUCÍA GARAY ISASI Notif : Sin datos de contacto	238,00	—	—	015 0001 00086 2-3-4
Udal Mugartea / Termino Municipal: ETXEBARRI					
0003/1	ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS	1.141,00	—	—	029 0001 00167
0005/0	JOSE LUIS APOITA ZARATE	47,00	—	101,00	029 0001 00142-3 029 001 00141-1-2
0007/0	ETXEBARRIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ETXEBARRI	1.685,00	—	492,00	029 0001 00099 029 0001 00143 029 0001 00140-1
0009/0	HDROS. DE QUERALT GIL DELGADO	23,00	—	265,00	029 0001 00100
0010/0	MARIA ROSA ALONSO ODRIOZOLA	—	—	189,00	029 1002 03001-1
0013/0	ETXEBARRIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ETXEBARRI	1.173,00	—	176,00	029 0001 00153
0014/0	HDROS. DE MARÍA DOLORES ABRISQUETA LUMBRERAS	31,00	—	76,00	029 0001 00094-1-2
0017/0	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA/ DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA	547,00	—	54,00	029 0001 00148-2 029 0001 00147-2
0018/0	JOSE ANTONIO BILBAO BLASCO	160,00	—	—	029 0001 00147-1-2

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ekonomia Sustatzeko Saila

Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren 2872/2023 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, 2. Area: enpresa berritzaile berriak programan emandako dirulaguntza ez betetzeari buruzko prozedura hasi eta alegazioak aurkezteko epea ematen duena. Espedientea: 3/12/cr/2021/00017. 16/2021 Foru Dekretua, martxoaren 23koa.

1. Identifikazio-datuak

Erakundea: Vluber Digital, S.L.

IFZ: b) 95981999.

Proiektuaren izena: Erabiltzaileei Elikadura Osasungarria Gomendatzeko Adimen Artifizialeko Tresna.

2. Aurrekariak

1. 8311/2021 Foru Aginduaren bidez, 18.647,96 euroko dirulaguntza eman zitzaion Vluber Digital, S.L., enpresari, arestian aipatutako proiektua garatzeko.

3. Arrazoia

Prozedura hori hasteko arrazoia izan zen bazitekeela maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 33.1.b) artikuluan ezarritako ez-betetzea gertatzea, hau da, proiektuaren helburua osorik ez partez ez betetzea, eta betebehar hori ezarrita dago 5/2005 Foru Arauan eta programa arautzen duen foru-dekretuan.

Ez-betetzea egiaztatuko balitz, espedienteari dagozkion zenbatekoak honela geratuko lirateke:

	Euro
Justifikatu beharreko zenbatekoa	47.579,94
Emandako dirulaguntzaren	43.524,30
Justifikazioan onartutako zenbatekoa	18.647,96
Justifikatutako dirulaguntza	16.214,58
Enpresari ordaindua:	
— Zor fiskalak konpentsatzeagatik	0,00
— BEAZetik enpresari	16.214,58
BEAZek itzuli beharrekoa	2.433,38
Enpresak itzuli beharrekoa	0,00

Ebazpen honen bidez hasitako prozeduraren ebazpenean adierazten bada badagoela onuradunaren ez-betetze bat, BEAZ S.A.U. erakunde laguntzaileak itzuli egin beharko ditu ordaindu zaizkion eta justifikatu gabeko zenbatekoak, hau da, 2.433,38 euro.

Adierazitako aurrekarietan oinarrituta, honako hau proposatzen da:

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Lehenengoa

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako prozedura hastea, Vluber Digital, S.L., sozietateari (IFK: A 95981999 ; eta ondo-

eek: BAO-2023a075

ren adieraziko den espediente zk.) esleitutako dirulaguntza itzultzeko prozedura hastea 3/12/CR/2021/00017, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 15. artikulua ez betetzeagatik.

Bigarrena

Ebazpen honen jakinarazpen-datatik aurrera, 15 eguneko epea ematen zaizue bidezkotzat jotzen dituzuen agiriak eta justifikazioak alegatzeko edo aurkezteko, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foruko 38.3 artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuko 80.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena

Aurreko txosten-proposamenak arrazoitze gisa balio du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88.6 artikuluetan ezarritako ondorioetarako.

Laugarrena

Ebazpen hau erakunde onuradunari jakinaraztea.

Eta hala jakinarazten da, dagozkion ondorioetarako.

Bilbon, 2023ko martxoaren 21ean.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Amorotoko Udala

Enplegu Publikorako Eskaintza 2023

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluak ezartzen dute lan-eskaintza publikoa egingo dela aurrekontuaren barruan dauden, eta langile berriekin bete behar diren giza baliabideen beharrak betetzeko. Horren harira, langile beharrak aztertuta, Udalbatzak 2023ko martxoaren 30ean izandako bileran erabaki du Amorotoko Udalaren 2023 urterako Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea eta argitaratzea.

Izena	Taldea	Kopurua	Lanaldia	Eskala	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigortasun data	Titulazioa
Garbitzailea	E	1	Murriztua (%62,86)	Administrazio Berezia	1	2023-04-01	EPOE 6. Aldi baterako xedapena

Amoroton, 2023ko apirilaren 4an.—Alkatea, Ibon Gabiola Idoiagabeitia

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Amorotoko Udala

2023ko Ibilgailuen gaineko Zergaren Errolda onartzea

Amorotoko Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, 2022. urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren Errolda onartu zuen, hamabost lanegunetako epean jendaurrean agertzen delarik, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den hurrengo egunetik aurrera, interesdunek epe horren barruan aztertu eta bere galdapenak aurkez ditzaten. Galdapenik ez balego, behin-betiko onartutzat emango da.

Borondatezko ordainketa epea 2023ko ekainaren 1ean hasi eta urriaren 31ra artekoa izango da, biak barne.

Zerga ordainketa borondatezko epean egin ez duten zergadunek ehuneko hogeiaren gehigarria (%20) izango dute, diru-eskuraketaren behartze bidez ekinez.

Amoroton, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Ibon Gabiola Idoiagabeitia

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arrigorriagako Udala

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

2023ko apirilaren 11tik 18ra, biak barne, ez naiz egongo.

Ikusi da urriaren 1eko 10/2015 legearen 9. artikuluak Sektore Publikoaren araubide juridikoarenak eta, honenbestez, honako hau

EBATZI DUT:

Alkatearen eginkizunak Idoia Molina Fernandez zinegotziari eskuordetzea 2023ko apirilaren 11tik 18ra, biak barne.

Arrigorriagan, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Maite Ibarra Goti

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arrigorriagako Udala

Ordenantza Fiskalen behin behineko aldaketa onartzea

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30n egindako osoko bilkuran ondoren jasota datozen ordenantza fiskalen behin-behineko aldaketak onestea erabaki zuen:

— Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Jendaurrean azaltzea onartutako aldaketa, hogeita hamar egun baliodunez, udal iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, baita Lurralde historikoan alerik gehien saltzen dituzten egunkarietako batean epe horretan interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ulertuko da behin betikoa dela ordu arte behin-behinekoa izandako erabakia, beste osoko bilkurako erabaki baten beharrik gabe.

Erreklamaziorik balego, udal osoko bilkurak berariaz adostuta ebatziko da eta ondoren ordenatzaren aldaketaren testu osoa argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta ez da indarrean sartuko argitaratu arte.

Hori guztia azaroaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 16.1. artikuluan eta apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Arrigorriagan, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Maite Ibarra Goti

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arrigorriagako Udala

Arrigorriagako espazio publikoen erabilera eta okupazioa arautzeko Ordenantza orokorra.

Arrigorriagako Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30an egindako ohiko bileran, hauxe erabaki zuen:

1. Arrigorriagako espazio publikoen erabilera eta okupazioa arautzeko Ordenantza orokorra hasieran onestea.
2. Jendaurrean ikusgai jartzea hogeita hamar eguneko epean; horretarako Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte.

Erreklamazio eta iradokizunak eginez gero, osoko bilkurak ebatziko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, edo, nolanahi ere, erreklamazio edo iradokizun horiek korporazioaren berariazko erabaki bidez ebatzi ondoren, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da. Ordenantzaren testu osoa argitaratuko da, eta testua argitaratu ondoren jarriko da indarrean, eta, nolanahi ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan adierazitako epea igaro ondoren.

Arrigorriagan, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Maite Ibarra Goti

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arteako Udala

2023ko Udaleko plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketaren onespena.

2023ko martxoaren 31n, 2023ko Udaleko plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketaren onespena jakinarazten da:

Artean, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Alberto Intxaurraga Goti

AURREKONTU PLANTILA ORGANIKOA 2023

Lanpostua	Zk.	Taldea	Lansariak Lanpostu-mailako Osagarria Osagarri berezia
A) Funtzionarioak			
— Estatu osoan gaitasuna dutenak			
Idazkari-Kontuhartzailea	1	A-1/A-2	24
— Grupo de Adción. General			
Administraria	1	C-1	18
Administrari Laguntzailea	1	C-2	16
— Administrazio berezikoak:			
Udaltzaina Lanaskotako Brigadako Ofiziala	1 1	C-1 E	15 10
B) Behin-betiko lan itunpekoak			
Garbitzailea	1	E	

eek: BAO-2023a075

LANPOSTUEN ZERRENDA 2023

Izena	Funtzionaria/ Laborala	Eskala/ Aspiesk.	Átala	Egoera/ Hor. Proz.	Taldea	Ikasketak	Plazak	H.E.	D.D.	Dedikazioa	C.D.	Udalhitz maila.	Osagarri berezia
Idazkari-Kontuhartz.	Funtzionaria	Gaikun. Nazionala	Idazkaritza	Hutsik/ lehiaketa eta izenda-pen askea.	A-1/A-2	Lizentz.. Zuzenbi., Zien Pol. eta Sozio., Ek. edo empr. Graduko unibertsitate-titulua edo baliokidea	1	4	31-12-1993	Lanal.ren %70 Arantzazuko Ud.-rekin elkartua Dedi. Berezia(%30)	24	24	
Administraria	Funtzionaria	Adminis. Orokorra	Idazkaritza	Hutsik/ Lehiaketa eta izendapen askea	C-1	Bachiller, F.P.2 Edo baliokidea	1	3	19-12-2018	Lanaldi osoa	18	18	
Administrari Laguntzailea	Funtzionaria	Adminis. Orokorra	Idazkaritza	Beteta Lehiaketa eta izenda-pen askea	C-2	Eskola Grad. 1.LH, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea. Oinarrizko Lanbide Heziketarako zikloko tituloa.	1	3	31-12-1997	Lanaldi Osoa	16	16	
Udaltzaina	Funtzionaria	Adminis. Orokorra	Zerbitzu Orokorr.	Beteta Lehiaketa eta izendapen askea	C-1	Batxillergoa, titulu Teknikoa edo baliokidea	1	2	31-12-1994	Lanaldi Osoa + %25 Lanaldi osagarria(12 hilabete eta paga urtean)	15	11	
Lanaskotako Brigadako Ofiziala	Funtzionaria	Administrazio berezia	Zerbitzu orokorra	Hutrsik Lehiaketa eta izendapen askea	E	Eskolako ziurtagiria	1	1	31-12-2020	Lanaldi osoa + %10 dedik. Berezia. Lanaldi luzatua	10	10	
Garbitzailea	Be-behineko Laborala	Adminis. Berezia	Zerbitzu Berezia	Beteta Kentzeko	E	Eskolako Ziurtagiria	1	1	19-12-2018	Lanaldi osoa		5	

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Aulestiko Udala

2023. urteko trakzino mekanikodun ibilgailuen udal Errolda

Aulestiko udalbatzak, 2023. urteari jagokon trakzino mekanikodun ibilgailuen udal errolda onartu dau 2023ko martiaren 30ean egindako Osoko Bilkuran.

Errolda hamabost (15) laneguneta egongo da ikusgai udal idazkaritzan, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan hurrengo egunetik zenbatuta.

Interesa daukienak kexak aurkeztu leikiez ondorengo arauen arabera:

— Aurkezteko epea: hamabost (15) laneguneko epean.

— Aurkezteko tokia: udal idazkaritza.

— Kexak nori zuzendu: alkateari.

Kexarik aurkeztuko ez balitz, udal errolda definitibotzat joko geunke.

Zerga kobretako epea izango da maiatzaren 1etik ekainaren 30era, biak barru.

Borondatezko epea pasau ostean, premina bidez kobrauko da, gainordaina, berandutze interesak, gastuak eta kostuak gehituz. Kexarik aurkeztuko ez balitz, udal errolda definitibotzat joko da.

Aulestin, 2023ko martiaren 31n.—Alkatea, Jone Antsotegi Ikazuriaga

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Aulestiko Udala

Aulestiko Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025 aldirako. Onarpenari buruzko iragarkia.

Udalbatzarrak, 2023ko martiaren 30ean egindako bilkuran, 2023-2025 aldirako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu eban. Planaren testu osoa argitaratzen da iragarki honen bidez.

Aulestin, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Jone Antsotegi Ikazuriaga

eek: BAO-2023a075

AULESTIKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2025

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarrizkoa da. Beraz, dirulaguntzak eman nahi dituen udal guztiek euren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa ontzat eman behar dute.

Dirulaguntzen ganeko azaroaren 17ko 38/2003 Legea beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legearen printzipioetako bat gardentasuna da.

Printzipio horrek, legean artikulatzen diren beste hainbat tresnekin batera, ondorio zuzenak ditu dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketako eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzeari dagokionez.

Alde horretatik, dirulaguntzei buruzko informazio gehiago izanez gero, merkatuari eragin diezaioketen distortsioak eta interferentziak ezabatu ahal izango dira, eta, gainera, administrazio publikoen jardueren osagarritasuna eta koherentzia erraztuko da, gainjartzerik gerta ez dadin.

Eraginkortasuna hobetzeko bide horretan, dirulaguntzen plan estrategikoa (politika publikoak antolatzeko tresna, onura publiko edo interes sozialeko jarduera bat bultzatu edo helburu publiko bat sustatzea xede duena) egitea aurreikusten du legediak. Plan Estrategiko hori urte anitzekoa izango da, eta dirulaguntzak sortu baino lehenago egin beharko da.

Horregatik, Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa ontzat eman du, segidan ageri diren artikuluekin.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— *Denbora-eremua*

Udal honek 2023, 2024 eta 2025ean emango dituen dirulaguntzak Plan honetan aurreikusitakora egokituko dira.

2. artikulua.— *Aurrekontuko diru-izendapenak*

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, urte bakoitzeko udal-aurrekontuetan dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira, eta dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak onartu beharko dira.

3. artikulua.— *Aurrekontu egonkortasuna*

Dirulaguntzak ezartzeko, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira; beraz, onartzen diren aurrekontu-esleipenak eta horiek emateko oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira uneoro.

4. artikulua.— *Plan estrategikoak ez du eskubiderik sortzen*

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du esan nahi onuradun izan daitezkeenen aldeko inolako eskubiderik sortuko denik; izan ere, onuradunek ezin izango dute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu, Plana beren baldintzetan gauzatzen ez bada.

II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO ONURADUNAK ETA ARLOAK

5. artikulua.— *Onuradunak eta prozedura*

A) *Onuradunak*

Udalak diru-laguntzak emango dizkie pertsona edo erakunde pribatuei, onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko edo toki-eskumenari esleitutako helburu publikoak lortzeko.

eek: BAO-2023a075

B) *Dirulaguntzak emateko prozedurak*

Dirulaguntzak pertsona fisiko edo juridikoei, elkarte edo erakunde pribatuei emango zaizkie, norgehiagoka-araubideko deialdi publiko bidez edo zuzeneko emakida bidez.

Dirulaguntzak emateko, prozedura mota hauek ezarri dira:

— Lehiaketa-erregimenean emandako dirulaguntzak.

— Aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza izendunak.

— Interes publiko, sozial edo humanitarioko arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuengatik zuzenean emandako dirulaguntzak, deialdi publikoa egitea zailtzen dutenak.

— Lege-mailako arau baten bidez dirulaguntzak ematea ezartzen bazaio Aulestiko Udalari.

6. artikulua.— *Arloak*

Udalak, plan honen indarraldiko hiru urteetan, honako arlo hauetako dirulaguntzak ezarriko ditu:

1. Arlo humanitarioa eta gizarte-ekintzako arloa: Bizilagunen garapena izango du helburu.
2. Kultura, aisia, hezkuntza eta kirola arloa: Gazteria, kultura, musika, kirola eta abar sustatzea izango du helburu.
3. Euskera sustatzeko arloa: Arlo honen helburu nagusia euskara sustatzearekin lotutako jarduerak sustatzea izango da.
4. Herriko jaiak arloa: Arlo honen helburu nagusia da zaindariaren eta auzoetako jaiak mantentzea eta sustatzea.

III. KAPITULUA

GAI HUMANITARIOETAKO ETA GIZARTE-EKINTZAKO DIRULAGUNTZAK

7. artikulua

Arlo humanitarioan eta gizarte-ekintzan, Udalak diru-laguntzen lerro hauek ezarriko ditu plana indarrean dagoen bitartean:

A) *Garapenerako lankidetza proiektuak:*

a) Helburuak: Irabazi asmorik gabeko erakunde batzuei dirulaguntza ematea, hainbat proiektu humanitariori laguntza emateko. Horren bidez herrialde horien egoerea arindu gura da, garapenerako eta laguntza humanitariorako beharrezkoak diran instalazioak eta azpiegiturak egiten lagunduz.

b) Lortu gura diran ondorioak: Pobrezia eta azpigarapen-maila handiko eremu behartsuak garatzen laguntzea.

c) Lortzeko epea: 2023-2025

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 2000 euro urtean

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

f) Ekintza Plana: Dirulaguntza zuzena.

B) *Harrera Elkartea*

a) Helburuak: Preso ohiei, kartzelatik irten ostean, gizartean euren lekua berreskuratzen laguntzea.

b) Lortu gura diran ondorioak: Preso ohientzako lana bilatzea, osasungintzarako eta larrialdietarako laguntzak ematea, eguneroko gastuei aurre egiteko laguntzak ematea.

c) Lortzeko epea: 2023-2025.

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 500,00 euro urtean.

eek: BAO-2023a075

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

f) Ekintza Plana: Dirulaguntza zuzena.

D) *Herritarrei laguntzak*

a) Herritarrek hainbat zerbitzu errazago erabiltzea hauetan diruz lagunduz.

b) Herritarrek zerbitzuak modu erosoan erabili ahal izatea eta irisgarritasunerako erreztasunak ematea.

c) Lortzeko epea: 2023-2025

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 6.500 euro urtean

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

Partida	Gai humanitario eta gizarte laguntak	Zenbatekoa (€)
334.	Harrera Elkartea	500
334.	Euskal Fondoa	1.000
230.	Etxebizitza alokairua	3.000
230.	Dutxa jartzeko	3.000
342.	Polikiroldegiko laguntzak	500

IV. KAPITULUA

KULTURA, AISIA, HEZKUNTZA ETA KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK

8. artikulua

kultura, aisia, hezkuntza eta kirol arloan, udalak, Planaren indarraldian, dirulaguntza ildo hauek ezarriko ditu:

A) *Kultura, aisia, hezkuntza eta kirol jarduerekin lotutako elkartegintza*

a) Helburuak: udalerrian gutxieneko gizarte-balioak betez (genero berdintasuna, herri partaidetza, etab.) arlo desberdinetan jarduerak egiten dituzten herriko elkarteei laguntzea (lehendik daudenei zein eratu nahi dutenei). Herrikoak ez diren elkarteak izan daitezke onuradun, baldin eta udalerrirako proiektu edo jarduera interesgarri bat egin behar badute.

b) Lortu nahi diren ondorioak: udalerrian kultura, kirola, gizarte eta partaidetzako dinamika bat sortzea, horrela udalerriari berari «bizia» emanez.

c) Lortzeko epea: 2023-2025

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 15.050,00 euro urtean.

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

f) Ekintza Plana: Elkarteei zuzeneko diru-laguntza emanez, behar bezala funtziona dezaten, eta jarduera zehatz batzuk zuzenean finantzatuz.

Partida	Kultura, aisia, hezkuntza eta kirola	Zenbatekoa (€)
334	Urzabal guraso elkartea	3.800
334	San Blas Hirugarren Adinekoen eta Pentsiodunen alkartea	2.500
334	KUBIKE	300
334	Ondare	1.500

eek: BAO-2023a075

Partida	Kultura, aisia, hezkuntza eta kirola	Zenbatekoa (€)
342	Lea Ibarra Motrollo	6.000
342	KPR Racingo Elkartea	750
342	Txismista	200

V. KAPITULUA

EUSKERAREN SUSTAPENERAKO DIRULAGUNTZAK

9. artikulua

Euskeraren sustapenaren arloan, udalak, Planaren indarraldian, dirulaguntza ildo hauek ezarriko ditu:

A) *Euskera ikasteko zuzeneko laguntzak*

a) Helburuak: eguneroko jardueren ondoren euskara ikastea erabakitzen duten pertsonei laguntzea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Udalerrian euskaldun kopurua handitzea.

c) Lortzeko epea: 2023-2025.

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 600,00 euro urtean.

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

f) Ekintza Plana: Euskaltegitan egindako matrikulazioa diruz lagunduz. Dirulaguntzak emateko modalitatea: norgehiagoka sistema bidez.

B) *Euskararekin lotutako jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuentzako zuzeneko laguntzak*

a) Helburuak: Euskeraren erabilera sustatzeko jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuei laguntzea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Euskara hainbat eremu publiko eta pribatutan hizkuntza moderno gisa sustatzea.

c) Lortzeko epea: 2023-2025.

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 5.300,00 euro urtean.

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

f) Ekintza Plana: Honako erakunde hauei zuzeneko dirulaguntza emanez: Nafarroa oinez, Herri Urrats, Korrika, Kontseilua, Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.

Partida	Euskararen Sustapena	Zenbatekoa (€)
334.	Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.	2.000
334.	Nafarroa Oinez	600
334.	Herri Urrats	600
334.	Korrika	500
334.	Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua	1.000
334.	Euskera ikasteko laguntzak	600

eek: BAO-2023a075

VI. KAPITULUA

HERRIKO JAIAK BABESTEA

10. artikulua

Jaien arloan, udalak, Planaren indarraldian, dirulaguntza ildo hauek ezarriko ditu:

A) *Zaindariaren jaiak eta auzoetako jaiak*

a) Helburuak: Zaindariaren eta auzoetako jaiak mantentzea eta sustatzea. Herritarrek festen antolaketan parte har dezaten sustatzea, aisialdi eta jai eskaintza suspertuz.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Auzoak eta hirigunea kulturalki dinamizatzea, herriko eta auzoetako jaien bidez.

c) Lortzeko epea: 2023-2025.

d) Aurreikus daitezkeen kostuak: 40.600,00 euro.

e) Finantzaketa: finantzaketa funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren kargura.

f) Ekintza Plana: Zaindariaren jaietan eta auzoetan antolatzen diren jarduerak diruz lagunduz zuzeneko dirulaguntza bidez.

Partida	Herriko jaiak babestu	Zenbatekoa (€)
338.	Inauteriak	3.000
338.	San Juan jaiak	9.000
338.	Santa Eufemi jaiak	25.000
338.	Ibarrolako jaiak	600
338.	Nareako jaiak	600
338.	Zuberoko jaiak	600
338.	Urriolako jaiak	600
338.	Malatseko jaiak	600
338.	San Antongo jaiak	600

VI. KAPITULUA

PLANA EGUNERATZEA

11. artikulua

Urteko aurrekontuetan onartutako kredituek Plan Estrategiko honetan dirulaguntzen arlo edo sail bakoitzerako aurreikusitakoak baino %50 gehiago gainditzen dadituzte, plana aldatu beharko da, aldez aurretik edo aldi berean.

Aitzitik, urteko aurrekontuetan onartutako kredituak Plan honetan arlo bakoitzerako aurreikusitakoak baino %50 baino gutxiago gainditzen badituzte, edo kredituak planean aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, ez da aldatu beharko plana.

VII. KAPITULUA

KONTROLA ETA GARDENTASUNA

12. artikulua

Diru-laguntzaren onuradunak diruz lagundutako jardueraren memoria, justifikazio-kontua eta eska daitekeen bestelako dokumentazioa aurkeztu beharko ditu, betiere oinarri arautzaileekin edo emakida-ebazpenarekin edo hitzarmenarekin bat etorriz. Hala ere, Udalak plan hau indarrean dagoen bitartean betetzen dela kontrolatuko du.

eek: BAO-2023a075

Urtero, Alkatetzak txosten bat aurkeztuko du, egin diran ekintzen eta emandako dirulaguntzen laburpena erakusteko.

13. artikulua

Gardentasun-printzipioa betetze aldera, udalak emandako dirulaguntza guztiak, ildo estrategiko bakoitzean, urtero argitaratuko dira udalaren webgunean, bai eta Diru-laguntzen Oinarri Nazionalean ere, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera. Adiraziko da: erakunde hartzailea, haren zenbatekoa eta zein proiektu edo ekintzatarako erabiliko den.

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Barakaldoko Udala

Gurutzetako Ospitaleko Hiri Berrikuntzako Plan Berezia (Barakaldo)

Barakaldoko Udalak, 2022ko maiatzaren 26an egindako osoko bilkuran, Gurutzetako Ospitaleko (Barakaldo) Hiri Berrikuntzako Plan Berezia behin betiko onartzea erabaki zuen. Plan horren testu bategina Alkatetzaren 2023ko martxoaren 8ko 2257 zenbakiko Dekretuaren bidez onartu da.

Halaber, jakinarazten da plangintza-tresna Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Plangintzaren Erregistroan gordailatuta dagoela.

Onartutako hirigintza-arauen edukia honako hau da:

Helburua

Planaren helburua Ospitalearen etorkizuneko handitzeak plangintzan jasotzea da. Hainbat eremu proposatzen dira epe labur eta ertainean garatzeko. Handitzeko proposamenak hainbat jarduketa jasotzen ditu Ospitaleko bederatzi gunetan, 06. planoan jasotzen den bezala (proposatutako handitzeak).

Eremu bakoitzaren definizioa 07tik 14ra bitarteko planoetan grafiatuta dago.

1. eremua

Erabilera

Zerbitzuen Eraikin berria.

Kokapena

Aldagelak-Biltegiaren eta Laborategien eraikinen artean dago.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Ospitale erabilerekin lotutako zerbitzu guneen beharrak gora egin du pixkanaka azken urteetan. Tratamenduko, asistentziako eta ospitalizazioko eremuak handitzen joan diren heinean, lotutako zerbitzuak ospitaleko eraikin nagusietatik bigarren mailako eremuetara lekualdatu dira.

Kokapen-eremu horretan Laborategien eraikina eta Mantentze-eraikina (ospitaleko zerbitzu teknikoak) daudenez, eraikin berri bat eraikitzea planteatzen da Ospitale barruko erabileren irtenbide eta berrantolaketa gisa.

Kasu honetan, ez dago berehalako premiarik hura garatzeko; izan ere, zerbitzuen barne-berrantolaketa dakar horrek, eta berrantolaketa hori dokumentu honetan jasotzen diren beste handitze-lan batzuk gauzatzearen ondorio izango da.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Dokumentazio grafikoan jasota dagoen bezala, ondoko eraikinekiko lerrokadurak bilatzen dira erreferentzia gisa.

Distantziak

Inguruko eraikinekiko distantziak eraikin horiekin ezarritako lerrokaduren ondoriozkoak dira, eta dokumentazio grafikoan jasota daude.

Altuerak

Beheko solairua +4 altuera.

Aldagelak-Biltegien eraikin handituaren altuera berdintzen da.

eek: BAO-2023a075

2. eremua

Erabilera

Aldagelen eta biltegiaren eraikina.

Kokapena

Aldagelen eta biltegiaren eraikina.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Gaur egun, ospitale-esparruan ez dago langile guztientzako behar adina aldagelarik; beraz, beharrezkoa da erabilera horretarako lokalak handitzea, eta dagoen aldagelen eraikina kokapen onentzat hartzen da. Solairu bat altxatzea planteatzen da, B+4 mailara iritsi arte.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Eraikinaren lerrokadurak ez dira aldatzen.

Distantziak

Eraikin mugakideetarako distantziak ez dira aldatzen.

Altuerak

Altuera bat gehitzen da, B+4 geratzen delarik.

3. eremua

Erabilera

Irakaskuntza.

Kokapena

Irakaskuntzako eraikina.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Irakaskuntza-erabilerarako dauden espazioak ez dira nahikoak eta, beraz, eraikina luzatu nahi da, Eraikin Nagusiarekin lerrokatu arte.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Eraikin nagusiarekin lerrokatzen da (E dorrea).

Distantziak

Eraikin mugakideetarako distantziak ez dira aldatzen.

Altuerak

Egungo eraikinaren altuerari eusten zaio (B+2).

4. eremua

Erabilera

Pediatria.

Kokapena

Amaetxe zaharra, eraikin nagusiaren zokaloa, D eta E dorreen artean.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Pediatriako Zerbitzuak bere sarbideak bereizi behar ditu, eremuari ospitale izaera arinagoa emateko eta pediatriako pazienteei jolasteko eremuak eta itxaroteko espazio

eek: BAO-2023a075

egokiagoak eskaintzeko. Horretarako, solairu baten bolumena luzatzea planteatzen da, eraikin nagusiari gehitua, eraikinaren zokaloa berrantolatuz.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Amaetxe eraikinaren eta zokaloaren lerrokadurari eusten zaio.

Distantziak

Ez da aplikatzen.

Altuerak

Amaetxe eraikinaren eta zokaloaren altuerari eusten zaio, beheko solairuan.

5. eremua

Erabilera

Sukaldeak.

Kokapena

Eraikin nagusiaren -2 sotoa, kaleko kotan, atzeko kanpoko sestratik, B eta C dorreen artean.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Gaur egungo sukaldeak ez du baldintza egokirik osasun-araudia betez lan egin ahal izateko, eta ezin dira barne-zirkuituak (garbia-zikina) bereizi gaur egun dagoen espazioan.

Horregatik, sukaldearen azalera handitzea planteatzen da, lehendik dagoen eraikinari eranskin bat gehituz. Handitzeak sortzen duen bolumena berrantolatzeko, errehabilitazio-eraikinaren ondoko teilatu-hegala bateratzea proposatzen da, sestra gaineko hiru solairuko eraikin bat sortuz, B+2, eraikin nagusiaren atzealdean. Goiko solairuak solairu bakoitzean kokatutako zerbitzuak behar bezala handitzeko erabiliko dira.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Ez da aplikatzen.

Distantziak

Aurrean duen instalazio-eraikinetik 12.9 metroko distantzia mantentzen da.

Altuerak

Ondoko eraikinen altuerarekin bat egiten dute, B+2.

6. eremua

Erabilera

Farmazia Zerbitzua.

Kokapena

Eraikin nagusiaren zokaloa A eta B eraikinen artean.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Farmazia Zerbitzuak espazio gehiago behar du, zerbitzua emateko ekipamendu gehiago behar baititu.

Horretarako, eta 4. jarduketarekin lotuta, eraikin osoan zokalo bateratu bat izateko, luzatu egiten da, Larrialdietarako anbulantzien sarbidearen gainean.

eek: BAO-2023a075

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Amaetxe zaharraren eta haren handitzearen lerrokadurari eusten zaio, zokaloa osatuz.

Distantziak

Ez da aplikatzen.

Altuerak

Amaetxe eraikinaren eta zokaloaren altuerari eusten zaio, beheko solairuan, anbulantzien sarbidearen gaineko hegalean.

7. eremua

Erabilera

Bihotzeko Errehabilitazioa.

Kokapena

Errehabilitazioko gimnasioaren eraikina.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Bihotzeko errehabilitazioaren terapia berriek espazio propioa behar dute errehabilitazioaren barruan; izan ere, gimnasioak altuera handia dauka, eta ez da aprobetxatzen ari. Horrenbestez, solairu bat altxatu nahi da egungo gimnasioaren gainetik.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Eraikinaren lerrokadurak ez dira aldatzen.

Distantziak

Eraikin mugakideetarako distantziak ez dira aldatzen.

Altuerak

Altuera bat gehitzen zaio lehendik dagoen eraikinari, B+2.

8. eremua

Erabilera

Irakaskuntza.

Kokapena

Erradioterapia-eremuaren gainean, eraikin nagusiaren atzealdean.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Irakaskuntza-eremuan espazio handiagoa behar da. Egungo eraikinean jasodura bat egiteak itzal-arazoak sortuko lituzke inguruko etxebizitza-eraikinekin, beraz, handitzea hurbileko bolumen batean planteatzen da, ospitale-esparruko irakaskuntza-eremuen sakabanaketa saihesteko.

Kokapen berri horretan, jasodura bat planteatzen da erradioterapia-eremuaren gainean, irakaskuntza-programa osatuz. Atzeko bolumenak berrantolatu nahi dira, hurbilen dauden eraikinen, kafetegiaren eta eguneko ospitalearen altuerak berdinduz.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Eraikinaren lerrokadurak ez dira aldatzen.

eek: BAO-2023a075

Distantziak

Eraikin mugakideetarako distantziak ez dira aldatzen.

Altuerak

Bi solairutan handitzen da bolumena, B+2.

9. eremua

Erabilera

Administratiboa.

Kokapena

Administrazio eraikina, Kafetegiaren eta Biocrucesen artean.

Komenigarritasunaren eta beharraren justifikazioa

Ospitale-zerbitzuen etengabeko gehikuntzak administrazio-zerbitzuen, prebentzioaren, kalitatearen, arlo ekonomikoaren eta abarren hazkundea ekarri du, bai eta horien espazio-beharra ere.

Dagoen administrazio-eraikina handitzea planteatzen da, kafetegiko eraikinarekiko lerrokadura bilatuz.

Ezaugarriak

Lerrokadurak

Kafetegiarekin eta eraikin handituarekin berarekin lerrokatzen da.

Distantziak

Laborategien eraikinari dagokionez, kafetegiarekin dagoen distantziari eusten zaio, 14 metro, alegia.

Altuerak

Lehendik dagoen eraikinaren altuera berdintzen da, B+6.

Barakaldon, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Amaia del Campo Berasategui

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Berangoko Udala

Udal Araudi Organikoaren aldaketa

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran,

ERABAKI HAU HARTU DU:

Lehenengoa: Berangoko Udalaren Udal Araudi Organikoaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena: Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurrean jartzeko izapidea irekitzea, 30 egun balioduneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena: Jendaurreko erakustaldian eta interesdunen entzunaldian zehar iradokizunik, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia automatikoki behin betiko bihurtuko da, eta onartutako ordenantza osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udalaren web orrian argitaratu beharko da.

Laugarrena: Testu osoa Berangoko Udalaren webgunean kontsultatu ahal izango da (www.berango.org).

Hori jendaurrera azaldu da guztiek jakin dezaten.

Berangon, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, María Isabel Landa Gaubeka

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Berangoko Udala

Berangoko H.A.P.O.ko "Arana" 4 Egikaritze Unitatean, udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal Ordenantza hasiera batean onartzea

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran,

ERABAKI HAU HARTU DU:

Lehenengoa: Berangoko H.A.P.O.ko «Arana» 4. Egikaritze Unitatean, udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal Ordenantza hasiera batean onartzea.

Bigarrena: Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.b artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurrean jartzeko izapidea irekitzea, 30 egun balioduneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena: Jendaurreko erakustaldian eta interesdunen entzunaldian zehar iradokizunik, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia automatikoki behin betiko bihurtuko da, eta onartutako ordenantza osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udalaren web orrian argitaratu beharko da.

Laugarrena: Berangoko H.A.P.O.ko «Arana» 4. Egikaritze Unitatean, udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal Ordenantzaren testu osoa Berangoko Udalaren webgunean kontsultatu ahal izango da (www.berango.org).

Berangon, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, María Isabel Landa Gaubeka

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Bilboko Uriko Gobernu Batzordeak 2023ko apirilaren 5ean onetsitako Erabakiari buruzkoa, Zuzendaritza Organoaren izendapenari eustea onartzen duena.

Bilboko Uriko Gobernu Batzordeak, 2023ko apirilaren 5ean egindako bilkuran, honako Erabaki hau onetsi zuen, besteak beste:

«*Bat:* Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.i) artikuluak eta 2004ko irailaren 30eko Udalbatzarrak onartutako Bilboko Udalaren Gobernuko eta Administrazioko Udal Araudi Organikoaren 36. artikuluak ezarritakoarekin bat etorrita, Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkariak hala proposatuta, alkate-udalburuak 2023ko martxoaren 24an emandako Ebazparen bidez aldatutako Protokoloko eta Harreman Publiko eta Instituzionaletako Bulegoaren egituran aurreikusitakoarekin bat eginez, eta protokoloaren eta harreman instituzionalen arloan dituen gaitasun profesionala, esperientzia handia eta ibilbide profesional luzea, eta kudeaketaren zuzendaritzako zereginetan nahiz taldeen koordinazioan daukan eskarmentua oinarritzat hartuta, hauxe erabaki da:

— Bere horretan eustea Miren Begoña Ibargüen Batenburg andrearen izendapenari (Medikuntzako lizentziaduna) Protokoloko eta Harreman Publiko eta Instituzionaletako zuzendari izateko, erabateko disponibilitatearekin eta arduraldiarekin. Udalbatzak 2004ko azaroaren 25ean emandako Erabakian ezarritako lansaria izango du, horren bidez onetsi baitzen Bilboko Udaleko zuzendaritza-organoen lansarien, arduraldien eta bateraezintasunen araubidea. Izendapenak karguaz jabetzan hartzen duen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hau da, 2023ko apirilaren 9tik aurrera.

Bi: Aurreko atalean zehaztutako ordainsarian, beraz, kargua betetzeari dagozkion kontzeptu guztiak sartuko dira. Hala ere, hori ez da eragozpen izango interesdunak berari dagozkion eta egoera administratiboagatik legez dagozkion sariak jasotzeko, eta ezta ere funtzioak betetzen ari denean egindako gastuen ordaina jasotzeko, justifikatu ondoren.»

Bilboko Udaletxean, 2023ko apirilaren 5ean.—Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko zuzendaria

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Erregistroko 33369B finkan hiri-lurzoru finkatugabea desjabetzeko prozedura hastea. Finka hori Bolueta auzoan dago, Bilboko itsasadarraren eta Telleria kaleko 8-12 zenbakietako pabiloien aurreko errepidearen artean (2023-004903 espedientea).

Gobernu Batzordeko Idazkaritzari Laguntzeko Organoaren jarduneko titularraren eskuordetzaz, erabaki hau argitaratzen da, Bilboko Gobernu Batzordeak 2023ko martxoaren 29ko bilkuran onetsia, beste batzuen artean:

BAT

Katastroko 1348-10002 eta 1438-10003 lurzatien desjabetzea egiteko espedientea hastea, desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda onestea, eta lurzati bien azalera osoa osatzen duten hiri-lurzoru finkatugabearen 5.697,93 m^2-ak okupatu beharra adieraztea. Lurzati horiek biak Bilboko 6 zenbakiko Jabetza Erregistroko 22269B finka osatzen dute, Bolueta azoan daude, Bilboko itsasadarraren eta Telleria kaleko 8-12 zenbakietako pabiloien aurreko errepidearen artean, eta espazio libreen sistema orokorrera bideratuko dira.

ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA:

— Begoñako finka, 33369/B zenbakiduna. EKB: 48025000489860.

Erregistroko datuak

2138. liburukia, 1404. liburua, 121. folioa, 3. inskripzioa.

Deskribapena

— *Hiri-finka:* D. uri honetako Bolueta auzoan dagoen lurzatia. Gutxi gorabehera bost mila bederatziehun eta hogeita bi metro eta hogeita lau dezimetro karratuko azalera du (5.922,34 m^2).

— *Mugak:* iparraldetik, finka nagusiaren gainerakoa (lurzati hori eta Begoñako Plan Partzialeko 292. eta 293. etxadiak bereizten dituen errepidea); hegoaldetik, Nerbioi ibaia; ekialdetik, finka nagusiaren gainerakoa, eta, mendebaldetik, Santa Ana de Bolueta SA sozietateari desjabetutako lurrak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren jabetzakoak. Lur azpiko hodi batzuek zeharkatzen dute finka, ekialdetik mendebaldera. Hodi horiek ura eramaten dute Nerbioi ibaitik Santa Ana de Bolueta SAren ur-jauzi eta turbinetara, sozietatearen beste finka batzuetan zehar. Katastroko zenbaki finkoa: U4414327R. Finka hori Begoñako 469. liburuan, 54. folioan, 1802. zenbakiarekin erregistratutakotik bereizitako zatia da.

Gaur egungo titularra

— Izena: Telefónica Sociedad Operadora de Servicios de Telecomunicaciones en España.

— Titulua: sozietatearen ekarpena.

— Eskubidearen izaera: jabetza.

— Partaidetza: osoa.

— Inskripzioa: 3.

— Inskripzio-data – 2003/02/04, Begoñako 1404. liburua, 2138. liburukia, 121. folioa.

eek: BAO-2023a075

Eraginak

Finkak 58 m²-ko bide-zor iraunkorra du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren alde, iraganean eraikitako PZ-208 gainezkabiderako. Halaxe jasota dago, batetik, «Nerbioi-Ibaizabaleko hodi-biltzailea: Areatza-Bolueta zatia» proiektuaren obrek eragindako BI-17 finkaren premiazko okupazioa egiteko nahitaezko desjabetze-espedientean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 1997ko uztailaren 28an egindako okupatu aurreko aktan, eta, bestetik, 2001eko azaroaren 27ko akta osagarrian. Ziurtagiri horiek aurkeztutzat ageri dira desjabetze-espediente honetan.

Gainera, jabari-mugaketa hauek ditu:

— 50 zentimetro (50 cm) baino sakonagoak diren goldaketa-lanak edo antzekoak egiteko, eta zurtoin altuko arbolak edo zuhaixkak landatzeko debekua.

— Edozein motatako eraikuntza egiteko debekua, baita behin behineko edo aldi baterako eraikuntzak ere. Eta hoditeria eta hari erantsitako elementuak kaltetu ditzakeen, edo hodiek behar bezala funtzionatzea edo haietan zaintza-, mantentze- eta konponketa-lanak egitea eragotzi dezakeen edozer egitekoa.

— Instalazioetan mantentze-, ustiatze- eta zaintza-lanak egiteko langile eta ekipoek libreki sartu ahalko dute, baina, kalterik eraginez gero, ordaindu egin beharko dituzte.

Begoñako 33369/B finkan desjabetu beharreko zatiaren deskribapena

— Azalera: 5.697,93 m², hau da, finka osoa.

— Mugak: iparraldetik, Telleria kalea; hegoaldetik, Bilboko itsasadarra; ekialdetik, Katastroko 1438-10001 lurzatia, eta, mendebaldetik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren orubea (eraikinaren kodea: N9910033D).

— Finka osorik desjabetu da.

BI

Eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, hogei egun baliodunez. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta uriko egunkarietako batean, beren burua eragindakotzat jotzen dutenek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ditzaten, eta jabe ezezagunei edo ohiko bideak erabiliz jakinarazpena egin ezin zaienei jakinarazteko. Udalaren webgunean ere argitaratuko da iragarkia.

Epe horretan zehar, espedienteko agiriak ikusgai egongo dira Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saileko Kudeaketaren Sailataleko bulegoetan (San Agustin erakina, Ernesto Erkoreka plaza 12, 1.B). Hitzordua 944 204 229 eta 944 204 593 zenbakietan eskatu beharko da.

HIRU

Jakinaraztea, eta aurreko txostena eta Desjabetzeen Negoziatu Teknikoko buruak 2023ko martxoaren 20an egindako txostena bidaltzea.

LAU

Bilboko 6 zenbakiko Jabetza Erregistroari eskatzea desjabetutako finken jabari eta kargei buruzko ziurtagiria bidaltzeko eta Hipoteka Erregelamenduaren 32. artikuluan aurreikusitako orri-bazterreko inskripzioa egiteko.

Bilbon, 2023ko martxoaren 29an.—Desjabetzeen Sekzio Juridikoko burua, M. Josune Erauzkin

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Hasierako onespena ematea Peñascaleko RE.02.5 Azpieremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (Bilbo), Estudio K, S. Coop. P.-k idatzitako dokumentuaren arabera (2022-004280 espedientea).

Gobernu Batzordeko Idazkaritzari Laguntzeko Organoaren jarduneko titularraren eskuordetzaz, erabaki hau argitaratzen da, Bilboko Gobernu Batzordeak 2023ko martxoaren 29ko bilkuran onetsia, beste batzuen artean:

«*Bat*: Hasierako onespena ematea Peñascaleko 05.2 Azpieremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (Bilbo), Estudio K, S. Coop.P.-k idatzitako dokumentuaren arabera.

Erabaki hori, dena dela, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak emango duen ingurumen-txosten estrategikoaren ondorioen menpe egongo da.

Bi: Herritarrei horren berri emateko epea irekitzea, 2023ko ekainaren 15era arte. Horretarako, iragarkiak argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko egunkaririk zabalduenean (gutxienez), eta Udalaren webgunean, euren burua eragindakotzat jotzen dutenek beren alde egoki deritzeten alegazioak egin ditzaten. Administrazio-espedientea eta agiri teknikoak eskueran izango dituzte Planeamenduko Sailataleko bulegoetan, Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailean (San Agustin eraikina - Ernesto Erkoreka plaza 12, 1. B).

Hiru: Dokumentuaren kopia bidaltzea Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako Sailera eta Bilboko Udalaren Berdintasun Sailera, beren eskumenen eremuan txostenak eman ditzaten.

Lau: Dokumentua URA-Uraren Euskal Agentziari bidaltzea, Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7 k artikuluak xedatutakoaren arabera.

Bost: Aurrerantzean eraginpeko aldean lizentziarik ez ematea, halaxe ezartzen baitu Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85. artikuluak.

Sei: Ziurtagiria egitea eta honako hauei igortzea, dagozkion ondorioak izan ditzan: Obrak Egiteko eta Lokalak Zabaltzeko Lizentzien Sailatala, Hirigintzako Diziplinako Sailatala, Idazkaritza Teknikoko eta Zerbitzu Orokorretako Sailatala, eta 7. barrutiko Kontseilua (Rekalde)».

JENDAURREAN JARTZEA ETA ALEGAZIOAK EGITEA

Administrazio-espedientea eta agiri teknikoak Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saileko Kudeaketako Sailataleko bulegoetan egongo dira eskuragarri (San Agustin eraikina - Ernesto Erkoreka plaza 12, 1. B), aurretiazko hitzorduarekin, eragindakoek beren interesak babesteko egoki iritzitako alegazioak egin ahal izateko. Aurretiazko hitzordua 944 204 229 eta 944 204 593 telefono-zenbakietan eskatu ahalko da.

Dokumentazioa Udalaren web orrian (www.bilbao.eus) ere eskuragarri dago.

Informazio publikoko aldian zehar, alegazioak ohiko bidetik jarri ahalko dira, aurrez aurre (erregistroetan, aurretiazko hitzorduarekin) zein e-udala izapideen atarian («Erregistro Orokorrean dokumentazioa eskatzea edo aurkeztea»).

Bilbon, 2023ko martxoaren 30ean.—Planeamenduko Sekzio Juridiko Administratiboko burua, Idoia García de Vicuña Melendez

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Elorrioko Udala

Kreditu gehigarriaren hasierako onarpena

Elorrioko Udalak 2023ko apirilaren 4an egindako Osoko Bilkuran, hasieraz onartu zuen 2023-00402 espedientea. Espediente honen bidez 2023. Ekitaldiko aurrekontu orokorra aldatzeko kreditu gehigarria emango da, aurreko ekitaldiko diruzaintzaren gerakinarekin finantzatuko dena.

Abenduaren 2ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 15 eta 34 artikuluek xedatzen dutenarekin bat, erabakia jendaurrera aterako da iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hurrengo 15 egunen barruan adierazitako arauaren 17. Artikuluan aipatzen diren interesatuek erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten.

Erreklamazioak tartekatzeko epean erreklamaziorik jaso ezean, espedientea behin betiko geratuko da onartuta.

Elorrion, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Idoia Buruaga Barcena

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Fruizko Udala

Fruizko Udaleko igerilekuen kudeaketa integraleko zerbitzuaren kontratuari dagokionez kontratazio-gisa dituen ahalmenak Alkatetzari eskuordetzea.

Fruizko udalbatzak, 2023ko martxoaren 29an egindako ohiko bilkuran, martxoaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 61. artikuluak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.4 artikuluak eta azaroaren 28ko 2568/1986 antolakuntza eta jarduera araudiaren errege dekretuaren 51, 114 eta hurrengo artikuluek ebazten dutena kontuan harturik, honako erabaki hau, aho batez hartu zuen eta hitzez hitz honelaxe dio:

«*Lehenengoa:* Alkatetzari eskuordetzea Fruizko igerilekuen kudeaketa integraleko zerbitzuaren kontratuari dagokionez kontratazio-organo gisa dituen ahalmenak.

Bigarrena: Honako ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.»

Fruizen, 2023ko apirilaren 4an—Alkatea, Ane Legarretaetxebarria Aurtenetxe

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Galdakaoko Udala

2023ko apirilaren 3tik 10era Alkatetzaren eskumenak delegatzeko iragarkia

DEKRETUA 2023KO APIRILAREN 3AN, 2023-0720

Alkatea 2023ko apirilaren 3tik 10era egongo ez denez, ordezkatu beharra dago.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 23.3 artikuluaren arabera, eta Udal Erregelamendu Organikoaren 33. artikuluaren arabera, Alkateordeei dagokie Alkatea ordezkatzea baldin eta kargua hutsik badago, edo Alkatea kanpoan edo gaixorik badago.

2019ko uztailaren 9ko 2019-1361 zenbakidun Alkatetza-Dekretuaren bidez Alkateordeak izendatu dira.

Aurrekoaren ondorioz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Alkatetzari dagozkion eginkizun guztiak lehenengo alkateordeari, Maria Paz Losada Gil, 2023ko apirilaren 3tik 10era delegatzea.

Bigarrena: Ebazpen hau udal zerbitzu guztiei helaraztea.

Hirugarrena: Ebazpen hau dagokion Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Galdakaon, 2023ko apirilaren 11n.—Alkatea, Iñigo Hernando Arriandiaga

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Gernika-Lumoko Udala

Gernika-Lumoko Udalaren jabetzako ondare-ondasunaren doako erabilera-ren lagapenari buruzko espedientea egin da «Sustabiz» Fundazioaren alde.

Merkataritza-lokala, Gernikako Askatasuna kaleko 5ean dagoen hiri-finka, U8902607U zenbaki finkoduna, 64 m^2-ko azalerakoa eta 1.1.66 zenbakiarekin ondasunen inbentarioan inskribatua.

Martxoaren 29an egindako Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat etorriz, espedientea 15 egunez jendaurreratuko da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Erreklamazioak organo eskudunak ebatziko ditu, hala badagokio.

Horretarako, espedientea eskuragarri dago udaletxean, aztertu eta kontsultatu ahal izateko.

Gernika-Lumon, 2023ko apirilaren 11n.—Alkatea, José María Gorroño Etxebarrieta

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

Getxoko Udalean 2023ko Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak eta laguntzak emateko irizpideak.

1. Sarrera

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren helburu nagusia prestazio ekonomikoen estaldura eta sarbidea hobetzea da. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, gaur egun, honako hauek sostengatzen ditu: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL).

Hala ere, lege honek indarrean egoteari utziko dio 2023ko apirilean, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea indarrean sartzen den unean.

Lege honek bi helburu ditu. Alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen estaldura eta sarbidea hobetzea, eta, bestetik, laneta gizarte-bizitzan moldatzeko zailtasunak dituzten euskal herritarrek gizarte-zerbitzuetarako eta enplegurako sarbidea hobetzea, prestazio ekonomikoen (DSBE eta BGDS) eta laguntzen (GLL) arteko bereizketa kontzeptuala eginez, araubide juridiko desberdina baitakar berekin, lehenengoak eskubide subjektibo gisa kategorizatzeari lotuta, GLLetatik kanpoko izaera.

Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak honela definitzen ditu gizarte-larrialdietarako laguntzak: prestazio ekonomikoak, aldizkakoak ez direnak, eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoei (ohikoak zein ezohikoak) aurre egiteko behar beste baliabide ez duten bizikidetza-unitatearen barruko pertsonei zuzenduak (Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 2. artikulua).

2017an, ikusi zen Legearen aurreikuspen jakin batzuk egokitu egin behar direla pobrezia mota berrien gizarte-eskaera berrira, hala nola pobrezia energetikoko egoeretara, behar bezala estali gabe baitaude. Hori dela eta, 16/2017 Dekretua onartu zen, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena, 3. artikuluan energia-gastuetarako kontzeptu espezifiko berri bat sartuz (gasaren hornidura elektrikoa edo etxean erabiltzeko bestelako erregaia).

Arau-esparruaren osagarri dira maila bereko edo beheragoko beste xedapen batzuk, hala nola:

a) 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, etxebizitza bat bizitzeko premia gisa gozatzeko eskubidea arautzen duena.

b) 19/2021 Legea, abenduaren 20koa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duena.

c) 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.

d) 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.Irizpideak

2. Irizpideak

2.1. *Onuradunen betebeharrak*

2023. urtean GLLak eskatzen dituzten pertsonek aurreko urteetako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen justifikazioak egunean eduki behar dituzte, eta edo ezin dute kontzeptu horrengatik exekutiban udalarekin zorrik izan.

eek: BAO-2023a075

Pertsona batek aurreko urteetako justifikazioak egunean dituela ulertuko da, baldin eta, laguntza osoa justifikatu ez badu ere, justifikatu gabeko zatia borondatez itzultzeko eskatu badu edo jada adostutako zorra zatikatzeko eskatu badu.

Arau orokor horrek salbuespen hauek ditu:

a) Alokairu, hipoteka-mailegu, mantentzerako, energia eta oinarrizko premietarako eskaerak eskatzaileak zorrak izan arren izapidetuko dira beti (azken kontzeptu hori, soilik, baldin eta eskaera egiteko unean eskaera egileak 300 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak baditu hilean).

b) Altzari, konponketa eta instalazioetarako, eta lehen mailako beharrizanetarako eskaerak, eskatzaileak gastua dagoeneko egin badu eskaera egiteko unean .

GLLak jasotzen dituzten pertsonak Zergetako eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izateko betebeharra betetzetik salbuetsita daude, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluko e) atalak ezartzen duena.

Salbuespen horren funtsa gizarte-larrialdietarako laguntzen nolakotasunean bertan dago, horien helburua baita gizarte-bazterketako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzea, biztanleek dituzten benetako beharretan oinarrituz.

2.2. *Urteko eskaeren muga*

Eskaera eta ebazpen bakar bat egingo da eta ebazpen bakarra emango da urtean.

Salbuespen gisa, bigarren GLL bat izapidetu eta ebatzi ahal izango da, baldin eta GLLetan aurreikusitako premietako bat sortzen bada edo bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoa, errolda-egoera edo bizileku-egoera aldatzen bada.

Bigarren eskaeren kasuan, egindako gastuaren faktura aurkeztu beharko da soilik altzarien eta etxetresna elektrikoen eskaeren, etxe barruko konponketen eta oinarrizko beharren kasuetan.

2.3. *Urteko kontzeptuen muga*

Bizikidetza-unitate bakoitzeko, gehienez ere 3 kontzeptu emango dira, salbu eta GLLaren eskaeran 3 eta 4. ataletan sartutako gastuak eskatzen badira (Etxebizitzako edo ohiko alojamenduko energia eta mantentze gastuak); horiengatik 4 kontzeptu eskatu ahalko dira.

2.4. *Bizikidetza-unitateen muga*

GLLak arautzen dituen Dekretuaren 6.1.c) artikuluaren arabera, etxebizitza berean gehienez ere bi bizikidetza-unitatek eskatu ahal izango dituzte Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak, eskubidezko prestazio ekonomikoak (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarria) eta GLLak barne.

2.5. *Laguntzan esleitu daitezkeen zenbatekoak*

Eskaera bakoitzeko kontzeptu ezberdinei eslei dakiekeen zenbatekoa dagokion portzentajea aplikatzearen emaitza izango da. Portzentajea aplikatzeko kontuan izango dira:

— eskatzailearen eta bizikidetza-unitateko gainerako kideen baliabideen maila (I. Eranskina).

— Kontzeptu bakoitzerako gehieneko zenbatekoa (III. Eranskina), GLLak arautzen dituen Dekretuaren 11.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

— kontzeptu bakoitzeko gastuaren araberako portzentaje gutxitua.

Dekretuaren 5. artikuluko f atalean oinarrituta eta erabilgarri dagoen ondarea kontuan hartuta, gehienez eman beharreko zenbatekoa II. Eranskinaren laukian jasotakoa izango da.

Kontzeptu bakoitzeko gehienez eman beharreko zenbatekoa ezin izango da araudi honetan jasotako zenbatekoa baino handiagoa izan.

Dekretuaren 12.b. artikuluan oinarrituz, aribideko urtean diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izan ez diren (edozein modalitatetan) eta gizarte-larrialdietarako la-

eek: BAO-2023a075

guntzak jasotzen dituzten pertsonen kasuan, bizikidetza-unitate horretan zenbatu daitezkeen diru-sarreren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen kontzeptuan urtean emandako zenbateko orokorraren baturak, ezingo du inolaz ere ondorengo kopurua gainditu: pertsona titularraren ezaugarrietako bizikidetza-unitate bati urtero dagokion diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehieneko zenbatekoaren %200.

2.6. *Gizarte Larrialdietarako Laguntzen izaera subsidiarioa*

GLLen onuradunek edo haien bizikidetza-unitateko kideek dagokien edozein prestazio/baliabide ekonomiko eskatu beharko dute aldez aurretik.

Eskatutako kontzeptua alokairua den kasuetan, Etxebiden alta emanda egon beharko da eta ezin izango zaie Bizigune Programaren etxebizitzei uko egin, Etxebizitzaren Prestazio Orokorrari buruzko Dekretuan jasotako kasu hauetan izan ezik: 65 urtetik gorako pentsiodunak, etxebizitza berean 10 urte baino gehiago bizi izan direla egiaztatzen badute; bizileku-baimenik gabeko pertsonak; aurreko ekitaldian gutxienez 3.000 euroko diru-sarrerarik izan ez duten pertsonak.

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE) ere nahitaez eskatu beharko da.

2.7. *DSBE aitortuta baina etenda duten pertsonen GLL*

GLLren eskatzaileari DSBE/EPO jasotzeko eskubidea aitortu bazaio baina prestazioa behin-behinean etenda badago, GLL eman ahalko zaio etendurak irauten duen aldian.

2.8. *Erroldatze-egoerak*

Erroldatzea-soziala baimendu zaien eta beren gizarte-langilearekin aldian behingo jarraipena mantentzen duten pertsonak bizikidetza-unitate independentetzat joko dira, eta etxebizitza kontratua aurkezteko beharretik salbuetsiko dira; horrela, GLLak eskuratu ahal izango dituzte lehen mailako beharrizanetarako.

Eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan Getxoko udalerrian erroldatuta egon ez den pertsona batek eskaera egiten duenean, aurretik erroldatuta egon den udalerriko erroldа-agiria eskatuko zaio. Horrez gain, udalerri horretan aribideko urtean GLLa jaso duen ala ez adierazten duen ziurtagiria eskatuko zaio.

2.9. *Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateraezintasunak*

— DSBE jasotzen duten alokairu-erregimeneko pertsonek ezin izango dute eskatu ohiko etxebizitzarekin lotutako GLLrik; izan ere, EPO jasotzeko eskubidea izango dute, eta EPOk etxebizitzarekin lotutako gastu guztiak estaltzen ditu.

— Etxebizitza Prestazio Osagarria, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, Gaztelagun eta alokairu libreko beste laguntza batzuk jasotzen dituzten pertsonek ezin izango dute ohiko etxebizitzarekin lotutako gasturik eskuratu, kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko.

— Jabetzan duten DSBEren hartzaileek ohiko etxebizitzarekin lotutako gastuak eskatu ahal izango dituzte.

— Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batek sustatutako babes publikoko etxebizitzaren bat alokairuan edo jabetzan duten eskatzaileek edo bizikidetza-unitateko kideren batek ezin izango dute alokairu-gastuetarako edo hipoteka-mailegueterako laguntzarik jaso, pertsona horiek etxebizitza-gastuetan laguntzen ari direla ulertuta, babestuak direlako.

— Alokairu-kontratuaren titularrek, ezkontzaz edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor batez lotuta badaude, edo errentatzailearen eta errentariaren eta bizikidetza-unitateko edozein kideren artean hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana badute, ezin izango dute alokairu-gastuetarako laguntza eskuratu.

eek: BAO-2023a075

3. Berariazko gastuak

a) Ohiko etxebizitza edo edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak, besteak beste:

1) Alokairu gastuak

Kontzeptu honen xedea ohiko etxebizitzaren alokairuaren, errentamendu partekatuaren edo azpi-errentamenduaren ziozko gastuak estaltzea da.

Eskaria egin ahalko dute alokairu, errentamendu partekatu edo azpi-errentamenduarekin lotutako kontratuen titularrek.

Salbuespen gisa, beste etxebizitza baten jabeek/usufruktudunek ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzak jaso ahal izango dituzte, baldin eta ohiko etxebizitza utzi behar izan badute irisgarritasun ezagatik, desgaitasun-egoera baten ondorioz, desgaitasun-egoera baten ondorioz, banantze edo dibortzio baten ondorioz edo etxegabetzea edo etxeko indarkeriaren biktima izatea bezalako beste arrazoi batzuen ondorioz, besteak beste. Salbuespen horri bi urtez baino ez zaio eutsiko, lehenengo eskaera egiten denetik aurrera.

Bi urte horietan, ez da zenbatuko jabetzako etxebizitzaren katastro-balioa.

Eman beharreko zenbatekoaren mugak aldatu egingo dira kontratu-motaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren (hemendik aurrera DBES) prestazioen onuradunak diren bizikidetza-unitate kopuruaren (etxebizitza berean bizi direnak) arabera. Etxebizitza berean ezingo dira inola ere egon DBESaren prestazioak jasotzen ari diren bi bizikidetza-unitate baino gehiago.

— Bizikidetza-unitate errentari bakarra duten etxebizitzen kasuan, gehieneko muga hilean 300 eurokoa izango da, eta ezin izango da gainditu alokairuaren prezioaren %70.

— Bizikidetza-unitate bat baino gehiago dituzten etxebizitzen kasuan (baterako errentamenduak, azpierrentak edo ostatatze- eta/edo apopilo-kontratuak), ez dira bi eskabide baino gehiago onartuko.

a) Laguntzak eskatzen dituen bizikidetza-unitate baten kasuan, gehieneko muga hilean 300 eurokoa izango da, eta ezin izango du gainditu alokairuaren prezioaren edo, hala badagokio, baterako errentamenduagatik edo azpierrentamenduagatik ordaindutako zenbatekoaren %70.

b) Bizikidetza-unitate eskatzaile bakarra dauden etxeetan hileko 150 eurokoa izango da, eta bien artean ezingo da gainditu etxebizitzaren alokairuaren prezioaren %80.

— Ostatuetan, hoteletan, pentsioetan eta legez eratutako erakunde sozialen etxebizitzetan ostatu hartzen den kasuetan, hileko 275 euroko muga ezarriko da bizikidetza-unitate bakoitzeko. Kasu horretan, bizikidetza-unitatearen muga ez da bikoa izango, establezimenduan legez onartutako gehieneko logela-kopuruaren arabera erabakiko baita. (Ikusi III. eranskina).

Kontratu-motaren arabera beharrezkoak diren agiriak:

— Etxebizitzaren alokairu-kontratua, ostatatze-apopilotza kontratua. Ostatatze-apopilotza kontratua: Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren fotokopia aurkeztu beharko da. Errentariak etxebizitza azpierrentamenduan alokatu badu, azpierrentamendu-kontratuaren kopia aurkeztuko du.

— Azpierrentamendu-kontratua. Etxebizitzaren alokairu- eta azpierrentamendu-kontratuak aurkeztu beharko dira, jabearen sinadurarekin, beste batzuei alokatzeko baimena azaltze aldera. Hori ezinezkoa bada, pertsona eskatzaileari zinpeko aitorpena eskatuko zaio, eta bertan agertu beharko du errentariak ez diola eman nahi izan alokairuaren kontratuaren kopia. Hala eta guztiz ere, azpierrentamendu-kontratua beharrezkoa izango da beti, esku hartzen duten aldeek sinatuta.

eek: BAO-2023a075

2) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak

Kontzeptu honen xedea da ohiko etxebizitza erosteko kredituak amortizatzearen eta horien interesen zioz sortutako gastuak estaltzea.. Ez dira onartuko bestelako ondasunak eskuratzeari edo beste gastu batzuk ordaintzeari aurre egiteko bigarren etxebizitza-hipotekak.

GLLetarako hipoteka-maileguaren kontzeptuarekin ezarritako muga 5 urtekoa da, GLLak aldatzen dituen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretua indarrean sartzen denetik. Hori ez zaie aplikatuko 60 urte baino gehiagoko pentsiodunei.

Ez dira kontuan hartuko kontzeptu horregatik jasotako laguntzak, GLLei buruzko dekretuaren aldaketa indarrean sartu aurretik eman badira.

Salbuespen gisa, beste etxebizitza baten jabeek/usufruktudunek ohiko etxebizitzaren hipoteka-mailegua ordaintzeko laguntzak jaso ahal izango dituzte, baldin eta ohiko etxebizitza utzi behar izan badute irisgarritasun ezagatik, desgaitasun-egoera baten ondorioz, desgaitasun-egoera baten ondorioz, banantze edo dibortzio baten ondorioz edo etxegabetzea edo etxeko indarkeriaren biktima izatea bezalako beste arrazoi batzuen ondorioz, besteak beste. Salbuespen horri bi urtez baino ez zaio eutsiko, lehenengo eskaera egiten denetik aurrera.

Bi urte horietan, ez da zenbatuko jabetzako etxebizitzaren katastro-balioa

Gehieneko zenbatekoa hilean 300 eurokoa da. Ezin du gastu errealaren %70 gainditu, gizarte-larrialdiko egoeraren aurretik hartutako kredituak amortizatzeko eta interesen gastuetarako. (Ikusi III. eranskina).

Beharrezkoak diren agiriak: Interesdunari etxebizitzaren eta hipoteka-maileguaren eskriturak edo banketxearen ziurtagiria eskatuko zaio, mailegua ohiko etxebizitzari buruzkoa dela eta horren xedea etxebizitza erostea dela egiaztatzeko, bai eta ordaindu beharreko hileko zenbatekoa ere. Banketxearen ziurtagiri bat ere aurkeztu ahal izango da, maileguaren helburua ohiko etxebizitza erostea dela adierazten duena.

3) Energia-gastuak: elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzen diren bestelako erregaien horniduraren ondoriozkoak.

Kontzeptu honen xedea da elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzen diren bestelako erregaien horniduraren ondoriozko gastuak estaltzea.

Eskaria egin ahalko dute hornidura-kontratuen titularrek. Hornidurak ordaintzen dituzten pertsonek ere eskatu ahal izango dute, kontratuen titulartasuna aldatu ez bada.

Bizikidetza-unitate bakoitzeko, urteko 1500 euro jasoko dira gehienez; bi bizikidetza-unitateko, aldiz, 750 euro. Nolanahi ere, erabiltzaileak aurreko urtean egindako gastuaren gutxi gorabeherako balorazioa egingo da. Horrek eman beharreko zenbatekoa kalkulatzen lagunduko digu, okerreko kobrantzak saiheste aldera.

Beharrezkoak diren agiriak: Gastua kalkulatzeko, hornitzaileen ziurtagiria edo fakturak. Azpi-errentamenduen zein partekatutako errentamenduen kasuan, kontratuan zehaztu beharko da etxebizitzaren gastuaren zenbatekoan energia-gastuak sartuta dauden ala ez. Hori adierazi ezean, errentariaren zinpeko deklarazioa onartuko da eskaera egiteko eta aurrerago justifikatzeko. Bertan agerrarazi beharko da, zehatz, zein den energia-gastua. Hala egiten ez badu, ezin izango da GLLa izapidetu kontzeptu horrengatik.

4) Ohiko etxebizitza edo bizilekua gozatu eta mantentzeko beharrezko gastuak, besteak beste ura, estolderia, zaborrak edo ondasun higiezinaren gaineko zergari (OHZ) dagozkionak.

Kontzeptu honen xedea da uraren, estolderiaren, zaborren, OHZren eta jabe-erkidegoaren nahiz etxebizitzaren segurtasunaren (etxebizitza-asegurua, erkidego-asegurua, eraikinen ikuskapen teknikoa eta gas-kalderen mantendua) zioz sortutako gastuak estaltzea. Eta komunitatearen etorkizuneko obra baterako aurrezte gisa onartzen diren derramak (etorkizuneko obratzat hartzen da Erkidegoak aurrekontu jakin batean oraindik onartu ez duena). Ordainagiriak onuradunaren edo bizikidetza-unitateko kideren baten izenean helbideratuta edo ordainduta egon behar dira.

eek: BAO-2023a075

Eskaria egin ahalko dute hornidura-kontratuen titularrek. Hornidurak ordaintzen dituzten pertsonek ere eskatu ahal izango dute, kontratuen titulartasuna aldatu ez bada.

Bizikidetza-unitate bakoitzeko, urteko 900 euro jasoko dira gehienez; bi bizikidetza-unitateko, aldiz, 450 euro. Nolanahi ere, erabiltzaileak aurreko urtean egindako gastuaren gutxi gorabeherako balorazioa egingo da. Horrek eman beharreko zenbatekoa kalkulatzen lagunduko digu, okerreko kobrantzak saiheste aldera.

Beharrezkoak diren agiriak: Gastua kalkulatzeko, hornitzaileen ziurtagiria edo fakturak .Azpi-errentamenduen zein partekatutako errentamenduen kasuan, kontratuan zehaztu beharko da etxebizitzaren gastuaren zenbatekoan mantentze-gastuak sartuta dauden ala ez. Hori adierazi ezean, errentariaren zinpeko deklarazioa onartuko da eskaera egiteko eta aurrerago justifikatzeko. Bertan agerrarazi beharko da, zehatz, zein den mantentze-gastua. Hala egiten ez badu, ezin izango da GLLa izapidetu kontzeptu horrengatik. Derramen kasuan, administratzaile/presidentearen dokumentua, derrama aurrezpenerako dela adierazten duena, zenbatekoa eta epea adierazita.

5) Ohiko etxebizitza edo bizilekua bizitzeko moduan jartzeko edo oinarrizko ekipamendua jartzeko behar diren gastuak, hau da:

5.1. «Línea zuria» izeneko etxetresna elektrikoen gastuak.

Altzarien kontzeptuan sartzen dira etxebizitza erabiltzeko beharrezkoak eta oinarrizkoak diren elementuak, besteak beste logelako ekipamendua (somierra, koltxoia, arropa-armairua eta ikasketa-mahaia), jangelakoa (mahaia eta aulkiak) eta sofa.

Altzariaren kontzeptutik kanpo geratzen dira apaindura-elementuak, lanparak, alfonbrak, apalak eta gortinak.

«Lerro zuriko» etxetresna elektrikoen kontzeptuaren barruan ondokoak baino ez dira sartzen: hozkailua, bitrozeramika, labea, ke-kanpaia, arropa-garbigailua eta mikrouhin-labea.

Ezingo da GLLrik eman:

a) etxebizitza baten oinarrizko ekipamenduarekin lotutako bi elementu baino gehiago erosteko urte berean.

b) etxebizitzaren ekipamendurako GLLrik eman, aurre-aurreko bi urteetan eman bada.

c) Alokairuko etxebizitzen kasuan, altzaririk gabe daudenean eta kontratuan horrela jasota dagoenean izan ezik.

Laguntza somier bat eta koltxoi bat eskuratzeko eskatzen denean, elementu bakar gisa zenbatuko da.

Ikasketa-mahai bat eta aulki bat erosteko eskatzen bada laguntza, elementu bakar gisa zenbatuko da.

4/2011 Dekretuaren 11.2. artikuluaren arabera, kontzeptu horren gehieneko zenbatekoa %50 murriztuko da, hau da, 925 euro. (Ikusi III. eranskina).

Altzairu bakoitzeko, gehieneko zenbateko hau izango da:

— 90 zentimetroko somierra: 150 euro.

— 135/150 zentimetroko somierrak: 300 euro.

— 90 zentimetroko koltsoia: 250 euro.

— 135/150 zentimetroko koltsoia: 450 euro.

— Arropa-arairua: 300 euro.

— Ikasteko mahaia: 90 euro.

— Jantokiko mahaia: 120 euro.

— Aulkia: 50 euro.

— Sofa: 450 euro.

Etxetresna elektriko bakoitzeko, gehieneko zenbatekoa hau izango da:

— konbi hozkailua: 450 euro.

eek: BAO-2023a075

— bitrozeramika: 250 euro.

— labea: 250 euro.

— ke-kanpaia: 100 euro.

— arropa-garbigailua: 300 euro.

— mikrouhin-labea: 75 euro.

— Banakako erradiadore elektrikoa: 80 euro.

Beharrezkoak diren agiriak. Interesdunari bi aurrekontu eskatuko zaizkio edo, bestela, gastuari dagozkion fakturak. Zenbatekoa erabakitzeko kalkulua egiteko, kopuru gutxieneko aurrekontua erabiliko da. Aurrekontu horrek kontzeptuaren gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, laguntza gehieneko kopuru horren arabera kalkulatuko da.

5.2. Etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak

Kontzeptu honen xedea jabe-erkidegoari eragiten dioten nahiz eskatzaileak bere ohiko etxebizitzaren barruan egiten dituen konponketen ziozko gastuak dira

Konponketak erkidego osoarengan eragina duenean, obraren aurrekontu orokorra eta interesdunak eskaeraren urtean ordaindu behar duen zenbatekoa exijituko dira. Halaber, obra urte horretan egiten ari dela zehaztu beharko da.

Egiaztatzen bada eskatzaileak diru-laguntzaren bat jasotzen duela gastu hori estaltzeko, GLLak osagarritasun-irizpidearen arabera emango dira, eta, bi prestazioen artean, inoiz ez da konponketaren benetako kostua gaindituko.

Kontzeptu hori eskatzen baldin bada bigarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren ebazpen egokia eskatuko da

Etxe barruko konponketen kasuan, 2 aurrekontu eskatuko zaizkio interesdunari, edo, bestela, gastuari dagozkion fakturak, GIZATEKen eskaeraz gain. Bizkaiko Foru Aldundiaren 181/2021 Foru Dekretuaren I. eranskinean jasota dauden elementuetarako irisgarritasuna hobetzen den kasuetarako (181/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez onartzen baita 2022an eta 2023an GIZATEKen sartuta dauden eta mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuak eskuratzeko dirulaguntzen deialdi publikoa).

Kontzeptu horretan ondokoak sartzen dira:

— Kontzeptu horretan obrak egiteko materialak sartuko dira, eskatzailea bera baldin bada obrak egingo dituena.

— Galdarak, termo elektrikoak, erradiadoreak, lehioak, ateak, bainu-manparak eta arropa-esekilekuak eskuratu eta jartzeko gastuak.

Ezin izango dute etxe barruko konponketa-kontzeptuagatiko eskaerarik egin aurreko bi urteetan, jarraian, GLLa kontzeptu horrengatik eskatu dutenek

5.2 puntuko zenbatekoa erabakitzeko kalkulua egiteko, kopuru gutxieneko aurrekontua erabiliko da. Aurrekontu horrek kontzeptuaren gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, laguntza gehieneko kopuru horren arabera kalkulatuko da.

4/2011 Dekretuaren 11.2. artikuluaren arabera, kontzeptu horren gehieneko zenbatekoa %50 murriztuko da. Hau da, kontzeptu horretarako benetako zenbatekoa 925 eurokoa izango da, eta ezin izango du gastu errealaren %80 gainditu. (Ikusi III. eranskina).

b) *Bizikidetza unitateko kide baten edo gehiagoren lehen mailako beharrizanetarako gastuak, hala nola arropa, heziketa eta trebakuntza, eta osasun arreta, sistema publikoek estaltzen ez badituzte*

Kontzeptu honen xedea honako gastu hauek dira

1) Oinarrizko beharrizanei lotutako gastuak (janaria, arropa eta hezkuntza…)

Oinarrizko beharrizanei lotutako gastuen kasuan, GLLak emateko betekizun orokorrak betetzeaz gain, eskaera egiten den unean, ezingo da gastu horietarako beste prestazio publikorik eduki, ez eta 300 eurotik gorako berezko diru-sarrerak ere.

eek: BAO-2023a075

Kontzeptu horretarako 125 euro emango dira gehienez hilean, eta urtean 1.500 euro gehienez (ikusi III. eranskina).

2. Osasunari lotutako gastuak

Hortz-konponketak, betaurrekoak/lentillak, ortopedia eta/edo audifonoak eta Gizarte Segurantzak edo adingabeen hortz-tratamenduetarako PADI programak estaltzen ez dituen beste osasun-gastu batzuk (sendagaiak barne) barne hartzen ditu.

— Hortzetako konponketen kasuan, interesdunari bi aurrekontu eskatuko zaizkio, salbu eta tratamendua hasita badago; kasu horretan, hasitako tratamenduaren aurrekontua eskatuko zaio (edo faktura, bestela). GLLek ez dituzte kontuan izango, ez eta ordainduko ere, hortzetako inplanteak eta ortodontziak; salbu eta ortodontzia osasun-arrazoiengatik beharrezkoa dela adierazten duen txosten medikoa badago.

Betaurrekoak/lentillak erostean, bi aurrekontu eskatuko dira (edo fakturak, bestela), bai eta txosten medikoa, non premia horiek azaltzen diren.

Audiofono- eta ortopedia-gastuei dagokienez, bi aurrekontu eskatuko dira (edo fakturak, bestela), bai eta txosten medikoa, non premia horiek azaltzen diren. Era berean, beharrezkoa izango da aldez aurretik GIZATEKen eskaeraz gain. Bizkaiko Foru Aldundiaren 181/2021 Foru Dekretuaren I. eranskinean jasota dauden elementuetarako irisgarritasuna hobetzen den kasuetarako (181/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez onartzen baita 2022an eta 2023an GIZATEKen sartuta dauden eta mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuak eskuratzeko dirulaguntzen deialdi publikoa).

Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituen osasunari lotutako beste gastuen kasuan (psikologoak, estimulazio goiztiarra, ileordea minbiziaren tratamenduan, logopeda, ...), bi aurrekontu eskatuko dira, baita beharra azaltzen duen medikuaren txostena ere.

Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituen medikamentuen kasuan, medikamentu hori hautatzeko beharra adierazten duen medikuaren txostena eskatzen da

Ezin izango dute kontzeptu hori eskatu azken bi urteetan, pertsona bakoitzeko, GLLa jaso dutenek, adingabeentzako sendagaien eta laguntzen kasuan izan ezik.

Osasunari lotutako gastu guztietan, kopuru gutxieneko aurrekontua erabiliko da, zenbatekoa erabakitzeko kalkulua egiteko. Aurrekontu horrek kontzeptuaren gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, laguntza gehieneko kopuru horren arabera kalkulatuko da.

2023/10/02tik aurrera, ezin izango da eskatu hortzak konpontzeko eta ezta betaurrekoak/lentillak edo audifonoak konpontzeko ere, salbu eta uneko urtean egindako gastua bermatzen duen fakturarekin.

4/2011 Dekretuaren 11.2. artikuluaren arabera, lehen mailako beharrizanetarako gastu guztietan 1.850 euro emango dira gehienez, lentillen kasuan izan ezik; azken horretarako, 320 euro emango dira gehienez. (Ikusi III. eranskina).

Oinarrizko premiak dituen eskatzaile batek oinarrizko premiak betetzeko eskubidea badu, oinarrizko premien zenbatekoa emango da lehenik, eta gainerako zenbatekoa oinarrizko premiak asetzeko emango da.

c. Aldez aurretiko zorpetzea, a. eta b. ataletan aipatutako gastu-kontzepturen batean sortuak, edo bizitzaren oinarrizko beste premia batzuei aurre egiteko gastuetarako

Kontzeptu honen xedea da GLLn sartzen diren kontzeptuetako edozeinetan zorraren zioz sortutako gastuak estaltzea, a) eta b) ataletan ezarritakoaren arabera, bai eta bizitzako oinarrizko beste beharrizan batzuk asetzeko beharrezko gastuak ordaintzea ere.

Zorpetzea aribideko urteko edo aurrekoetako ez-ordaintzeen ondoriozkoa izan ahalko da; betiere erabiltzeak ez badu GLLrik edo beste prestaziorik jaso zorra sorrarazi duten gastuei aurre egiteko.

Era berean, zorra efektiboa ez bada ere eman daiteke, baldin eta hura hartzeko arriskua berehalakoa edo saihestezina bada.

eek: BAO-2023a075

Atal honetan gehienez eman beharreko zenbatekoa kontzeptu bakoitzaren arabera aurrez ezarritakoa izango da. Ezingo da, inola ere, 3.000 eurotik gorakoa izan bizikidetza-unitate baten kasuan; 1.500 eurotik gorakoa, bi bizikidetza-unitateren kasuan.

Aurretik adierazitakoa alde batera utzi gabe, aldez aurreko zorpetze-gastuengatiko urteko gehieneko zenbatekoak ezin izango ditu, kasu bakoitzean, kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak gainditu.

4. Eskaerak aurkezteko epea

2023. urteko GLLak eskatzeko epea martxoaren 27an hasi eta azaroaren 9an amaituko da. Hala ere, GLLak aurrez aurre eskatzen direnez oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin adostutako hitzorduan, epea azaroaren 9a baino lehen amaitu ahal izango da, hitzordu eskuragarririk geratzen ez bada.

5. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileak eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko du, behar bezala formalizatuta:

a) Datuak kontsultatzeko eta egiaztatzeko oposiziorik eza, 16 urtetik gorako pertsona guztiek sinatuta, Getxoko Udalaren ereduaren arabera (DN 339).

b) Erantzukizunpeko adierazpena eta datuak kontsultatzeko baimena, Eusko Jaurlaritzaren ereduaren arabera.

c) Ordezkaritza eredu normalizatuaren arabera egiaztatzea, onuraduna ez den beste pertsona batek aurkeztutako eskabideen kasuan.

d) Familia-liburuaren fotokopia, edo/eta, hala badagokio, zaintza eta kustodia edo tutoretza egiaztatzen dituzten agiriak, aurretik aurkeztu ez badira.

e) Banantze-epaia eta hitzarmen arautzailea, edo, hala badagokio, banantze-demanda, aurretik aurkeztu ez bada, eta azken ordainketaren fotokopia, halakorik badago.

f) Tratu txarren kasuan, ebazpen judizialaren/txosten fiskalaren/babes-aginduaren fotokopia.

g) Besteren konturako langileak: lan-kontratua eta uneko urteko nominak. Norberaren konturako langileen kasuan, uneko urteko BEZaren hiruhileko aitorpenak eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketen kopia.Enplegu-eskatzailearen ziurtagiria.

h) Enplegu-eskatzailearen ziurtagiria.

i) Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasoz gero edo Gaztelagun alokairua ordaintzeko laguntza jasoz gero, horren egiaztagiria.

j) Jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria edo hori eskatu izanaren zinpeko aitorpena.

k) Beste udalerri batzuetatik lekualdatuz gero, uneko urtean GLLak jaso edo ez jaso izanaren ziurtagiria.

m) Banku-saldoak, eredu normalizatuaren arabera.

n) banku-helbideratzearen orria eta, hala badagokio, banku-helbide endosoarena, eredu normalizatuen arabera.

ñ) Premiaren egiaztapenari buruzko agiriak, kontzeptu bakoitzaren arabera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuek dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango dituzte, salbu eta interesdunak modu arrazoituan aurka egiten badio.

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzean edo Getxoko Udalari berari emandako botere publikoak erabiltzean,

eek: BAO-2023a075

— DBEO: 6.1.a) Interesdunak baimena eman zuen bere datu pertsonalak helburu zehatz baterako edo batzuetarako tratatzeko.

— DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legezko betebehar bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Getxoko Udalak egiaztatuko du araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla prestazio hori eskuratu eta mantentzeko, administrazio publiko desberdinetatik bitarteko telematikoen bidez jasotzen den informazioaren arabera.

6. Ebazpena eta ebazpenaren jakinarazpena

Eskaera guztiak idatziz ebatzi eta jakinaraziko zaizkio interesdunari, bi hilabeteko epean gehienez. Aipatutako epean berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsi dela ulertuko da; hala eta guztiz ere, ezespena berariaz jakinarazi beharko da. Hori guztia urtarrilaren 18ko 4/2011 Aginduaren 19. artikuluaren arabera. Laguntza onartzeko, ukatzeko edo ezesteko ebazpena arrazoitua izan beharko da, eta udalak eskatzaileari hamar eguneko epean jakinarazi beharko dio, egintza eman den egunetik aurrera zenbatuta.

7. Laguntza justifikatzea

Laguntzak justifikatzeko, eman diren kontzeptuei lotutako ordainagiri eta/edo faktura originalak aurkeztu beharko dira. Beste erakunde baten diru-laguntzaren bat jasotzen bada, berorren ebazpena ere aurkeztu beharko da.

Laguntza hauek justifikatutzat joko dira:

— Alokairuaren (modalitate guztietan), interesen eta kredituen amortizazioaren kontzeptuetan, emakidaren aldian egindako ordainagiri guztiak aurkeztu badira, bai eta bankuaren ordainagiriak (etxebizitzaren jabearen izena jasotzen dutenak) edo hartze-agiria (jabearen sinadurarekin eta NANarekin) eta erabiltzailearen adostasuna agertzen duen agiria ere.

— Etxebizitza energia, ura eta gasa, ordaindutako fakturen ziurtagiria / laburpena (erakunde hornitzaile batek emana) aurkeztu badute, gutxienez emandako diru-zenbatekoa daukana. Ziurtagiria / laburpena laguntza jaso duen pertsonaren izenean egongo da, tutoretzapeko apartamentuen mantentze-kasuetan izan ezik, horietan ontzat hartuko baitira Getxoko Udala titular moduan agertzen den ordainagiria eta bankuko laburpena, eta azpierrentamenduko kasuetan errentariaren ordainagiria ontzat emango da. Titularraren izenean emandako ordainagiria ere ontzat emango da, bai eta banku-laburpena ere, ordainketa jasotzen duena, baldin eta enpresa hornitzaileek ez badute laburpen-ziurtagiria aurkezten edo ziurtagiri horrek ez badu zehazten kontsumoak ordaindu direla. Justifikatu ezin diren gainerako kasuak banaka baloratuko dira.

— Ondoko kontzeptuei dagokienez, aurkeztutako fakturen zenbatekoa, gutxienez, emandakoaren berdina bada: «linea zuri»-ko etxetresna elektrikoak eta altzariak, moldaketak, konponketak eta/edo instalazioak eta lehen mailako beharrizanak.

— Oinarrizko beharrizanen kontzeptuan ez da justifikaziorik eskatuko.

Atal honetan aurreikusi gabe dauden kasu guztietan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko da.

Justifikazioaren epea 2024ko urtarrilaren 31n amaituko da.

Laguntza justifikatzen ez bada, laguntza itzultzeko prozesua hasiko da.

GLLen onuradunek idatziz eskatu ahal izango dute laguntza boluntarioki itzultzea (osorik edo zati batean); betiere, itzulketaren lehenengo dekretua onartu baino lehen eta laguntza itzultzeko prozedura hasi baino lehen, Diru-laguntzen Legearen Araudia onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikuluarekin bat.

eek: BAO-2023a075

8. Erreferentziazko legeria

— Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, eta berau aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legea.

— Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.

— Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

— Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurriri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legea.

— Etxebizitzaren 3/2015 Legea, ekainaren 18koa.

— Etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua.

— Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua.

— Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretua.

— Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak 2022ko otsailaren 22an emandako Agindura zuzentzen gaitu 4/2011 Dekretuak. Agindu horren bidez 2022. urterako Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzaren gehieneko zenbatekoa ezarri zen, gastu horiek estaltzeko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak adierazi ziren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko eta udal bakoitzari 2021ean dagokion aurrekontu-muga finkatu zen.

— Getxoko Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak, 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkuran onetsiak eta behin betiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (52. zenbakia, 2022ko martxoaren 16koa) argitaratuak, 19.2 eta 19.4 artikuluetan arautzen ditu zuzeneko laguntzak.

Getxon, 2022ko martxoaren 21ean.—Gizarte Zerbitzuko Koordinatzailea, Igone Blanco Fernández

eek: BAO-2023a075

I. ERANSKINA

DIRU-SARRERAK KONTUAN HARTUTA EMAN DAITEZKEEN GEHIENEKO ZENBATEKOAK

Orokorra 2023 / General 2023			
Límite ingresos anuales según tamaño de la UC			
% gehi./máx.	BUko kide kopurua / N.º miembros UC		
	1	2	3 edo + / 3 o +
	848,64	1.089,72	1.205,45
100	10.183,68	13.076,64	14.465,40
99	10.285,52	13.207,41	14.610,05
98	10.387,35	13.338,17	14.754,71
97	10.489,19	13.468,94	14.899,36
96	10.591,03	13.599,71	15.044,02
95	10.692,86	13.730,47	15.188,67
94	10.794,70	13.861,24	15.333,32
93	10.896,54	13.992,00	15.477,98
92	10.998,37	14.122,77	15.622,63
91	11.100,21	14.253,54	15.767,29
90	11.202,05	14.384,30	15.911,94
89	11.303,88	14.515,07	16.056,59
88	11.405,72	14.645,84	16.201,25
87	11.507,56	14.776,60	16.345,90
86	11.609,40	14.907,37	16.490,56
85	11.711,23	15.038,14	16.635,21
84	11.813,07	15.168,90	16.779,86
83	11.914,91	15.299,67	16.924,52
82	12.016,74	15.430,44	17.069,17
81	12.118,58	15.561,20	17.213,83
80	12.220,42	15.691,97	17.358,48
79	12.322,25	15.822,73	17.503,13
78	12.424,09	15.953,50	17.647,79
77	12.525,93	16.084,27	17.792,44
76	12.627,76	16.215,03	17.937,10
75	12.729,60	16.345,80	18.081,75
74	12.831,44	16.476,57	18.226,40
73	12.933,27	16.607,33	18.371,06
72	13.035,11	16.738,10	18.515,71
71	13.136,95	16.868,87	18.660,37
70	13.238,78	16.999,63	18.805,02
69	13.340,62	17.130,40	18.949,67
68	13.442,46	17.261,16	19.094,33
67	13.544,29	17.391,93	19.238,98
66	13.646,13	17.522,70	19.383,64

eek: BAO-2023a075

Orokorra 2023 / General 2023			
Límite ingresos anuales según tamaño de la UC			
% gehi./máx.	BUko kide kopurua / N.º miembros UC		
	1	2	3 edo + / 3 o +
65	13.747,97	17.653,46	19.528,29
64	13.849,80	17.784,23	19.672,94
63	13.951,64	17.915,00	19.817,60
62	14.053,48	18.045,76	19.962,25
61	14.155,32	18.176,53	20.106,91
60	14.257,15	18.307,30	20.251,56
59	14.358,99	18.438,06	20.396,21
58	14.460,83	18.568,83	20.540,87
57	14.562,66	18.699,60	20.685,52
56	14.664,50	18.830,36	20.830,18
55	14.766,34	18.961,13	20.974,83
54	14.868,17	19.091,89	21.119,48
53	14.970,01	19.222,66	21.264,14
52	15.071,85	19.353,43	21.408,79
51	15.173,68	19.484,19	21.553,45
50	15.275,52	19.614,96	21.698,10

Pentsiodunak 2023 / Pensionistas 2023			
Límite ingresos anuales según tamaño de la UC			
% gehi./máx.	BUko kide kopurua / n.º miembros UC		
	1	2	3 edo +/ 3 o +
	973,69	1.217,11	1.314,48
100	11.684,28	14.605,32	15.773,76
99	11.801,12	14.751,37	15.931,50
98	11.917,97	14.897,43	16.089,24
97	12.034,81	15.043,48	16.246,97
96	12.151,65	15.189,53	16.404,71
95	12.268,49	15.335,59	16.562,45
94	12.385,34	15.481,64	16.720,19
93	12.502,18	15.627,69	16.877,92
92	12.619,02	15.773,75	17.035,66
91	12.735,87	15.919,80	17.193,40
90	12.852,71	16.065,85	17.351,14
89	12.969,55	16.211,91	17.508,87
88	13.086,39	16.357,96	17.666,61
87	13.203,24	16.504,01	17.824,35
86	13.320,08	16.650,06	17.982,09
85	13.436,92	16.796,12	18.139,82

eek: BAO-2023a075

Pentsiodunak 2023 / Pensionistas 2023			
Límite ingresos anuales según tamaño de la UC			
% gehi./máx.	BUko kide kopurua / n.º miembros UC		
	1	2	3 edo +/ 3 o +
84	13.553,76	16.942,17	18.297,56
83	13.670,61	17.088,22	18.455,30
82	13.787,45	17.234,28	18.613,04
81	13.904,29	17.380,33	18.770,77
80	14.021,14	17.526,38	18.928,51
79	14.137,98	17.672,44	19.086,25
78	14.254,82	17.818,49	19.243,99
77	14.371,66	17.964,54	19.401,72
76	14.488,51	18.110,60	19.559,46
75	14.605,35	18.256,65	19.717,20
74	14.722,19	18.402,70	19.874,94
73	14.839,04	18.548,76	20.032,68
72	14.955,88	18.694,81	20.190,41
71	15.072,72	18.840,86	20.348,15
70	15.189,56	18.986,92	20.505,89
69	15.306,41	19.132,97	20.663,63
68	15.423,25	19.279,02	20.821,36
67	15.540,09	19.425,08	20.979,10
66	15.656,94	19.571,13	21.136,84
65	15.773,78	19.717,18	21.294,58
64	15.890,62	19.863,24	21.452,31
63	16.007,46	20.009,29	21.610,05
62	16.124,31	20.155,34	21.767,79
61	16.241,15	20.301,39	21.925,53
60	16.357,99	20.447,45	22.083,26
59	16.474,83	20.593,50	22.241,00
58	16.591,68	20.739,55	22.398,74
57	16.708,52	20.885,61	22.556,48
56	16.825,36	21.031,66	22.714,21
55	16.942,21	21.177,71	22.871,95
54	17.059,05	21.323,77	23.029,69
53	17.175,89	21.469,82	23.187,43
52	17.292,73	21.615,87	23.345,16
51	17.409,58	21.761,93	23.502,90
50	17.526,42	21.907,98	23.660,64

eek: BAO-2023a075

II. ERANSKINA

ONDAREAREN ARABERA EMAN BEHARREKO ZENBATEKOEN MUGA

Bizikidetza-unitate motak	Ondarea	Dagokion %
Bizikidetza-unitate orokorra	< 15.275,52	100
	> 15.275,52 < 30.551,04	75
	> 30.551,04 < 40.734,72	50
Pentsiodunen bizikidetza-unitatea	< 17.526,42	100
	> 17.526,42 < 35.052,84	75
	> 35.052,84 < 46.737,12	50

eek: BAO-2023a075

III. ERANSKINA

2023. URTERAKO ZENBATEKOAK

Kontzeptua	Kontzeptuak, banakatuta	Gastuaren gaineko muga	4/11 dekretuaren 11.2. artikuluan oinarritutako muga	
			Urteko zenbatekoa	Hileko zenbatekoa
a) Ohiko etxebizitza edo edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak, besteak beste:				
1. Etxebizitzaren alokairua	1 bizikidetza-unitate Alokairua/ partekatutako errentamendua/azpierrentamendua	Gastu errealaren %70 baino gutxiago	3.600,00	300,00
	2 bizikidetza-unitate	Gastu errealaren %80 baino gutxiago	1.800,00	150,00
	Azpierrentamendua/partekatutako errentamendua, Ostatatze-apopilotza Pentsioetako ostatua	Logela-kopuruaren arabera	3.600,00	300,00
2. Kredituen amortizazioa eta interesak	1 bizikidetza-unitate	Gastu errealaren % 70 baino gutxiago	3.600,00	300,00
3. Energia-gastuak, gasarenak edo etxean erabiltzen diren bestelako erregaienak.	1 bizikidetza-unitate		1.500,00	125,00
	2 bizikidetza-unitate		750,00	62,50
4. Uraren, zaborren, estoldaren, OHZren, etxeko aseguruaren, EITaren gastuak.	1 bizikidetza-unitate		900,00	75,00
	2 bizikidetza-unitate		450,00	37,50
5. Linea zuriko altzarien eta etxetresna elektrikoen gastuak.	Somierra Kotsoia Arropa-armairua Ikasteko mahaia Jantokiko mahaia Aulkia Sofa Konbi hozkailua Bitrozeramika Labea Ke-kanpaia Arropa-garbigailua Mikrouhin-labea	300,00 € 450,00 € 300,00 € 90,00 € 120,00 € 50,00 € 450,00 € 450,00 € 250,00 € 250,00 € 100,00 € 300,00 € 75,00 € 80,00 €	925,00	
6. Egokitzapenak, konponketak edota instalazioak egiteko gastuak			925,00	
b) Lehen mailako beharrizanetarako gastuak				
1. Oinarrizko beharrizanei lotutako gastuak		1.500,00 €	1.850,00	125,00
2. Osasunari lotutako gastuak	Hortzetako konponketak Betaurrekoak/lentillak Audiofonoak/ortopediak/ Bestelako osasun-gastuak	1.850,00 € 320,00 € 1.850,00 € 1.850,00 €		
c) Aldez aurretiko zorpetzea, aurreko ataletan aipatutako gastu-kontzepturen batean sortuak				
Aurreko ataletako eman beharreko gehienez	1 bizikidetza-unitate		3.000,00	
	2 bizikidetza-unitate		1500,00	

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Ibarrangeluko Udala

3/2023 Aurrekontuaren aldaerazpena

Ibarrangeluko Udaleko Udalbatza osoak, bi mila eta hogeita hiruko apirilak bostean ospatutako Osoko Bilkuran, 2023ko aurrekontuari 3/2023 modifikazio proposamenaren aldezko txostena eman zuen.

Ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauak, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontu egonkortasunari buruzkoaren 6. artikuluko 5.paragrafoan ezarritakoaren arabera, dokumentazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailera bialtzen da eta honek eragiketaren kontu hartzen du.

Abenduaren 12ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Entitate Lokalen Aurrekontu 15/2003 Foru Arauaren 34.3 artikuluaren arabera, Korporazioko Idazkaritzako Iragarki Oholean jarriko da, reklamazio eta aztertua izateko.

Aipatutako Foru Arauaren 17. artikuluaren arabera ahalmenduta dagozanak, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den biharamunetik hamabost egunetako epe barruan alegazioak aurkeztu ditzakete.

Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik aurkeztu gabe igaroko balitz aurrekontua behin betirako onartua ulertuko litzateke akordu berririk hartu gabe.

Ibarrangelun, 2023ko apirilaren 11n.—Alkatea, Jesús María Ziluaga Acebo

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Iurretako Udala

Alkatetzaren azaroaren 8ko 1020/22 Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaileen 21. eta 27. artikuluen zuzenketa (2022ko azaroaren 17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua), 2023an garapenerako lankidetza-proiektuetarako dirulaguntzak emateko bai eta Iurretan elikagaiak erakartzeko, Iurretan sentsibilizazio-programak egiteko eta Iurretan edo Durangaldean aldi baterako harrera-programak egiteko ere, egoera ahulean dauden herrietatik edo herrialde pobretuetatik datozen haurrak hartzeko, 2022ko ekitaldian haien bizi-kalitatea hobetzeko.

Alkateak, 2023ko apirilaren 4ko 332. zenbakidun dekretuaren bidez, erabaki hau hartu du:

Lehenengoa: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzendu egiten dira 2023an garapenerako lankidetza-proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 21. eta 27. artikuluak, bai eta Iurretan elikagaiak erakartzeko, Iurretan sentsibilizazio-programak egiteko eta Iurretan edo Durangaldean aldi baterako harrera-programak egiteko ere, egoera ahulean dauden herrietatik edo herrialde pobretuetatik datozen haurrak hartzeko, 2022ko ekitaldian haien bizi-kalitatea hobetzeko. Honela geratuko da:

21. artikulua.— *Tramitazioa eta ebazpena*

«Ebazteko organo eskuduna alkatea izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta sei hilabeteko epean gehienez

(…)»

27. artikulua.— *Diru-laguntzaren justifikazioa*

«Diru-laguntza jasotzen duten elkarte edo entitateek diru-laguntzaren xede den proiektua gauzatzeak eragindako gastu guztien justifikazioa aurkeztu beharko dute diruz lagundutako jarduera amaitutakoan, eta 2023ko ekainaren 30a baino lehen, jatorrizko fakturak edo horien fotokopia konpultsatuak aurkeztuz.

(…)»

Bigarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

Iurretan, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Iñaki Totorikaguena Sarrionandia

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Leioako Udala

Leioako jaietan (Txorierri, San Juan, Pinueta, Santimami, San Bartolome, Ondiz, Udondo eta Txopoeta) jabari publikoa okupatzeko baimenak emateko oinarri arautzaileak: azoketako atrakzioak eta postuak, janari-saltokiak eta txosnak jartzea (2023/2354J espedientea).

2023ko apirilaren 5eko Alkatetzaren 2023001411 Dekretuaren bidez, honako hau erabaki zen:

Lehenengoa: Onartzea Leioako Jaietan (Txorierri, San Juan, Pinueta, Santimami, San Bartolome, Ondiz, Udondo eta Txopoeta) Jabari Publikoa Okupatzeko Baimenak Emateko Oinarri Arautzaileak: Azoketako Atrakzioak eta Postuak, Janari-Saltokiak eta Txosnak Jartzea.

Bigarrena: Interesdunei jakinarazi behar zaie jai guztietarako eskabideak aurkezteko epea oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dela, hogeita hamar (30) egun baliodunetan.

Hirugarrena: Dagozkien zerbitzuek araudi hau Leioako Udalaren iragarki-oholean, egoitza elektronikoan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Dekretua Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuari (HAZri), Ogasun Sailari, Kultura Sailari eta Udaltzaingoari helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Leioan, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Iban Rodríguez Etxebarria

eek: BAO-2023a075

LEIOAKO JAIETAN (TXORIERRI, SAN JUAN, PINUETA, SANTIMAMI, SAN BARTOLOME, ONDIZ, UDONDO ETA TXOPOETA) JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMENAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK: AZOKETAKO ATRAKZIOAK ETA POSTUAK, JANARI-SALTOKIAK ETA TXOSNAK JARTZEA

1. Deialdiaren xedea

Baimena ematea Txorierri, San Juan, Pinueta, Santimami, San Bartolome, Ondiz, Udondo Eta Txopoeta jaietan, 2023ko ekainetik irailera Leioan, azoka-atrakzioak, azoka-postuak, janaria saltzeko postuak, txosnak eta antzeko beste instalazio batzuk jartzeko, jabari publikoa okupatzeko baimenak emanez. Era berean, indarrean dagoen araudi aplikagarriari jarraiki, baimendutako okupazioen garapenak bete beharreko baldintzak ezartzen dira.

2. Araubide juridikoa

Oinarri hauen bidez esleitzen diren okupazio-baimenak oinarri horietan ezarritakoaren arabera arautuko dira, Toki Korporazioen Ondasunen Araudiari buruzko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

Jai-esparruetan baimentzen diren instalazioak 10/2015 Lege, abenduaren 23koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jarduerena eta 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duenaren arabera egingo dira.

3. Baimenen lekua, xedea eta indarraldia

Oinarri hauek lurzoru publikoa okupatzeko baimenak ematea eta 2023an Txorierri, San Juan, Pinueta, Santimami, San Bartolome, Ondiz, Udondo Eta Txopoeta auzoan ospatuko diren jaietarako azoka-atrakzioak, azoka-postuak, janaria saltzeko postuak, txosnak eta antzeko beste instalazio batzuk instalatzeko baldintzak arautzen dituzte.

Jai bakoitzean honako talde hauetako batean sailkatzen diren elementuen multzoa islatzea aurreikusten da:

1. Helduentzako eta haurrentzako atrakzioak.
2. Azoka-etxolak.
3. Janaria saltzeko postuak.
4. Txosnak.

Hona hemen jaiegun bakoitzaren konfigurazioa eta eskaintza:

A. *Txorierri Jaiak*

Txorierri Jaiak	
Lekua	— Txorierri aparkalekua
Xedea	— Azokako etxolak — Janaria saltzeko postuak — Txosnak
Indarraldia	— Ekainaren 2-4
Muntaia	— Maiatzaren 30-31, ekainaren 1
Desmuntatzea	— Ekainaren 5-6

Baimena 3 taldetan banatutako 2 elementurentzat emango da guztira. Elementu horiek ondorengo tauletan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte jai-esparruaren kokapenean (Txorierriko aparkalekua):

eek: BAO-2023a075

Txorierri Jaiak Txorierriko Aparkalekua (59-67 zenbakia)				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 2: Azokako etxola	ELEMENTU1TX01	A. Tiro-etxola 1	— 8 x 3 m	— Azalera: 24 m²
		B. Ahateak arrantzatzeko etxola	— 4 x 2 m	— Azalera: 8 m²
Taldea 3: Janaria saltzeko postua		C. Txurregintza	— 4 x 2 m	— Azalera: 8 m²
Taldea 4: Txosna	ELEMENTU2: TX02	Txosna 1	— 8 x 4 m	— Azalera: 32 m²

B. *San Juan Jaiak*

San Juan Jaiak	
Lekua	— Atrakzioak eta azoketako gainerako instalazioak: Iturriondoko Aparkalekua — Txosnak eta kaleko salmenta postuak: Elexalde auzoa (udaletxearen eta Elexaldeko biribilgunearen artean)
Xedea	— Azokako atrakzioak — Azokako etxolak — Janaria saltzeko postuak — Txosnak
Indarraldia	— Atrakzioak eta azoketako gainerako instalazioak: ekainaren 16-25 — Txosnak: ekainaren 16-25 — Salmenta postuak: ekainaren 22-25
Muntaia	— Atrakzioak eta azoketako gainerako instalazioak: ekainaren 13-15 — Txosnak : ekainaren 13-15 — Kaleko salmenta postuak: ekainaren 19-21
Desmuntatzea	— Atrakzioak eta azoketako gainerako instalazioak: ekainaren 26-27 — Txosnak eta kaleko salmenta postuak: ekainaren 26-27

Baimena 4 taldetan banatutako 15 elementutarako emango da, eta ondorengo tauletan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte, jai-esparruaren bi kokapenetan (Iturriondoko Aparkalekua eta Elexalde auzoa):

San Juan Jaiak (1) Iturriondoko Aparkalekua				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 1: Helduentzako atrakzioa	ELEMENTUA1: SJ01	A. Talka-autoen pista edo antzekoa	— Atrakzioa: 30 x 15 m	— Azalera: 450 m².
		B. Eltzea edo antzekoa	— Atrakzioa: 9 x 9 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 81 m². — Txartel leihatila: m²
		C. Helduentzako mendiak edo antzekoak.	— Atrakzioa: diametro 16 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 201m². — Txartel leihatila: 5 m²
Taldea 1: Haurren atrakzioa (zirkularra)		D. Baby kateak edo antzekoak	— Atrakzioa: diametro 10 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 78,5 m². — Txartel leihatila: 5 m²
Taldea 1: Haurren atrakzioa (angeluzuzena)		E. Scalextric edo antzekoak	— Atrakzioa: 15 x 8 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera; 120 m². — Txartel leihatila: 5 m²
Taldea 2: Azokako etxola		F. Tiro-etxola 1	— 8 x 6 m	— Azalera: 48 m²
		G. Tiro-etxola 2	— 8 x 6 m	— Azalera: 48 m²
		H. Ahateak arrantzatzeko etxola	— 4 x 4 m	— Azalera: 16 m²
Taldea 3: Janaria saltzeko postua		I. Txurregintza	— 8 x 6 m	— Azalera: 48 m²

eek: BAO-2023a075

San Juan Jaiak (2) Elexalde Auzoa (Udaletxearen eta Elexaldeko Biribilgunearen Artean)				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 4: Txosna	ELEMENTUA2: SJ02	Txosna 1: Txosna 2 Txosna 3	— 8x6 m	— Azalera: 48 m²
		Txosna 4 Txosna 5 Txosna 6	— 6x4m	— Azalera: 24 m²

C. *Pinuetako Jaiak*

Pinuetako Jaiak	
Lekua	— Dolores Ibarruri Aparkalekua
Xedea	— Txosnak
Indarraldia	— Abuztuaren 1-6
Muntaia	— Uztailaren 29 - 31
Desmuntatzea	— Abuztuaren 7-8

Baimena talde bateko elementu 1entzat emango da, eta honako taula honetan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte:

Pinuetako Jaiak Dolores Ibarruri Aparkalekua				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Talde 4: Txosnak	ELEMENTU1: PI01	Txosna	— 8 x 4 m	— Azalera: 32 m²

D. *Santimamiko Jaiak*

Santimamiko Jaiak	
Lekua	— Santimamiko bazeliza
Xedea	— Txosnak
Indarraldia	— Abuztuaren 17-18
Muntaia	— Abuztuaren 15-16
Desmuntatzea	— Abuztuaren 19-20

Baimena talde bateko elementu batentzat emango da, eta taula honetan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte:

Santimamiko Jaiak Santimamiko Bazeliza				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Talde 4: Txosnas	ELEMENTU1: SM01	Txosna	— 8 x 4 m	— Azalera: 32 m²

eek: BAO-2023a075

E. *San Bartolome Jaiak*

San Bartolomeko Jaiak	
Lekua	Baseliza eta Kultur gunearen ingurua
Xedea	— Azokako atrakzioak — Azokako etxolak — Janaria saltzeko postuak — Txosnak
Indarraldia	Abuztuaren 24-27
Muntaia	Abuztuaren 21-23
Desmuntatzea	Abuztuaren 28-29

Baimena 3 taldetan banatutako 3 elementutarako emango da, eta horiek taula honetan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte:

San Bartolome Jaiak Baseliza eta Kultur gunearen ingurua				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 2: Azokako etxola	ELEMENTUA1: SB01	A. Tiro-etxola	— 8 x 3 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 4: Janaria saltzeko postua		B. Txurregintza	— 6 x 4 m	— Azalera: 24 m^2
San Bartolome Kalea (1zenbakia KULTURGUNEA eta 1A zenbakia ERMITA)				
Taldea 4: Txosna	ELEMENTUA2: SB02	Txosna 1	— 6 x 3 m	— Azalera: 18 m^2
	ELEMENTUA3: SB03	Txosna 2	— 6 x 4 m	— Azalera: 24 m^2

F. *Ondiz Jaiak*

Ondiz Jaiak	
Lekua	Plaza Ondiz
Xedea	— Azokako etxolak — Janaria saltzeko postuak (Txurregintza) — Txosnak
Indarraldia	— Irailaren 8, 9 eta 17.
Muntaia	— Irailaren 5-7
Desmuntatzea	— Irailaren 18-19

Baimena 3 taldetan banatutako 2 elementutarako emango da, eta horiek taula honetan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte:

Ondiz Jaiak Ondiz Plaza				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 1: Azokako etxola	ELEMENTUA1: OZ01	A. Tiro-etxola	— 8 x 3 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 2: Janaria saltzeko postua		B. Txurregintza	— 6 x 4 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 3: Txosna	ELEMENTUA2: OZ02	Txosna	— 8 x 4 m	— Azalera: 32 m^2

eek: BAO-2023a075

G. *Udondoko Jaiak*

Udondoko Jaiak	
Lekua	— Carbonera aparkalekua
Xedea	— Azokako atrakzioak — Azokako etxolak — Janaria saltzeko postuak (Txurregintza) — Txosnak
Indarraldia	— Irailaren 10, 15 eta 16
Muntaia	— Irailaren 7-9
Desmuntatzea	— Irailaren 17-18

Baimena 4 taldetan banatutako 2 elementutarako emango da, eta horiek taula honetan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte:

Udondo Jaiak Carbonera Plaza				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 1: Helduentzako atrakzzoa	ELEMENTUA1: UD01	A. Jumping edo antzekoa	— Atrakzioa: 9 x 9 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 81 m^2. — Txartel leihatila 5 m^2
Taldea 1: Atrakzioa infantil (zirkularra)		B. Ekortzaile–Wipe Out puzgarria, edo antzekoa	— Atrakzioa: 10m diametro — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 79 m^2. — Txartel leihatila 5 m^2
		C. Haur-eltzea edo antzekoa	— Atrakzioa: 6 m diametro — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 28,27 m^2. — Txartel leihatila 5 m^2
		D. Haurren karrusela edo antzekoa	— Atrakzioa: 10m diametro — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 79 m^2. — Txartel leihatila 5 m^2
Taldea 1: Haurren atrakzioa (angeluzuzena)		E. Txikipark edo antzekoa	— Atrakzioa: 13 x 9 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera: 117 m^2. — Txartel leihatila 5 m^2
		F. Ohe elastikoak edo antzekoak	— Atrakzioa: 13 x 9 m — Txartel leihatila: 2x 2,5 m	— Azalera; 117 m^2. — Txartel leihatila 5 m^2
Taldea 2: Azokako etxola		G. Tiro-etxola	— 8 x 3 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 3: Janaria saltzeko postua		H. Txurregintza	— 6 x 4 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 4: Txosna	ELEMENTUA2: UD02	Txosna	— Txosna: 13 x 5,5 m — Biltegia: 2 x 2 m	— Azalera: 71,5 m^2 — Biltegia: 4m^2

H. *Txopoetako Jaiak*

Txopoetako Jaiak	
Lekua	Langileria Kalea
Xedea	— Azokako atrakzioak — Azokako etxolak — Janaria saltzeko postuak — Txosnak

eek: BAO-2023a075

Txopoetako Jaiak	
Lekua	Langileria Kalea
Indarraldia	Irailaren 29, 30 eta urriaren 1
Muntaia	Irailaren 27-28
Desmuntatzea	Urriaren 2-3

Baimena 3 taldetan banatutako 2 elementutarako emango da, eta horiek taula honetan adierazitako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte:

Txopoetako Jaiak Langileria Kalea				
Instalazioa	Elementua	Ezaugarriak	Neurriak	
Taldea 2: Azokako etxola	ELEMENTUA1: TP01	A. Tiro-etxola	— 8 x 3 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 3: Janaria saltzeko postua		B. Txurregintza	— 6 x 4 m	— Azalera: 24 m^2
Taldea 4: Txosna	ELEMENTUA2: TP02	Txosna	— 6 x 4 m	— Azalera : 24 m^2

Jai guztietan kontuan hartu beharrekoak:

— Adierazitako neurriak elementu bakoitzerako gehieneko azalera dira, eta neurri horiek berdinak edo txikiagoak dituzten negozioek aukera dezakete, hegalkinak barne, baina inoiz ez handiagoak. Elementuek lurzoru-azalerak baino teilatu-azalera handiagoak eduki ahal izango dituzte, baldin eta haien arteko segurtasun-neurriak betetzen badira.

— Ospakizun bakoitzeko instalazioak kokatzeko jai-espazioak Udaleko Zerbitzu Teknikoek egindako Planoetan mugatuta eta zenbakituta geratzen dira, eta I. eranskin gisa erantsi dira. Plano horiek Udaleko Zerbitzu Teknikoek doitu beharko dituzte, elementuak mugatutako espazioan hobeto kokatzeko.

4. Eskabideak aurkeztea

A. *Eskabideak/erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko lekua eta epea*

Eskaera egiten duena pertsona fisikoa edo juridikoa den, honako hau hartuko da kontuan:

— Pertsona juridikoak eta haien ordezkariak behartuta daude administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera (39/2015 Legearen 14.2. artikulua); beraz, eskabidea aurkeztu beharko dute, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez. (https://udaletxean.leioa.eus/).

— Pertsona fisikoek eta profesional autonomoek eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ala ez aukeratu ahal izango dute. Azken kasu horretan, eskabideak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Leioako Udaleko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira. Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabilita aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskaera posta ziurtatu bidez Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (Elexalde Auzoa, 1, 48940 Leioa, Bizkaia) bidaltzen bada, eskatzaileak posta-bulegoan zein egunetan sartu den justifikatu beharko du, eta Leioako Udaleko Bulego Teknikoko Administrazio Zerbitzuari jakinarazi beharko dio eskaera, posta elektroniko bidez (hirigintza@leioa.eus), egun berean, eta betiere eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen. Bertan, jaso izana, datak eta komunikazioen eduki osoa jasoko dira, bai eta bidaltzailearen eta hartzailearen identifikazio fidagarria ere. Bestela, eskaera ezetsi ahal izango da.

eek: BAO-2023a075

Eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du oinarri hauek onartzea. Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia egoitza elektronikoan (https://udaletxean.leioa.eus/sta/CarpetaPublic/doEvent?APP_CODE=STA&PAGE_CODE=CATALOGO) eta Leioako Udaleko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan egongo da eskuragarri, ohiko ordutegietan.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da, eta egun honetara arte izango da:

— San Juan Jaiak: ostirala, 2023ko ekainaren 10a.

— San Bartolome, Ondiz, Udondo eta Txopoeta jaiak: astelehena, 2023ko uztailaren 11a.

Aurkezteko ordutegia hau izango da: hasierako eguneko 08: 30etik aurkezteko azken eguneko 14:00etara.

Eskabideak epe horietatik kanpo aurkeztuz gero, ezetsi egingo dira.

B. *Pertsona bakoitzeko gehienezko eskaera-kopurua*

— Pertsona bakoitzak eskaera bakarra egin ahal izango du elementu bakoitzeko.

— Pertsona bakoitzak, gehienez ere, jai bakoitzeko bi elementutan parte hartu ahal izango du.

C. *Eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea*

Esleipen-prozesuan parte hartu nahi dutenek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Edozein eskaeratarako aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Parte hartzeko eskabide bat, II. eranskineko ereduaren araberakoa. Eskabidean argi eta garbi adieraziko da:

— Zer instalazio-motatarako eskatzen den espazio publikoa (atrakzioa, azoka-etxola, janaria saltzeko postua, saltoki ibiltaria edo txosna).

— Elementua kodea (adib.: Ondiz, OZ01, OZ02, etab.).

— Instalatu nahi den elementuaren neurriak.

2. Erantzukizunpeko adierazpena sinatuta (III. eranskina. Instalazioaren Erantzukizunpeko Adierazpena).

3. Aseguru-etxearen edo aseguru-artekaritzaren ziurtagiria, erantzukizun zibilaren estaldura egiaztatzen duena, eta, hala badagokio, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egiteko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan ezarritako gutxieneko eduki eta kapital aseguratuarekin, V. eranskineko ereduaren arabera (asegurua kontratatu izana egiaztatzen duen ziurtagiria).

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango dokumentu horiek berriro aurkeztea, baldin eta noiz eta zein bulegotan entregatu ziren adierazten bada, dagokien prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira eta agiriok ez badira aldatu.

Leioako Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden pertsona interesdunen datuak egiaztatuko eta kontsultatuko ditu, bai eta baimenak emateko administrazio-izapideak egiteko eskatzen den beste edozein datu ere, horretarako formularioetan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan (pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da; izan ere, artikulu horretan aitortzen da herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak eta gainerako legeria ez aurkezteko. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesdunak [edo haren ordezkariak] ez

eek: BAO-2023a075

badu horien erabileraren aurka egiten; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, administrazioek laguntzeko betebeharra dute, 40/2015 Legearen 155. artikuluak datu-trukearen inguruan adierazten duen bezala, eta administrazioen esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

Ofizioz, honako baldintza/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedienteari gehituko zaizkio, interesdunak berariaz kontrakoa adierazten ez badu:

— Pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa

— Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko ordainketan egunean egotearen justifikazioa.

Deskribatutako dokumentazioaz gain, instalazio motaren arabera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira

b) Instalazio-taldearen arabera aurkeztu beharreko dokumentazioa

i. Azoketako atrakzioak, mugimendudunak eta puzgarriak

Behin-behineko instalazioak elementu mekaniko zabalgarriak (hala nola karruselak, noriak, errusiar mendiak edo antzekoak) dituzten feria-atrakzioak direnean, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a. Gutxienez atrakzioaren deskribapenari, muntatzeko, mantentzeko, kontserbatzeko eta erabiltzeko jarraibideei dagozkien segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazio teknikoa.

b. Feria eta jolas-parkeetarako makineria eta egiturei buruzko UNE-EN 13814:2006 arauarekin edo arau hori ordezten duen araudiarekin bat etorriz, pertsona tekniko tituludun eskatzaileak edo ikuskapen-erakunde egiaztatuak egindako atrakzioaren urteko berrikuspenaren ziurtagiria.

c. Erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioaren egiaztagiria, martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuari edo hori ordezten duen araudiari jarraituz.

d. Aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina.

e. Muntaketaren segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiria, eskumena duen teknikari tituludunak edo egiaztatutako ikuskapen-erakundeak egina.

Muntaiaren segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiria aurkeztearen baldintzapean emango da baimena, eta ezin izango da atrakzioa erabili hura aurkeztu arte.

Aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina eta atrakzioen instalazioen muntaketaren amaiera-ziurtagiria jaiegun bakoitza hasi aurreko 9: 00ak baino lehen aurkeztu beharko dira. Dokumentazio hori baimena eman duen udal-organoari bidali beharko zaio ordu hori baino lehen. Udal Zerbitzu Teknikoek instalazioak ikuskatuko dituzte dokumentazioa entregatu ondoren, ez lehenago.

Atrakzio horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. Edozein eraikinetatik 3 metroko edo gehiagoko distantziara egon beharko dute, industria-erabilerakoak barne, eta hori murriztu ahal izango da indarrean dagoen Eraikuntzaren Kode Teknikoan (Suteen aurkako Segurtasunerako Oinarrizko Dokumentua, 2, CTE DB-SI 2) jasotako kasuen arabera.

b. Gutxienez 21A-113B eraginkortasuneko itzalgailu bat instalatu beharko da, eta ekipamendu elektrikoa erabiltzen bada, CO2zko itzalgailu bat, berrikuspenetan eguneratuta eta erabiltzeko oztoporik gabe.

eek: BAO-2023a075

Behin-behineko instalazioak Puzgarriak direnean, gainera, aurreikusitako erabilerarako gaitasunaren homologazio-ziurtagiria aurkeztuko da. Puzgarriak jartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a. Lege bidez ezarritako segurtasun-baldintza guztiak osorik beteko dituzte, UNE 14960: 2014 Araua barne: Joko puzgarriko ekipoak: segurtasun-baldintzak eta entsegu-metodoak. Egiaztagiria aurkeztuko da.

b. Indarrean dauden segurtasun-neurriak betez instalatu beharko dira, sendotasun- eta egonkortasun-baldintza egokiekin, eta zoruari tinko lotuta egon beharko dute. Segurtasun-perimetroak 1 metro-koa izan behar du gutxienez, eta instalazioa dagoen lurrak laua eta irmoa izan behar du.

c. Motorrak, turbinak eta instalazioaren berezko beste elementu batzuk ezin izango dira haurrentzat irisgarriak izan, eta jolas gunetik urrun egon behar dute.

d. Segurtasun-arrazoiak direla eta, ezin izango dira ez manipulatu ez erabili argiteria publikoko instalazioetako elementuak, horietatik kanpoko elementuen finkatze-, eroanbide- edo euskarri-puntu gisa.

e. Ageriko leku batean ikusgai: baimena, erabilera-arauak, edukiera barruan (gehieneko karga) eta gutxieneko eta gehieneko erabilera-adina.

f. Jarduera uneoro kontrolatu behar du arduradun heldu batek, instalazioaren segurtasuna eta haurrek behar bezala erabiltzen dutela egiazta dezan, eta kanpoan ezin izango da puzgarria erabili eguraldi txarra dagoenean (euria, haizea…), eta atrakzioa berehala gelditu beharko da.

g. Instalazioa aldi berean erabiltzen ari diren haurren adinak antzekoak izan behar dute, eta, beraz, txandakatze-sistemak ezarri behar dira adin-tarte bakoitzaren arabera.

h. Gutxienez 21A-113B eraginkortasuneko su-itzalgailu bat jarri beharko da, eta ekipamendu elektrikoa erabiltzen bada, berriz, CO2-ko su-itzalgailu bat, eguneratuta eta erabiltzeko oztoporik gabe.

Nolanahi ere, egitura edo instalazio horiek erabiltzea edo desmuntatzea beharrezkoa den kasuetarako, antolatzailea aurkitzeko harremanetarako telefonoa adierazi beharko da, alerta meteorologikoaren kasuetan.

ii. Beste instalazio batzuk (kasetak).

Kontzeptu horren barruan sartzen dira azoketako atrakzioak instalatzea, jendea barrura sartzen ez bada; era guztietako tiroen etxolak, txurro-dendak, tonbolak, makina automatikoen esparruak eta antzekoak.

Muntaiaren amaiera-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, muntatzaileak sinatuta, martxan jarri aurretik.

iii. Txurro-dendak, txosnak eta janaria saltzen duten beste establezimendu batzuk.

Sinatuta aurkeztuko da IV. Eranskina. Higiene- eta Osasun-Baldintzak Betetzeko Konpromisoa.

iv. Kaleko salmenta postuak.

Instalazio mota guztietarako dokumentazio generikoaz gain, ez da bestelako dokumentaziorik aurkeztu behar.

D. *Osatu gabe dauden edo akatsak dituzten eskabideak*

Aurkezturiko eskaera edo erantsitako dokumentazioa osatu gabe egonez gero edo zuzentzeko moduko bestelako akatsik edukiz gero, hori gehienez 10 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; halaber, esango zaio zuzendu ezean eskaeran atzera egin duela ondorioztatuko dela.

eek: BAO-2023a075

5. Baimena ematea

Eskainitako elementuekiko eskabide gehiago egonez gero, egoera hori Zozketa bidez ebatziko da. Zozketa hori ekitaldi publikoan egingo da, eskaerak egin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenen artean.

Eskainitako elementuak baino eskaera gutxiago edo gehiago badaude, Zuzeneko Esleipena egingo da.

Izena emateko epea eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea amaituta, dagokion ebazpena emango da. Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da, eta Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaie onartutako eta baztertutako eskatzaileei.

6. Esleipendunen betebehar ekonomikoak

A. *Bermeak*

Behin-behineko bermea: ez.

Behin betiko bermea: elementuen esleipendunek, instalazioa egin aurretik, behin betiko bermea jarri beharko dute Udal Diruzaintzan. Bermea honako hau izango da:

— Azokako atrakzioak: 400 euro/atrakzio.

— Azoka-etxolak: 150 euro/etxola.

— Janari-saltokiak: 150 euro/janari-saltokiko postu bakoitzeko.

— Txosnak: 150 euro/txosna.

Behin betiko bermeak erantzukizuna izango du egiten diren arau-hausteengatik ezar litezkeen zehapenengatik, bai eta jabari publikoko ondasunetan sor litezkeen narriadurengatik ere.

Behin betiko bermea jaiak amaitzean itzuliko zaie esleipendunei, Udalak bere betebeharrak behar bezala betetzen dituela eta kalterik ez dagoela egiaztatu ondoren.

Baimenari uko egiten dioten edo baimendutako jarduera egiten ez duten esleipendunei ere konfiskatu egingo zaie sartutako behin betiko bermea. Interesdunak ezin izango du hurrengo bi urteetan udalerrian deitzen diren prozesuetan parte hartu.

B. *Tasak: Azoka-atrakzioak, azoka-etxolak, janaria saltzeko postuak, txosnak*

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera azoketako atrakzioak eta etxolak, janariak saltzeko postuak eta txosnak jartzeko lagapen honetan aplikatu beharreko tasak Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen 07. ordenantza fiskalaren N Epigrafean jasotakoak dira.

Tokiko erabilera publikoko lurretan kokatutako azoketako atrakzioak eta postuak, janaria saltzeko postuak eta txosnak instalatzen diren egun bakoitzeko, tasak honako hauek izango dira:

— Eguneko okupazioaren lehen 2 m^2-etarako: 3,00 euro.

— Egunean, gehiegizko okupazioko m^2 bakoitzeko edo frakzio bakoitzeko: 0,23 euro.

Instalazio guztietan, okupazioa hasi aurretik ordaindu beharko dira tasak, honako bide hauetakoren bat erabiliz:

1. Finantza-erakunde hauetako edozein banku-bulegotan: Kutxabank, Laboral Kutxa, Santander, Caixabank, BBVA, Banco Sabadell eta Caja Rural de Navarra.
2. Udalaren eta Gaztelubideko bulegoaren bulegoetan, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez, jendaurreko ordutegiaren barruan (8:30-14:00).
3. Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen sistemaren bidez; Udalaren webgunean eskura daiteke: www.leioa.net

eek: BAO-2023a075

Baimena lortu eta dagokion tasa edo kanona ordaindu dutenek ez dute hura itzultzeko eskubiderik izango, nahiz eta baimendutako lanpostua ez erabili edo lanpostua uztera behar bezala justifikatuta behartu.

7. Baimenak ematea

Baimenak baimendutako pertsonei emango zaizkie, Leioako Udalaren Bulego Teknikoan (Elexalde auzoa z/g), deialdi bakoitzerako interesdunei jakinarazten zaien egunean eta egunean.

8. Baldintza teknikoak

A. *Data eta ordutegiak*

Atrakzioak irekitzeko eta ixteko ordutegiak, bai eta musika-aparatuak konektatzekoak ere, dagokion udal-ebazpenaren edo -jakinarazpenaren bidez ezarriko dira. Ebazpen edo jakinarazpen horren edukia interesdunei helaraziko zaie, baina taula honen arabera arautuko dira:

Txorierriko Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Ekainaren 2a, ostirala	1:00	4:00	5:00
Ekainaren 3a, larunbata	1:00	4:00	5:00
Ekainaren 4a, igandea	23:30	23:00	24:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da

San Juan Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Ekainaren 16a, ostirala	1:00	5:00	5:00
Ekainaren 17a, larunbata	02:00	5:00	5:00
Ekainaren 18a, igandea	23:30	23:00	23:00
Ekainaren 19a, astelehena	23:30	—	—
Ekainaren 20a, asterartea	23:30	—	—
Ekainaren 21a, asteazkena	23:30 (Herri-eguna)	—	—
Ekainaren 22a, osteguna	02:00	5:00	5:00
Ekainaren 23a, ostirala	03:00	5:00	5:00
Ekainaren 24a, larunbata	03:00	5:00	5:00
Ekainaren 25a, igandea	23:30	23:00	23:00
Ekainaren 26a, astelehena	23:30 (Herri-eguna)	—	—

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da

Pinuetako Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Abuztuaren 1a, asterartea	—	4:00	5:00

eek: BAO-2023a075

Pinuetako Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Abuztuaren 2a, asteazkena	—	4:00	5:00
Abuztuaren 3a, osteguna	—	23:00	24:00
Abuztuaren 4a, ostirala	—	4:00	5:00
Abuztuaren 5a, larunbata	—	4:00	5:00
Abuztuaren 6a, igandea	—	23:00	24:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da.

Santimamiko Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Abuztuaren 17a, osteguna	—	23:00	24:00
Abuztuaren 18a, ostirala	—	4:00	5:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da.

San Bartolomeko Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Abuztuaren 24a, osteguna	23:30	23:00	24:00
Abuztuaren 25a, ostirala	1:00	4:00	5:00
Abuztuaren 26a, larunbata	1:00	4:00	5:00
Abuztuaren 27a, igandea	23:30	23:00	24:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da.

Ondizko Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Irailaren 8a, ostirala	1:00	4:00	5:00
Irailaren 9a, larunbata	1:00	4:00	5:00
Irailaren 17a, igandea	23:30	23:00	24:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da.

Udondoko Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Irailaren 10a, igandea	23:30	23:00	24:00
Irailaren 15a, ostirala	1:00	4:00	5:00
Irailaren 16a, larunbata	1:00	4:00	5:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da.

eek: BAO-2023a075

Txopoetako Jaiak			
Jai-Egunak	Atrakzioak…	Txosnak	
		Musika Etetea	Barra Ixtea
Irailaren 29a, igandea	1:00	4:00	5:00
Irailaren 30a, ostirala	24:30	23:00	24:00
Urriaren 1a, larunbata	23:00	23:00	24:00

* Ordutegi horiek betetzen ez badira, zehapen-prozedura ireki ahal izango da.

B. *Tiketak eta bonuak saltzeko gehieneko prezioak*

Helduen atrakzioak: 2,5 euro/bidaia.

Haurrentzako atrakzioak: 2,5 euro/bidaia.

1. bonoa: 10 euro/5 bidaiak.

1. talka-autoen bonoa: 6 euro/3 bidaiak.

2. talka-autoen bonoa: 10 euro/6 bidaiak.

Aparatu bereziak: 3 euro/bidaia.

Herri-eguna (k): 1,5euro/bidaia.

C. *Bidaiaren gutxieneko iraupena*

Azoka-egun guztietan: 2 minutu (ohe elastikoetan izan ezik, halakorik balego, horietan gutxieneko iraupena 3 minutukoa izango baita).

D. *Prezioak eta denborak, musika eta erreklamazio-orriak argitaratzea*

Nahitaezkoa izango da mugimendu-aparatuen leihatila guztietan erakustea, euskaraz eta gaztelaniaz, eta jendaurrean ondo ikusteko moduan, gehieneko prezioak, bidaia bakoitzaren edo atrakzioaren erabileraren gutxieneko iraupen-denborak, baimenaren titularraren nortasuna eta erabiltzaileen eskura erreklamazio-orriak daudela.

Gainerako negozioetan (txurro-dendan eta antzekoetan) salneurrien zerrenda azalduko da, euskaraz eta gaztelaniaz, negozioetan salgai dauden salgaiekin, jendearen aurrean ondo ikusteko moduan, baimenaren titularraren identitatearekin eta erabiltzaileen eskura erreklamazio-orriak egotearekin batera.

Atrakzio, etxola eta txurro-dendetako musikak, funtsean, herrikoia eta elebiduna izan beharko du (euskara eta gaztelania, gutxienez %50ean), eta gainerako aparatuetakoa girokoa izango da, eta lehen aipatutako baldintza berberak bermatu beharko dira.

E. *Energia elektrikoaren hornidura eta araudi elektrikoa*

Jai-esparruan kokatutako atrakzioetarako eta postuetarako energia elektrikoaren hornidura, baimendutako pertsona bakoitzaren kontura izango da.

Instalazio guztiek Behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onartzen duen abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuan ezarritako arauak beteko dituzte, eta instalazio bakoitzaren titularrak izango dira ez-betetzeak eragin diezazkiekeen kalte-galeren erantzuleak

F. *Segurtasun-baldintzak*

Debekatuta dago atrakziorik instalatzea, baldin eta atrakzio horien herrestatze-lantza ezin bada instalazioaren gainean desmuntatu edo tolestu, atrakzioen arteko pasabideak libre utziz.

Jolas guztiek instalazioaren denboraldi guztian araubidezko su-itzalgailuak izango dituzte aztertuak eta arauz ikus daitezkeen tokietan. Irisgarriak izango dira larrialdiaren kasuan.

Beren ezaugarriengatik arriskuaren sentipena, altuera, biraketa, abiadura eta antzekoak dituzten atrakzio guztiak nahitaez segurtasun uhalak, itxitura zentralizatuak,

eek: BAO-2023a075

arnesak edo edozein elementu homologatu izango dituzte, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

Elementu horiek guztiak, kasu bakoitzean, ezinbestekoak izango dira atrakzioak martxan jartzeko eta funtzionatzeko, eta udal-teknikariek eta -arduradunek ikuskapena eska diezaiekete titularrei, bai eta ikuskapen ofizialaren eguna ere, baimendutako aldiak irauten duen edozein une eta egunetan, eta automatikoki itxi ahal izango da nahitaezko segurtasun-elementuren bat ez dabilela atzematen den atrakzioa.

G. *Jai-esparrua garbitzea*

Baimendutako pertsonak higiene eta apaindura egoera ezin hobean izan beharko ditu instalazio guztiak.

Instalazio bakoitzak garbitasun- edo txukuntasun-itxura ona izan beharko du, bai eta moraltasunari eta ordenari eutsi ere, eta Udal Zerbitzuek egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahalko dituzte, baita edozein eragozpen saihesteko ematen zaizkion aginduak bete ere.

H. *Soinu maila*

Azokako atrakzioetako bozgorailuek eta musika-instalazioek sortutako soinu-mailak ez du, inoiz, 73 dBA gaindituko egunean zehar eta 63 dBA gauez, 2 metroko distantziara neurtuta.

Bozgorailuak eta bafleak dituzten negozio eta atrakzio guztiek beren negozioen barrurantz bideratuko dituzte, salbuespenik gabe, eta hasi aurretik kontrolatuko dute ez dituela bere soinuaz ondoko negozioak inbaditzen.

Baimendutako dezibelioak baino zarata handiagoa eragin dezaketen mugimendu-atrakzio guztiak isilgailuen bidez edo atrakzio horiei baimendutako zarata-maila eta -kontrola bermatzen duen beste edozein sistema homologatuaren bidez moteldu beharko dira, ezinbestean, batez ere mugimendu-aparatuen sirenak eta bozinak.

2023ko maiatzaren 27an eta 28an, gaueko 23:00etatik aurrera, erabat debekatuta dago azoka-espazio osoan bozgorailuak, sirenak eta abar zalapartaka erabiltzea.

Baldintza hori ez betetzeak bozgorailua erabiltzea debekatzea ekarriko du.

Bozgorailua erabiltzeko debekua betetzen ez bada, lanpostua utzi beharko da.

Instalatutako bozgorailuen bolumena zuhurtziaz erregulatu beharko da uneoro, Udaltzaingoak zentzu horretan duen guztiari men eginez, eta ikuskizunen batek edo beste arrazoiren batek hala eskatzen duenean, soinua erabat eten beharko da.

I. *Muntatzeko/desmuntatzeko datak eta ordutegiak*

Epe hori amaitzen denean, ezin izango da elementurik geratu adierazitako lekuan.

Atrakzioen eta instalazioen muntaia muntaia egiteko adierazitako azken eguneko 09:00ak baino lehen amaitu beharko da, eta une horretatik aurrera funtzionatzeko moduan geratu beharko da. Une horretatik aurrera debekatuta egongo da edozein negoziotan sartzea, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

Une horretatik aurrera, edozein negoziotako barrutian sartzea debekatuta egongo da, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

J. *Betebeharrak eta debekuak*

a. Baimendutako jarduera gauzatzea

Esleitzen den baimenak jarduera Udalak adierazitako lurzatian garatzera behartzen du pertsona baimendua, eta jarduera ezin izango da aldatu, ezta espazio edo azalera handiagorik okupatu ere, txartel -leihatilak eta bestelako elementu osagarriak barne, eta planoan ezarritako kokapenak errespetatu beharko dira.

b. Baimendutako espazioa lagatzeko, azpi alokatzeko edo saltzeko debekua

Baimena eta dagokion espazioa ezin dira azpierrentan eman, zatitu edo beste pertsona batzuei laga edozein tituluren bidez.

eek: BAO-2023a075

c. Udal-teknikarien eta udaltzaingoaren jarraibideak errespetatzea eta betetzea

Baimendutako pertsonak beti bete eta errespetatu beharko ditu udal-teknikariek, Udaltzaingoak eta Udalak kontratatutako langileek emandako jarraibideak.

Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du Dekretu honetan jasotako baldintzak betetzen direla, dagokion ikuskapenaren bidez. Horretarako, udal-zerbitzuek eskatutako dokumentazio guztia eman beharko da.

d. Kalteen erantzukizuna

Postuen titularrek izango dute ondasun publiko zein pribatuetan nahiz pertsonengan lanpostuen ustiapenak eragin edo sorraraz ditzakeen istripuen, kalteen eta galeren erantzukizuna.

e. Jai-gunean azpiegiturak instalatzea

Azokako atrakzioak eta postuak baimendutako pertsonak instalatuko ditu, eta aplikatzekoa den araudi sektorialak eskatzen dituen baimenak eta agiriak izan beharko ditu.

Eskabidean adierazitakoez bestelako lanposturik ezin izango da instalatu, ez eta bestelako jarduerarik ere. Era berean, debekatuta dago oinarri hauetan eskatu eta ezarritakoez bestelako elementuren bat kokatzea eta instalatzea.

Atrakzioek eta azoketako postuek behar bezala egindako lur-hargunea izan beharko dute. Pikak berdegunean egon beharko du, eta ezin izango da azoka-esparruko asfaltoan egin.

Debekatuta dago atrakzioak muntatzea edo desmuntatzea azokaren funtzionamendu- eta irekiera-ordutegian. Udaltzaingoak kontrolatuko du puntu hori betetzen dela.

Kasetak eta postuak muntatzeko, negozioen aurrealdean ezarritako muga errespetatuko da, eta muga hori ezin izango da gainditu ez mostradoreak, sartzeko arrapalak, altzariak, kartelak, parrillak eta abar proiektatuta.

Markatutako eta ezarritako urratsak errespetatuko dira, bereziki arriskuko negozioen artean, hala nola txurro-dendetan.

f. Karabanak, kamioiak eta antzekoak aparkatzea

Karabanak, kamioiak, ibilgailuak eta etxebizitzak jaigunetik kanpo aparkatuko dira. Ibilgailu partikularrak ezin izango dira karabana-gunean egon, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Eskatzaile bakoitzeko ibilgailu bat baino ez da aparkatuko.

Leioako Udalak behar diren kudeaketak egingo ditu jai-esparrutik ahalik eta hurbilen kokatu ahal izateko.

g. Jaiek iraun bitartean egoteko betebeharra

Behin azokan jarri eta muntatu ondoren, ezin izango da azoka utzi jaiak amaitu arte, Udalak berariaz eta idatziz horretarako baimena eman ezean. Bete ezean, zehapena ezarriko zaio.

Ez-betetze horrek, nolanahi ere, hurrengo bi urteetan udalerrian ospatzen diren jaietan instalatzeko baimena ukatzea ekarriko du.

h. Animaliak saltzeko eta zozketatzeko debekua

Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/93 Legea aplikatuz, erabat debekatuta dago bizirik dauden mota guztietako animaliak saltzea eta zozketatzea jai-esparruan.

i. Tabakoa, edari alkoholdunak eta pornografia saltzeko eta txanpon-makinak instalatzeko debekua

Debekatuta dago:

— Tabakoaren eta alkoholaren salmenta, bidalketa, oparia edo saria.

— Baimendutako negoziotik kanpoko edozein motatako makina automatikoak instalatzea.

eek: BAO-2023a075

— Txanpon-makinak instalatzea.

— Kaleko salmenta mota guztiak.

— Atrakzio pornografikoak iragartzea eta erakustea eta izaera bereko objektuak saltzea.

Bete ezean, Udaltzaingoak akta bat egingo du, eta berehala instalazioa ixteko aginduko da.

Ez-betetze horrek, nolanahi ere, hurrengo bi urteetan ospatzen diren jaietan instalatzeko baimena ukatzea ekarriko du.

j. Zergen, gizarte-segurantzaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak

Baimena ematen zaion pertsonak lan-arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bere agindupean lan egiten duten pertsonei dagokienez. Langile atzerritarren kasuan, bizileku- eta lan-baimenak ere eduki beharko ditu, eta baimendutako pertsonaren senitartekoak diren langileak egonez gero, langile horiek alta emanda egon beharko dute Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean.

k. Garbiketa eta hondakinen kudeaketa

Baimendutako pertsona guztiek osasungarritasun-, garbiketa- eta apaindura publikoko egoera ezin hobean eduki beharko dituzte beren kasetak eta instalazioak.

Lanpostu bakoitzaren titularraren erantzukizuna izango da ondoko lurra behar bezala garbitzea, mota guztietako hondakinak bilduz.

Espazio okupatu guztiak garbitu eta sortutako hondakinak bilduko dira programatutako eta baimendutako jarduerekin bat ez datorren ordutegian.

9. Baldintza higieniko-sanitarioak

Txurro-dendek, txosnek eta janaria saltzeko gainerako postuek beren gain hartu beharko dute higiene- eta osasun-arau hauek betetzea, eta V. eranskina (Baldintza Higieniko Sanitarioak Betetzeko Konpromisoa) erantsi beharko dute.

10. Diziplina-araubidea

Oinarri hauek ez betetzeagatik emandako baimenak errebokatzeko prozedurari kalterik egin gabe, indarrean dagoen bitartean egin litezkeen arau-hausteak araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera zehatuko dira, bereziki Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan: Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea; Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua; Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea; Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 2010eko otsailaren 26ko 10/15 Legea; Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Errege Dekretua;

11. Ondasun publikoetan izandako kalteen erantzukizuna

Arau-hauste bat egiteagatik jartzen diren zehapenek ez dute salbuesten arau-hauste horrek eragindako kalteen zenbatekoa ordaintzeko betebeharretik. Kalte horiengatik ordaindu beharreko zenbatekoa udalaren balorazio teknikoaren pean jarriko da, zuzenean edo Leioako Udalaren enpresa kontratisten bitartez.

Behin betiko bermea konponketa ordaintzeko erabiliko da.

eek: BAO-2023a075

12. I. eranskina: Planoak

A. *1. Planoa: Toxierriko Jaiak: Txorierriko aparkalekua*

eek: BAO-2023a075

☐	Jasotako zenbatekoa emakidan adierazitako helbur eta kontzeptuei zuzendurikoa izan dela. Que el importe recibido ha sido destinado a los fines y conceptos señalados en la concesión.
☐	EZ DUELA bestelako dirulaguntzarik JASO proiektua garatzeko Que NO ha recibido ninguna otra subvención para desarrollar el proyecto subvencionado
☐	Diruz lagundutako proiektua garatzeko diru-laguntza publiko edo pribatu hauexek jaso dituela: Que ha recibido las siguientes ayudas públicas o privadas para desarrollar el proyecto subvencionado:

Entitatea Entidad	Jasotako zenbatekoa Importe recibido
	€
	€
	€

Portugalete, ...

Entitateko ordezkari legezkoa
Representante legal de la entidad

Entitatearen zigilua
Sello de la entidad

eek: BAO-2023a075

PROIEKTUAREN OROIT-IDAZKI AZALPENEZKOA
MEMORIA EXPLICATIVA DEL PROYECTO

JARRAIBIDEAK. Honako hauek zehatz-mehatz deskribatu behar dira: burututako jarduera edo jarduerak, egin diren datak eta lekuak, lortutako emaitzen ebaluazioa ezarritako adierazleen arabera, jardueraren parte-hartzaile edo onuradun kopurua sexuaren eta adinaren arabera, eta abar.

Behar beste orrialde erabiliko dira.

INSTRUCCIONES. Describan detalladamente la actividad o actividades llevadas a cabo, fechas y lugar de realización, evaluación de los resultados obtenidos según indicadores establecidos, incluyendo datos desagregados por sexo y edad del número de personas participantes o beneficiarias de la actividad, etc.

Se utilizarán tantas hojas como sean necesarias.

eek: BAO-2023a075

JARDUERAREN DATU EKONOMIKOAK / DATOS ECONÓMICOS DE LA ACTIVIDAD

Behin betiko diru sarrerak / Ingresos definitivos	
Emandako dirulaguntza Subvención concedida	Kopurua Cuantía
Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren saila Departamento de Servicios Sociales e Igualdad	€
Beste dirulaguntza batzuk Otras subvenciones	Kopurua Cuantía
	€
	€
	€
Beste diru-sarrera batzuk Otros ingresos	Kopurua Cuantía
Entitatearen ekarria Aportación de la entidad	€
	€
Diru-sarrerak guztira Total de ingresos	€

Proiektuaren gastuak / Gastos del proyecto		
Entitatearen mantenuaren gastuak. Egoitza Portugaleten duten entitateetarako, gehienez jardueren edo proiektuaren aurrekontuaren %10 eta gehienez 600 euro. Gastos generales y de mantenimiento de la entidad en un porcentaje máximo del 10% hasta un importe total de 600 euros. No podrán acogerse a este beneficio las entidades que no tengan sede o delegación en Portugalete.	Kopurua / Cuantía	Esleitutako kopurua Cuantía imputada
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
Langileak (Gizarte Segurantzaren nominak eta gastuak) Personal (nóminas y gastos de seguridad social)	Kopurua / Cuantía	Esleitutako kopurua Cuantía imputada
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
Beste gastu batzuk (zehaztu) Otros gastos (detallar)	Kopurua / Cuantía	Esleitutako kopurua Cuantía imputada
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€
	€	€

eek: BAO-2023a075

Beste gastu batzuk (zehaztu) Otros gastos (detallar)	Kopurua / Cuantía	Esleitutako kopurua Cuantía imputada
	€	€
	€	€
	€	€
Gastuak GUZTIRA / TOTAL de gastos	€	€

GASTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE GASTOS

Diruz lagundutako proiektua egitearen ondorioz sortutako gastu guztien zerrenda sailkapenduna.

Relación clasificada de todos los gastos devengados como consecuencia de la ejecución del proyecto subvencionado.

Zk. N.º	Hornitzailea Empresa	IFK CIF	Zenbakia Número	Data Fecha	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa Importe
1						€
2						€
3						€
4						€
5						€
6						€
7						€
8						€
9						€
10						€
11						€
12						€
13						€
14						€
15						€

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaleteko Udala

Onetsi familia ugariak diren Portugaleteko herritarrei emateko dirulaguntzen oinarri-arauak.

Portugaleteko Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuran honako arau hauek onetsi ditu, besteak beste:

Portugaleten, 2023ko martxoaren 31n.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

eek: BAO-2023a075

FAMILIA UGARIAK DIREN PORTUGALETEKO HERRITARREI EMATEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI-ARAUAK

1. artikulua— *Dirulaguntzen xedea eta definizioa*

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, oinarri hauen xedea da gehienez 200 euroko zenbateko dirulaguntzen emakida arautzea.

2. artikulua.— *Onuradunak*

Portugaleteko udalerrian erroldatutako pertsonek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, baldin eta familia ugaria osatzen badute eta hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua.— *Onuradunen eskakizunak*

1. Portugaleteko herritarra izatea, udal erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna izanik, dirulaguntza hauetarako eskabidea aurkezteko unean.

2. Familia ugarien titulu ofizialaren kide titularra izatea, eskabidearen datan behar bezala eguneratua.

3. Familia-sarrera garbien kontzeptuan, edozein kontzepturengatik, 63.095,04 €-ko kopurua ez gainditzea, hau da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/08 Legean (2023ko martxoaren 29tik aurrerako ondorioekin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak aurrekoa indargabetzen du) eta hori garatzen duten dekretu eta zirkularrek pentsionista motako bizikidetza-unitate batek jaso dezakeen gehieneko zenbatekoaren bikoitza ez gainditzea.

4. Ezin dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarren batean dauden pertsonak.

5. Udal-zergak eta tasak egunean ez izatea.

4. artikulua.— *Dirulaguntzen zenbatekoa*

Oinarri-arauak beteten dituzten udal laguntza hauek gehienez 200 euroko zenbatekoa izango dute.

Edonola ere, dirulaguntzak aurrekontuaren dirusailaren menpe egongo dira beti eta eskatzen den kopurua urteko aurrekontuaren baino handiagoa bada, hauxe egingo da:

— Lehenengo eta behin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko zenbatekoa gutxitzea; gutxitze hori gehienez diruz laguntzen diren gastu guztien %30ekoa izango da;

— Hala ere aurrekontua gainditzen bada, lehentasunez emango zaizkie ezarritako irizpideen arabera dirusarrera gutxien duten familia-unitateei.

5. artikulua.— *Emakidaren prozedura*

Dirulaguntza zuzenean ematen da, oinarri-arau hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan eta lege horren 28. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiak daudelako.

Emakidaren prozeduraren arrazoiak:

Laguntza ekonomiko horiek Portugaleteko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, gizarteratzea sustatzen duten laguntza ekonomikoen ildo estrategikoan, eta mendekotasuna, kalteberatasuna edo babesgabetasun- eta bazterkeria-arriskua duten pertsonen eta kolektiboen autonomia, babesa eta gizarteratzea bultzatzeko helburu estrategikoa dutelarik.

eek: BAO-2023a075

6. artikulua.— *Eskabideen aurkezpena eta epeak*

Eskabideak Portugaleteko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan (San Roke plaza, astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era). Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri-arau hauen deialdian ezarriko da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

Informazioa eta eskabide-orria arestian aipatutako udal bulegoetan egongo dira. Halaber, Udal webgunean (www. portugalete.org).

7. artikulua.— *Aurkeztu beharreko agiriak*

Eskatzaileak honako agiriak aurkeztuko ditu:

a) I. Eranskina, hauexek dituena:
   — Dirulaguntzarako eskabide-orria.
   — Banketxearen datuak.
   — Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izatea eragozten duten inguruabarretako batean ere ez dagoela adierazten duen aitorpena.

b) Eskatzailearen eta, behar izanez gero, bizikidetza-unitateko kide guztien NANen fotokopiak edo familia-liburuaren fotokopia.

c) Familia Ugariaren titulu ofizialaren fotokopia, eskabide-datan behar bezala eguneratua.

d) Azken errenta-aitorpena (PFEZ), edo, halakorik ezean, azken zerga-ekitaldiko ondasunen eta errentaren ziurtagiria, eskatzailearen eta 18 urtetik gorako bizikidetza-unitateko kide guztien Bizkaiko Foru Ogasunak emana.

e) II. Eranskina. Banketxearen ziurtagiria, Udalak aldez aurretik ez badu.

Halaber, Udalaren gizarte zerbitzuek espedientea izapidetzeko behar duten beste edozein agiri eskatu ahal izango diote eskatzaileari. Eskatutako agiriak aurkezteari uko egiteak, gezurrezko datuak azaltzeak, daturen bat isiltzeak eta dirulaguntza lortzeko edozein iruzurrek berez ekarriko dute dirulaguntza ezestea, hortik etor daitezkeen beste lege-erantzukizun batzuk alde batera utzi gabe.

8. artikulua.— *Organo eskuduna eta ebazpena*

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailak baloratuko ditu eskabideak. Ondoren, behin proposamena eginda, Alkatetzari aurkeztuko dizkio hark onetsi ditzan.

Portugaleteko Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailari dagokio, organo instruktorea den aldetik, ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak egitea.

Prozedura ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, Udalak laguntza horiek eskatzeko adierazitako epea amaitzen den egunetik aurrera.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio-prozedurari buruzko legerian aurreikusitako moduan eta epean jakinaraziko dira.

Ebazteko gehienezko epea behin igarota, berariazko ebazpenik tartean egon ezik, dirulaguntzaren emakida ezetsitzat joko da.

9. artikulua.— *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna*

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira hala edozein Administrazio Publikok nola erakunde publiko edo pribatuk eman ditzaketenekin, baldin eta helburu bera badute.

eek: BAO-2023a075

10. artikulua.—*Araubide juridiko aplikagarria*

Dirulaguntza horiek honako oinarri-arau hauen arabera arautuko dira: oinarri arautzaile hauen arabera; Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen arabera; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren arabera.

11. artikulua.—*Aurrekontuko zuzkidura*

Dirulaguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

12. artikulua.—*Dirulaguntzen emakidaren publizitatea*

Ez dira argitara emango Portugaleteko herritarrentzako dirulaguntzen ebazpenak, baldin eta baliabide urriak badituzte, publizitate hori onuradunen ohorea, intimitate pertsonala edo familiarra errespetatzearen eta babestearen aurkakoa delako, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilaren arabera, hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 c artikulua aplikatuz.

13. artikulua.—*Xedapen gehigarria*

Arautegi hau Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean (BDNS) argitaratzeaz gain, Udalaren iragarki-taulan Portugaleteko Udalaren Gardentasun Atarian egongo da ikusgai.

eek: BAO-2023a075

I. ERANSKINA / ANEXO I

FAMILIA UGARIAK DIREN PORTUGALETEKO HERRITARRENTZAKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA
SOLICITUD DE AYUDAS A VECINOS Y VECINAS DEL MUNICIPIO DE PORTUGALETE QUE CONSTITUYAN UNA FAMILIA NUMEROSA

Eskatzailearen datuak / Datos de la persona solicitante			
1. abizena / 1.er apellido	2. abizena / 2.º apellido		
Izena / Nombre	Emak./ Mujer ☐	Giz. / Hombre ☐	NAN / DNI
Bizilekua / Dirección			
Tel 1	Tel 2	Posta elektronikoa / Correo electrónico	

Ordezkariaren datuak (1) Egin x bat, jakinarazpenak helbide honetan jaso nahi badituzu Datos de la persona representante (1) Marque una x si desea recibir las notificaciones en esta dirección			
1. abizena / 1.er apellido	2. abizena / 2.º apellido		
Izena / Nombre	Emak. / Mujer ☐	Giz. / Hombre ☐	NAN / DNI
Bizilekua / Dirección			
Tel 1	Tel 2	Posta elektronikoa / Correo electrónico	

Banketxe edo aurrezki entitatearen datuak / Datos bancarios
IBAN ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Jabea / Titular: .....

Aitortzen du / Declara:
☐ Inprimaki honetako datu guztiak zuzenak eta guztiz egiazkoak direla. Que todos los datos que figuran en la presente solicitud son correctos y totalmente ciertos.
☐ Ez dagoela sartuta dirulaguntzen onuraduna izatea galarazten duen inguruabarretako batean (38/2003 DiruLaguntza Lege Orokorreko 13.2 atala). Que no está incursa en ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de beneficiaria del artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa bete nahian, jakin ezazu zeure datuak «Eregistro Nagusia» izeneko fixategian sartuko direla, fitxategi horren ardura Portugaleteko Udalari dagokioia eta Udalak bere idazki-komunikazionen sarrera-irteerak erregistratzeko erabiliko dituela. Hala nahi duenak une oro eskuratu, zuzendu edo baliogabetu ahal izando ditu bere datuak Portugaleteko Udalaren Erregistro Nagusian (Solar plaza z.g.-48920 Portugalete)	En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Registro General», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es el registro general de estradas y salidas de escritos y comunicaciones del Ayuntamiento. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento (Plaza del Solar s/n. 48920 Portugalete

Portugalete(n),.....

Eskatzailearen izenpea / Firma del solicitante

eek: BAO-2023a075

II. ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS

Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak
Datos identificativos de la persona o entidad interesada

NAN/IFK / DNI/CIF.....

Abizenak eta Izena/Sozietaren izena / Apellidos y nombre/Razón social .....

Datos bancarios / Banku datuak

Bankua / Banco | Sukutsala / Sucursal

K.D. / D.C. | K/Korrontea / C/Corriente

KOntu korrontearen jabea / Titular de la cuenta.....

Atzerriko diru - kontuetarako soilik // Bankuak bete behar
Sólo para cuentas corrientes en el extranjero // A rellenar por el banco

IBAN

Interesatuaren adostasuna Conformidad de la persona interesada	Bankuaren adostasuna Conformidadel banco

Portugalete, ...

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa bete nahian, jakin ezazu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartuko direla, fitxategi horren ardura Portugaleteko Udalari dagokiola eta Udalak udalerrian diharduten elkarteak eta dirulaguntza eskatzen dutenak erregistratzeko erabiliko duela. Hala nahi duenak une oro eskuratu, zuzendu edo baliogabetu ahal izango ditu bere datuak Portugaleteko Udalaren Erregistro Nagusian (Solar plaza z.g. – 48920 Portugalete).	En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales se informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es el registro de asociaciones que tienen su ámbito de actuación en el municipio y solicitantes de subvención. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento, ubicado en la Plaza del Solar s/n - 48920 Portugalete.

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaleteko Udala

Onetsi baliabide gutxiko Portugaleteko herritarrei emateko dirulaguntzen oinarri-arauak.

Portugaleteko Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuran honako arau hauek onetsi ditu:

Portugaleten, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

eek: BAO-2023a075

BALIABIDE GUTXIKO PORTUGALETEKO HERRITARRENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI-ARAUAK

1. artikulua.— *Dirulaguntzen xedea eta definizioa*

Oinarri hauen xedea dirulaguntzak arautzea da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera zabor-zerbitzuari, estolderiari eta ondasun higiezinen gaineko zergari dagozkien udal-tasengatik ordaindutako kopuruak erreferentziatzat hartuta.

2. artikulua.— *Onuradunak*

Dirulaguntzok Portugaleten erroldaturikoek jaso ahal izango dituzte, baldin eta baliabide ekonomiko gutxi badute eta datozen artikuluetako eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua.— *Onuradunek bete beharreko eskakizunak*

1. Portugaleteko herritarra izatea, udal erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna izanik, dirulaguntza hauetarako eskabidea aurkezteko unean.

2. Eskabidean adierazitako helbidean bizileku efektiboa izatea. Bizileku hori dirulaguntza ordaintzeko ordainagirietan ere agertu behar da, eskabidea aurkezteko orduan.

3. Familia batek Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/08 Legean (2023ko martxoaren 29tik aurrerako ondorioekin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak aurrekoa indargabetzen du) eta hura garatzen duten dekretu eta zirkularretan ezarritako planagatik jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa ez gainditzea, edozein kontzepturengatik familiako diru-sarrera garbi gisa. Hona hemen xehetasunak:

Bizikidetza-unitateko kide kopurua	Urteko kopurua (€)	
	Orokorra (€)	Pentsioduna (€)
1	20.367,36	23.368,56
2	26.153,28	29.210,64
3 edo gehiago	28.930,80	31.547,52

4. Ohiko etxebizitza eta trastelekua albo batera utzita, onuradunak ez du izango edozein motatako eta ageriko balioko beste ondasunik.

Ulertuko da onuradunak ageriko balioko beste ondasunak dituela, familia-unitateko kideen ondasunen batuketak (kapital higikorra) honako zenbatekoak gainditzen dituenean:

Bizikidetza-unitateko kide kopurua	Balio kapitala eurotan	
	Orokorra (€)	Pentsioduna (€)
1	40.734,72	46.737,12
2	52.306,56	58.421,28
3 edo gehiago	57.861,60	63.095,04

5. Ezin dira dirulaguntzen onuradunak izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarren batean dauden pertsonak.

6. Udal-zergak eta tasak egunean ez izatea.

4. artikulua.— *Dirulaguntzen zenbatekoa*

Oinarri-arau hauen arabera emandako udalaren laguntzen gehieneko zenbatekoa laguntzen titularren, horien ezkontideen edo izatezko bikotekideen edo, hala badagokio,

eek: BAO-2023a075

bizi diren etxebizitzen jabeen kargura emandako ordainagiriei dagokienaren baliokidea izango da.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaintzeko dirulaguntza ohiko etxebizitzagatik edo familiaren etxebizitzagatik (hau da, errolda agirietan agertzen denagatik) bakarrik emango da.

Edonola ere, dirulaguntzak aurrekontuaren menpe egongo dira beti eta eskatzen den kopurua urteko aurrekontuaren baino handiagoa bada, hauxe egingo da:

— Lehenengo eta behin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko zenbatekoa gutxitzea; gutxitze hori gehienez diruz laguntzen diren gastu guztien % 30ekoa izango da;

— Hala ere aurrekontua gainditzen bada, lehentasunez emango zaizkie ezarritako irizpideen arabera diru-sarrera gutxien duten familia-unitateei.

5. artikulua.— *Emakidaren prozedura*

Dirulaguntza zuzenean ematen da, oinarri-arau hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan eta lege horren 28. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiak daudelako.

6. artikulua.— *Eskabideen aurkezpena eta epeak*

Eskabideak Portugaleteko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan (San Roke plaza, astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era). Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri-arau hauen deialdian ezarriko da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

Informazioa eta eskabide-orria arestian aipatutako udal bulegoetan egongo dira. Halaber, Udal webgunean (www. portugalete.org).

7. artikulua.— *Aurkeztu beharreko agiriak*

Eskatzaileak honako agiriak aurkeztuko ditu:

a) I. Eranskina, hauexek dituena:

— Dirulaguntzarako eskabide-orria.

— Banketxearen datuak.

— Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izatea eragozten duten inguruabarretako batean ere ez dagoela adierazten duen aitorpena.

b) Eskatzailearen eta, behar izanez gero, bizikidetza-unitateko kide guztien NANen fotokopiak edo familia-liburuaren fotokopia.

c) Azken ekitaldi fiskaleko Ondasun Ziurtagiria eta Errenta, Bizkaiko Foru Aldundiak egina, hala eskatzailearena nola 18 urtetik gorako bizikidetza-unitatearen kideena.

d) Azken ekitaldi fiskaleko Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren eta zarama eta estolda udal arielen ordainagiri jatorrizkoak edo ziurtagiriak.

e) II. Eranskina. Banketxearen ziurtagiria, Udalak aldez aurretik ez badu.

Halaber, Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailak espedientea izapidetzeko behar duen beste edozein agiri eskatu ahal izango diote eskatzaileari. Eskatutako agiriak aurkezteari uko egiteak, gezurrezko datuak azaltzeak, daturen bat isiltzeak eta dirulaguntza lortzeko edozein iruzurrek berez ekarriko dute dirulaguntza ezestea, hortik etor daitezkeen beste lege-erantzukizun batzuk alde batera utzi gabe.

eek: BAO-2023a075

8. artikulua.— *Organo eskuduna eta ebazpena*

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailak baloratuko ditu eskabideak. Ondoren, behin proposamena eginda, Alkatetzari aurkeztuko dizkio hark onetsi ditzan.

Portugaleteko Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Sailari dagokio, organo instruktorea den aldetik, ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak egitea.

Prozedura ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, Udalak laguntza horiek eskatzeko adierazitako epea amaitzen den egunetik aurrera.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio-prozedurari buruzko legerian aurreikusitako moduan eta epean jakinaraziko dira.

Ebazteko gehienezko epea behin igarota, berariazko ebazpenik tartean egon ezik, dirulaguntzaren emakida ezetsitzat joko da.

9. artikulua.— *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna*

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira hala edozein Administrazio Publikok nola erakunde publiko edo pribatuk eman ditzaketenekin, baldin eta helburu bera badute.

10. artikulua.— *Araubide juridiko aplikagarria*

Laguntza horiek honako arau hauen arabera arautuko dira: oinarri arautzaile hauen arabera; Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen arabera; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren arabera.

11. artikulua.— *Aurrekontuko zuzkidura*

Dirulaguntza hauen emakida izango da deialdian aipatzen den diru-kopurua, ekitaldi bakoitzean Udalaren Aurrekontuaren barruan helburu horretarako esleitutakoa, hain zuzen ere.

12. artikulua.— *Dirulaguntzen emakidaren publizitatea*

Ez dira argitara emango Portugaleteko bizilagunentzako dirulaguntzen ebazpenak, baldin eta baliabide urriak badituzte, publizitate hori onuradunen ohorea, intimitate pertsonala edo familiarra errespetatzearen eta babestearen aurkakoa delako, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilaren arabera, hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 c artikulua aplikatuz.

13. artikulua.— *Xedapen gehigarria*

Arautegi hau Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean (BDNS) argitaratzeaz gain, Udalaren iragarki-taulan Portugaleteko Udalaren Gardentasun Atarian egongo da ikusgai.

eek: BAO-2023a075

I. ERANSKINA / ANEXO I

BALIABIDE GUTXIKO PORTUGALETEKO HERRITARREI EMATEKO DIRULAGUNTZEN ESKABIDEA
SOLICITUD DE AYUDAS A VECINOS Y VECINAS DEL MUNICIPIO DE PORTUGALETE QUE CUENTEN CON ESCASOS RECURSOS

Eskatzailearen datuak / Datos de la persona solicitante			
1. abizena / 1.er apellido	2. abizena / 2.º apellido		
Izena / Nombre	Emak./ Mujer ☐	Giz. / Hombre ☐	NAN / DNI
Bizilekua / Dirección			
Tel 1	Tel 2	Posta elektronikoa / Correo electrónico	

Ordezkariaren datuak (1) Egin x bat, jakinarazpenak helbide honetan jaso nahi badituzu Datos de la persona representante (1) Marque una x si desea recibir las notificaciones en esta dirección			
1. abizena / 1.er apellido	2. abizena / 2.º apellido		
Izena / Nombre	Emak. / Mujer ☐	Giz. / Hombre ☐	NAN / DNI
Bizilekua / Dirección			
Tel 1	Tel 2	Posta elektronikoa / Correo electrónico	

Banketxe edo aurrezki entitatearen datuak / Datos bancarios
IBAN ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Jabea / Titular: .....

Aitortzen du / Declara:
☐ Inprimaki honetako datu guztiak zuzenak eta guztiz egiazkoak direla. Que todos los datos que figuran en la presente solicitud son correctos y totalmente ciertos.
☐ Ez dagoela sartuta dirulaguntzen onuraduna izatea galarazten duen inguruabarretako batean (38/2003 DiruLaguntza Lege Orokorreko 13.2 atala). Que no está incursa en ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de beneficiaria del artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa bete nahian, jakin ezazu zeure datuak «Eregistro Nagusia» izeneko fixategian sartuko direla, fitxategi horren ardura Portugaleteko Udalari dagokioia eta Udalak bere idazki-komunikazionen sarrera-irteerak erregistratzeko erabiliko dituela. Hala nahi duenak une oro eskuratu, zuzendu edo baliogabetu ahal izando ditu bere datuak Portugaleteko Udalaren Erregistro Nagusian (Solar plaza z.g. – 48920 Portugalete)	En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Registro General», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es el registro general de estradas y salidas de escritos y comunicaciones del Ayuntamiento. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento (Plaza del Solar s/n. 48920 Portugalete

Portugalete(n),.....

Eskatzailearen izenpea / Firma del solicitante

eek: BAO-2023a075

II. ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA EDO ALDAKETA
ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS

Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak
Datos identificativos de la persona o entidad interesada

NAN/IFK / DNI/CIF.....

Abizenak eta Izena/Sozietaren izena / Apellidos y nombre/Razón social .....

Datos bancarios / Banku datuak

Bankua / Banco | Sukutsala / Sucursal

K.D. / D.C. | K/Korrontea / C/Corriente

KOntu korrontearen jabea / Titular de la cuenta.....

Atzerriko diru - kontuetarako soilik // Bankuak bete behar
Sólo para cuentas corrientes en el extranjero // A rellenar por el banco

IBAN

Interesatuaren adostasuna Conformidad de la persona interesada	Bankuaren adostasuna Conformidadel banco

Portugalete, ...

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa bete nahian, jakin ezazu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartuko direla, fitxategi horren ardura Portugaleteko Udalari dagokiola eta Udalak udalerrian diharduten elkarteak eta dirulaguntza eskatzen dutenak erregistratzeko erabiliko duela. Hala nahi duenak une oro eskuratu, zuzendu edo baliogabetu ahal izango ditu bere datuak Portugaleteko Udalaren Erregistro Nagusian (Solar plaza z.g. – 48920 Portugalete).	En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales se informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es el registro de asociaciones que tienen su ámbito de actuación en el municipio y solicitantes de subvención. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento, ubicado en la Plaza del Solar s/n - 48920 Portugalete.

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Sestaoko Udala

Sestaoko Euskal Forging 02 Eremu Industrial eta Tertziarioaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari lotutako urbanizacio proiektuaren 3 hasierako onarpena.

Araubidez xedatutakoaren arabera, jakinarazten da Alkatetza honen 2023ko apirilaren 5eko Dekretu bidez hasierako onarpena eman zaiola Sestaoko Euskal Forging 02. PEOU_EF02 Eremu Industrial eta Tertziarioaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari lotutako urbanizacio proiektuaren 3. Bertsioari. Proiektua 2023 ko martxoan idatzi zuen Javier A. Muñoz arkitektoak, eta Mercantil Euskal Forging, SAk Udalean aurkeztu zuen, espedientean jasotako txostenetan adierazitako moduan eta baldintzetan.

Ondorioz, iragarkia Bizkaiko Iragarki Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hogei eguneko epean xede horrez izapidetutako administrazio-espedientea eskura izango da Udaletxeko bulegoetan. Bertan aztertu ahal izango du komenigarritzat jotzen duen edonork. Epe horretan gaiaren inguruan egokitzat jotzen diren alegazioak formulatzeko aukera izango da.

Halaber, hasiera batean onetsitako dokumentazioa, udal honek hartutako ebazpenarekin eta horren oinarri diren txosten tekniko eta juridikoekin batera, Sestaoko Udalaren webgunean kontsultatu ahal izango dira.

Sestaon, 2023ko apirilaren 5ean.—Alkatea, Ainhoa Basabe Melendez

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arratiako Udalen Mankomunitatea

Etxeko eta Merkataritzako Hondakinak Biltzeko Zerbitzuagatiko Tasaren 2023ko 1. hiruhilekoko (urtarrila-martxoa) kobrantza.

Etxeko eta Merkataritzako Hondakinak Biltzeko Zerbitzuagatiko Tasaren ordainketari lotuta dauden zergadunei jakinarazi egiten zaie honako Ediktu hau erkidegoari egiten zaion jakinarazpena ere izango dela. Halaber, jakinarazi egiten zaie urtarrilaren 2ko, 1/2023 zko. Presidentziaren Dekretuaren bidez, Arratiako Udalen Mankomunitatearen

Etxeko eta Merkataritzako Hondakinak Biltzeko Zerbitzuaren 2022ko Laugarren Hiruhilekoaren Errolda ontesi dela.

2023ko 1. Hiruhilekoaren errolda

— Ordainagirien kopurua: 6.912.

— Munta guztira: 274.938 euro.

Ordaintzeko epea, tokia eta errekurtsoak

1. Ordainketa borondatezko aldian egitea, gainzamarik gabe

1.1. Epea: Zenbatekoa, gainzamarik gabe, 2023ko apirilaren 3tik 2023ko maiatzaren 15era arte ordaindu daiteke.

1.2. Ordaintzeko tokia eta era: Helbideratuta ez dauden ordainagiriak Mankomunitatearen bulegoetan kobratuko dira, Igorreko Elexalde kalearen 49. zenbakian, goizeko 08:00etatik eguerdiko 14:00ak arte eta astelehenentik ostiralera.

Helbideratuta dauden ordainagiriak helbideratzean eman den kontua eta banketxearen bidez kobratuko dira.

Tasa hori ordaindu behar duten zergadunek ordainagariak helbideratu ditzakete horretarako bidezko banketxeari aginduak emanez. Erakunde horrek Mankomunitateari jakinarazi beharko dio. Halaber, helbideratzearen eragiketa Mankomunitaten bertan egin daiteke zuzenean.

2. Ordainketa betearazpidetzako aldian egitea, gainzamarekin

Borondatezko ordainketa egiteko epea igaro ondoren, hau da, 2023ko maiatzaren 15tik aurrera, premiamenduzko bideko kobrantzari ekingo zaio, gainzamarekin alegia.

3. Errekurtsoak

Etxeko eta Merkataritzako Hondakinak Biltzeko Zerbitzuaren Zergadunen Errolda jendaurrera azalduko da 15 egunetan, ediktu hau argitaratuko denetik zenbatuta, zertarako-eta zergadunek aztertzeko aukera izan dezaten. Baldin eta azaldu behar ez duen izenen bat badago edota azaldu behar duenen bat ez badago, edota egon daitezkeen akatsen kasuan, birjarpenezko errekurtsoa aurkez daiteke. Errekurtso hori Arratiako Udalen Mankomunitatearen Presidentziari jartzeko 30 eguneko epea dago.

Igorren, 2023ko apirilaren 3an.—Presidentea, Andere Ortuzar Uribe

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilbao Zerbitzuak

Bilboko Udal Hilerriko emakiden epemuga

Bilbao Zerbitzuak Bilboko udal hilerriak kudeatzen dituen erakundea da.

Iragarki honen bidez, administrazio-emakiden epemuga (erabiltzeko epea amaitu delako) jakinarazten diegu titular guztiei, eta zer egin nahi duten jakinarazteko eskatzen diegu.

Epemugara iritsitako emakiden lurperatze-unitateak Bilboko udal-hilerrian daude, eta honako hauek dira:

Hezur-Nitxo motako lurperatze-unitateak

Mota	Zenbakia	Saila
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	787	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	909	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	431	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	788	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	376	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	910	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	843	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	1316	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	1376	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	813	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	800	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	432	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	802	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	877	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	760	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	801	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	816	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	785	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	786	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	814	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	812	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	377	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	842	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	908	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	370	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	1196	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	811	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	758	1
Hezurrentzako 2. mailako nitxoa	815	1

eek: BAO-2023a075

Titularrak lurperatze-unitatea libre uzteko betebeharra du.

Barruan dauden gorpuzkien tratamendua eta helmuga erabaki beharko ditu, hautatutako zerbitzu bakoitzari dagozkion kostuak bere gain hartuta:

— Gorpuzkiak lurperatzea hilerrian bertan

— Gorpuzkiak beste hilerri batera eramatea

— Gorpuzkien errausketa

— Gorpuzkiei uko egitea

Panteoi edo Hilobi motako lurperatze-unitateak

Mota	Zenbakia	Saila
3. mailako panteoia	3	15
3. mailako panteoia	6	15
3. mailako panteoia	7	15
3. mailako panteoia	5	15
3. mailako panteoia	4	15
Helduentzako hilobi berezia	299	17
Helduentzako hilobi berezia	240	Q
Helduentzako hilobi berezia	121	O
Helduentzako hilobi berezia	74	O
Helduentzako hilobi berezia	14	17
Helduentzako hilobi berezia	140	17
Helduentzako hilobi berezia	284	17
Helduentzako hilobi berezia	227	17
Helduentzako hilobi berezia	28	9
Helduentzako hilobi berezia	122	O
Helduentzako hilobi berezia	178	O
Helduentzako hilobi berezia	212	Q
Helduentzako hilobi berezia	72	O
Helduentzako hilobi berezia	192	19
Helduentzako hilobi berezia	258	17
Helduentzako hilobi berezia	62	17
Helduentzako hilobi berezia	13	20
Helduentzako hilobi berezia	248	17
Helduentzako hilobi berezia	233	19
Helduentzako hilobi berezia	37	17
Helduentzako hilobi berezia	201	17
Helduentzako hilobi berezia	233	17
Helduentzako hilobi berezia	8	16
Helduentzako hilobi berezia	243	19
Helduentzako hilobi berezia	302	17
Helduentzako hilobi berezia	228	O
Helduentzako hilobi berezia	10	14
Helduentzako hilobi berezia	322	17

eek: BAO-2023a075

Mota	Zenbakia	Saila
Helduentzako hilobi berezia	327	17
Helduentzako hilobi berezia	16	17
Helduentzako hilobi berezia	263	O
Helduentzako hilobi berezia	103	O
Helduentzako hilobi berezia	19	13
Helduentzako hilobi berezia	273	17
Helduentzako hilobi berezia	256	Q
Helduentzako hilobi berezia	220	19
Helduentzako hilobi berezia	265	17
Helduentzako hilobi berezia	326	17
Helduentzako hilobi berezia	263	17
Helduentzako hilobi berezia	249	17
Helduentzako hilobi berezia	367	17
Helduentzako hilobi berezia	243	O
Helduentzako hilobi berezia	275	Q
Helduentzako hilobi berezia	256	17
Helduentzako hilobi berezia	188	19
Helduentzako hilobi berezia	115	O
Helduentzako hilobi berezia	63	13
Helduentzako hilobi berezia	17	15
Helduentzako hilobi berezia	328	17
Helduentzako hilobi berezia	307	17
Helduentzako hilobi berezia	226	17
Helduentzako hilobi berezia	108	17
Helduentzako hilobi berezia	17	17
Helduentzako hilobi berezia	245	17
Helduentzako hilobi berezia	259	O
Helduentzako hilobi berezia	39	17
Helduentzako hilobi berezia	120	O
Helduentzako hilobi berezia	346	17
Helduentzako hilobi berezia	191	17
Helduentzako hilobi berezia	144	O
Helduentzako hilobi berezia	266	Q
Helduentzako hilobi berezia	179	15
Helduentzako hilobi berezia	254	O
Helduentzako hilobi berezia	229	17
Helduentzako hilobi berezia	175	O
Helduentzako hilobi berezia	232	17
Helduentzako hilobi berezia	80	M
Helduentzako hilobi berezia	360	17
Helduentzako hilobi berezia	176	O
Helduentzako hilobi berezia	26	20

eek: BAO-2023a075

Mota	Zenbakia	Saila
Helduentzako hilobi berezia	228	17
Helduentzako hilobi berezia	272	17
Helduentzako hilobi arrunta	317	17
Helduentzako hilobi arrunta	242	Q
Helduentzako hilobi arrunta	46	H
Helduentzako hilobi arrunta	268	17
Helduentzako hilobi arrunta	269	17
Helduentzako hilobi arrunta	70	O
Helduentzako hilobi arrunta	62	O
Helduentzako hilobi arrunta	246	O
Helduentzako hilobi arrunta	252	17
Helduentzako hilobi arrunta	264	Q
Helduentzako hilobi arrunta	92	D
Helduentzako hilobi arrunta	48	17
Helduentzako hilobi arrunta	214	17
Helduentzako hilobi arrunta	277	17
Helduentzako hilobi arrunta	276	17
Helduentzako hilobi arrunta	243	17
Helduentzako hilobi arrunta	85	17
Helduentzako hilobi arrunta	251	O
Helduentzako hilobi arrunta	315	17
Helduentzako hilobi arrunta	312	17
Helduentzako hilobi arrunta	311	17
Helduentzako hilobi arrunta	239	17
Helduentzako hilobi arrunta	253	19
Helduentzako hilobi arrunta	194	Q
Helduentzako hilobi arrunta	27	16
Helduentzako hilobi arrunta	199	17
Helduentzako hilobi arrunta	237	19
Helduentzako hilobi arrunta	174	O
Helduentzako hilobi arrunta	80	O
Helduentzako hilobi arrunta	79	O
Helduentzako hilobi arrunta	247	19
Helduentzako hilobi arrunta	352	17
Helduentzako hilobi arrunta	214	Q
Helduentzako hilobi arrunta	124	O
Helduentzako hilobi arrunta	43	O
Helduentzako hilobi arrunta	253	17
Helduentzako hilobi arrunta	164	17
Helduentzako hilobi arrunta	203	17
Helduentzako hilobi arrunta	53	G
Helduentzako hilobi arrunta	193	17

eek: BAO-2023a075

Mota	Zenbakia	Saila
Helduentzako hilobi arrunta	194	17
Helduentzako hilobi arrunta	321	17
Helduentzako hilobi arrunta	298	17
Helduentzako hilobi arrunta	256	O
Helduentzako hilobi arrunta	154	O
Helduentzako hilobi arrunta	251	17
Helduentzako hilobi arrunta	86	17
Helduentzako hilobi arrunta	268	O
Helduentzako hilobi arrunta	26	13
Helduentzako hilobi arrunta	340	17
Helduentzako hilobi arrunta	81	D
Helduentzako hilobi arrunta	246	17
Helduentzako hilobi arrunta	180	O
Helduentzako hilobi arrunta	178	D
Helduentzako hilobi arrunta	157	17
Helduentzako hilobi arrunta	235	19
Helduentzako hilobi arrunta	31	9
Helduentzako hilobi arrunta	92	15
Helduentzako hilobi arrunta	65	O
Helduentzako hilobi arrunta	3	20
Helduentzako hilobi arrunta	73	O
Helduentzako hilobi arrunta	354	17
Helduentzako hilobi arrunta	261	17
Helduentzako hilobi arrunta	97	13

Honako aukerak eskaintzen ditugu:

Emakida berritzea

— Berritze-aldia 50 urtekoa da.

— Emakidaren titular guztiek dute berritzeko eskubidea (hainbaten izenean badago).

— Ordainketa bakarra edo geroratua izan daiteke.

— Ordainketa geroratua: 48 edo 60 hileko kuota, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako zergen berandutze-interesa aplikatuko zaio, bestelako bermerik eskatu gabe (bermea emakida bera izango da).

Emakida berritzeari uko egitea

Titularrak lurperatze-unitatea libre uzteko betebeharra du.

Barruan dauden gorpuzkien tratamendua eta helmuga erabaki beharko ditu, hautatutako zerbitzu bakoitzari dagozkion kostuak bere gain hartuta:

— Gorpuzkiak lurperatzea hilerrian bertan

— Gorpuzkiak beste hilerri batera eramatea

— Gorpuzkien errausketa

— Gorpuzkiei uko egitea

eek: BAO-2023a075

Erantzuteko epea

Titularrak emakidarekin zer egin nahi duen jakinarazi beharko digu 3 hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horretan erantzunik ez badugu, eskubideari uko egiten zaiola ulertuko dugu, eta lurperatze-unitatea husteari ekingo diogu.

Bilbao Zerbitzuaken Webgunean eskaera-inprimaki bat eskuragarri dago. Inprimaki hori honela helaraz daiteke:

— Posta elektronikoz: info@zbk.bilbao.eus

— Posta arruntez: Bilbao Zerbitzuak-Santimami Auzoa 4-48170 Zamudio.

— Aurrez-aurre: Bilboko Hilerriko gure bulegoetan.

— Aurretik hitzordua eskatuta 944 231 019 telefonoan.

— Internetez: gure egoitza elektronikoaren bidez: bilbaozerbitzuak.bilbao.eus/egoitza

Zamudion, 2023ko apirilaren 11n.—Zuzendaria Kudeatzailea, José Antonio Fernández Celada

eek: BAO-2023a075

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Lanbide Ekimenak Zentroa (Gernika-Lumo)

Aldi baterako enplegu publikoa egonkortzeko prozesuen oinarri eta eranskinen akatsen zuzenketa (oposizio-lehiaketa).

Lanbide Ekimenak Erakunde Autonomoaren iragarkia, 2022ko abenduaren 30ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako (248. zenbakia), 2021/20 Legearen 2. artikulutik eratorritako, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri orokor, espezifiko eta eranskinen zuzenketa.

2022ko abenduaren 30eko Bizkaiako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkien akatsen eta 2023ko aprilaren 4ko 117. zenbakidun Presidentearen Ebazpen bidez xedatutakoaren zuzenketen ondorioz, zuzendu egiten dira dokumentu berriak osorik argitaratuz.

Gernika-Lumon, 2023ko apirilaren 4an.—Presidentea, Jon Lejarraga Enbeita

eek: BAO-2023a075

ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTZEKO OINARRI OROKORRAK

1. Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak Lanbide Ekimenak Zentruan ezartzea da.

Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko dira. Oinarri horiek, nolanahi ere, honako hauek jaso beharko dituzte:

— Deitutako plazak, kopurua eta lotutako lanpostuak eta, hala badagokio, sartzeko txanda identifikatzea.

— Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuetan sartzeko baldintzak: sartzeko titulazioa, hizkuntza-eskakizuna eta haren derrigortasun-data, bai eta sartzeko beste baldintza batzuk ere (hizkuntzak, informatikako ezagutzak, etab.).

— Lehiaketa fasean baloratzekoak diren merezimenduak eta haien baremoa.

— Gaitegiaren zati espezifikoa.

— Emakumeen lehentasun-klausula aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi bereziari araudi hau aplikatuko zaio:

— Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zena.

— 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren erreformarako neurriena.

— 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

— 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.

— 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikatzekoa zaien guztian.

— Modu osagarrian, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.

— 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

— 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri- administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

— 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen dituena Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin.

— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoko araubide juridikoarena.

— 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.

— 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako.

— 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

eek: BAO-2023a075

— 2/2004 Legea, Otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

— 1986ko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua.

— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

— Oinarri arautzaile hauek.

20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren prozesua lehiaketa-oposizio sisteman oinarrituta bideratuko da.

2. Parte hartzeko baldintza orokorrak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den beste estaturen batekoa, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuan zehaztuta dagoen moduan.

b) Parte hartu ahal izango dute, baita ere Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoek eta bere ezkontidearenek, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak (5/2015 LEDren 57. artikulua).

c) Aurretiazko eskaera egitea

d) Sartu nahi den lan-eskala edo -kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

e) Gutxienez hamasei urte izatea eta, hala badagokio, derrigorrezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

f) Edozein Herri Administrazioaren zerbitzuetatik edota autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik diziplina-espediente bidez baztertua ez egotea edota ebazpen judizial bidez desgaikuntza absolutu edo berezirik ez izatea lanpostu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan-kontratuko langileen kategorietara sartzeko.

g) Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

h) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulu hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea; titulazio hori berariazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.

i) Titulazioa atzerrian eskuratu duten izangaiek dagokion baliozkotze-agiria edo, hala badagokio, homologazioa ziurtatzen duen agiria dutela egiaztatu beharko dute.

j) Hautaketa-prozesuaren barruan, lanposturako (lan-kontratuko langileen kasuan) edo plazari lotutako lanposturako (funtzionarioentzat gordetako lanpostuen kasuan) eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Baldintza hori bete beharko den eguna dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den eguna izango da.

k) Administrazio publikoetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kau-

eek: BAO-2023a075

saren batean sartuta ez egotea, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin batean ari direnentzat aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatzea eragotzi gabe.

l) Eskala, azpieskala edo kategoria bereko karrerako funtzionarioak edo lan-kontratuko langile finkoak ez izatea deialdia egin duen udalean.

m) Oinarri espezifikoetan eskatzen diren beste baldintza guztiak.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berariaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helbururako tratatzea.

2.1. *Eskakizunak betetzeko datak*

Plazak lortu nahi dituztenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte oinarri orokorretan eta espezifikoetan aurreikusitako baldintzak, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, eta bete egin beharko dituzte karrerako funtzionario kargua hartzen duten edo plantillako lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren datan.

2.2. *Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua*

Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua 8. oinarrian ezartzen dira.

3. Hautatzeko baldintza orokorrak

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte inola ere bete baldintza horiek bete izana egiaztatu ez dutenek. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deitutako plazei lotutako lanpostuei esleitu zaizkien berariazko baldintzak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat izatea eskatzen badute, deialdietako oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatzeko modua.

4. Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak

Epaimahaiak ezin izango du proposatu deitutako plazak baino gainditutako pertsona gehiago bihurtzea karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

— Hautatutakoen uko egiteak, izendatu edo lanpostuaz jabetu aurretik, edo

— 15. oinarrian xedatutakoaren arabera izangaiei eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea, edo, aurkeztutakoaren arabera, 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutela edo zereginak betetzeko behar den gaitasun fisiko edo psikikoa betetzen ez dutela ondorioztatzea.

Kasu horietan, hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko da. Epaimahaiak egingo du zerrenda hori, dagokion izangaien aldeko izendapen osagarriaren proposamena egiteko, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-ordenaren arabera, eta hautatutzat joko dira aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazen kopuru bera duten izangaien kopurua.

b) Lanpostuaz jabetzean lanpostua erreserbatu gabe eszedentzia-eskaerak egiten direnean, bai eta egonkortze-deialdietan lanpostua lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabe eszedentzia-eskaerak egiten direnean ere, hutsik utzitako plazak esleituko dira, eta horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiak egindako hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrenda erabiliko da.

Lanpostuaz jabetzean eszedentzia-egoerara igarotzeko egoerak baliozkoak izateko, eskaera hori gehienez 15 eguneko epean egin beharko da, izendapen-proposamena jakinarazi ondoren.

eek: BAO-2023a075

5. Argitalpenak eta iragarki-taula

Hautaketa-prozesuen deialdiak kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, bai eta Gernika-Lumo udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere (www.gernika- lumo. eus)

Hautaketa-prozesuan zehar, haren garapenaren alderdiei lotutako informazio guztia Gernika-Lumo udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, jakinarazpenak egiteko.

6. Eskabideak aurkeztea

6.1. *Prozesuan onartua izatea*

Parte hartu nahi dutenek horretarako eskabide-ereduan adierazi beharko dute zein hautaketa-prozesutan parte hartu nahi duten eta zein plaza zehatz lortu nahi dituzten, lan-eskala/azpieskala/mota edo -kategoria berekoak izan arren.

Onartzeko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira: 1) eskabidea bere atal guztietan betetzea, 2) epearen barruan aurkeztea.

Halaber, aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean beteta eduki beharko dira eskatutako baldintza guzti-guztiak, 7.1 oinarrian elkargora kidetzarekin, espezialitatearekin eta euskararen ezagutzarekin lotuta aurreikusitakoa izan ezik. Azken kasu horretan, 9.2 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da.

6.2. *Eskabideak aurkezteko modua*

Eskabideak egoitza elektronikoko deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egokituko dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere izango da, I. eranskin gisa sartu dena eta Gernika-Lumoko udalaren web orrian eskuragarri dagoena (gernika-lumo.eus).

Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartzeko, nahikoa izango da eskabidean nork bere erantzukizunpean adieraztea eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean, eta hori guztia II. eranskinean jasotzen den erantzukizunpeko adierazpenaren arabera.

Eskabide-orriarekin batera, honako hauek ere aurkeztuko dira:

a) Lanbide Ekimenak Zentroko bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako lan- kontratuko langileek Giza Baliabideen Sailak emandako «Egonkortzeko Datuen Ziurtagiria» aurkeztu beharko dute, eta izangai bakoitzak bere Erregistro Pertsonalean eskuratu ahal izango du. Bertan, langilearen esperientziari, datu akademikoei eta abarri buruz udalak duen informazioa jasoko da.

   Hala ere, ziurtagiri horretan sartzen ez den edozein baldintza eskabide- orriarekin batera aurkeztu beharko da, bestela ezin izango baita hautaketa- prozesuan parte hartu halakorik ez badago. Merezimenduen kasuan, era berean, ziurtagiri horretan agertzen ez direnak eskabide-orrian alegatu eta aurkeztu beharko dira Auto-Balorazioko inprimakiaren bidez (III. eranskina); bestela, ezin izango dira zortzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera baloratu.

b) Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan dagoela egiaztatzen duen titulua edo dokumentazioa, bai eta deialdiaren oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako agiriak ere.

c) Auto-balorazioko inprimakia (III. eranskina) behar bezala beteta eta behar bezala sinatuta, eta auto-balorazioko inprimakian agertzen diren arabera ordenatutako egiaztagirien kopia. Hautagai guztiek bete beharko dute inprimakia, «Egonkortzeko datuen ziurtagiria» aurkezten dutenek barne.

Hautaketa-prozesuak eskatzen duen gainerako dokumentazioa hamalaugarren oinarrian adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko da.

Eskabide-orriaren epigrafean, euskararen informazioari buruzkoan, nahitaez jaso beharko da egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, eta, horrez gain, euskarako azterketa

eek: BAO-2023a075

egin nahi izanez gero, zein hizkuntza-eskakizunetara aurkeztu nahi den ere adierazi beharko da.

Halaber, eskarian/erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko dute hautaketa probak euskaraz edo gaztelaniaz egin nahi dituzten. Ezer esaten ez bada, proba guztiak gaztelaniaz egingo dira.

6.3. *Eskabide.orriak aurkezteko lekua.*

6.3.1 Eskabideak, eskatutako dokumentazioarekin batera, leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Eskabide elektronikoa egoitza elektronikoan:

— https://www.gernika-lumo.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento- detalle.aspx?idt=96f654b2-792e-e811-a0ed-00237d32b322

Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, egoitzan onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat izan beharko du (BAK EDO BAKQ).

b) Aurrez aurreko eskabidea: Udalaren erregistro eta herritarren arretarako bulegoan (hemen dago: Foru Plaza 3).

6.3.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 16.4. artikuluan xedatutako edozein tokitan ere aurkeztu ahal izango dira.

Administrazioarekin harreman elektronikoa izateko legezko betebeharra dutenen kasuan, egoitza elektronikoan aurkeztuko da.

Udaleko Alkatetzari zuzenduko zaizkio. Antzematen diren izatezko akatsak edozein unetan zuzendu daitezke, ofizioz eta/edo interesdunak eskatuta.

Langile izangaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko bakarrik erabiliko da. Tratamendu- jarduera horren erabilera eta funtzionamendua bi lege hauetan ezarritakoaren araberakoa izango da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoa. Ofizioz, honako baldintza/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedienteari gehituko zaizkio, interesdunak berariaz kontrakoa adierazten ez badu: oNortasun-datuak egiaztatzea oTitulazio akademikoak o(unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak) oHizkuntza-eskakizunik altuena (Euskara) Ikastaroen ziurtagiria: HAEE-en (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) bidez egindako gainditutako ikastaroen edo gidabaimenen (DGT) edo IT Txartelen (erakunde ziurtatzailea) zerrenda

Aurkeztu beharreko dokumentuak deialdia egin duen udalak badauzka, ez dira berriro aurkeztu behar izango, baldin eta eman ziren data eta bulegoa adierazten badira eta dagokien prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

6.3.3. Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasak ordaintzeko modua (berariazko araudiak ezarrita duen udaletan).

6.4. *Eskabide-orriak aurkezteko epea*

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hogei (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.

6.5. *Eskabide-orrien akatsak*

Eskabide-orria garaiz eta behar bezala ez aurkezteak izangaia baztertzea ekarriko du.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat etorriz, eskabide-orrietako akatsen kasuan, interesdunari errekerimendua egingo zaio iragarkiaren bidez erakunde deitzaile honetako iragarki-taulan eta Lanbide Ekimenak Zentroko web orrian

eek: BAO-2023a075

(www.lanbide-ekimenak.eus), hamar egun balioduneko epean konpon dezan dokumentazio-falta, izangaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, atzera egingo duela eskaeran.

Hautaketa-prozesuak eskatzen duen gainerako dokumentazioa zazpigarren eta hamalaugarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko da.

Ez ordaintzea edo ordainketa osatugabea konpondu ahal izango da, soil-soilik, eskatzaileak alegatutako salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzeari buruz egindako akatsaren ondorio denean. Horretarako, hamar eguneko epea emango zaio pertsonari akatsa zuzentzeko.

7. Baldintzak eta merezimenduak. Erreferentzia-datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztapena

7.1. *Merezimenduak betetzeko erreferentzia-datak eta parte hartzeko baldintzak*

Alegatzen diren baldintzak eskuratzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

— Euskararen ezagutza, 9.2 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

— Dagokion elkargo profesionalean elkargokide izatea, araututako lanbide bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskala edo lanpostu zehatzen kasuan, lanpostuaz jabetzean egiaztatu beharko dena.

7.2. *Betekizunak eta merezimenduak alegatzea*

Parte hartzeko baldintza orokorrak eta deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen berariazko baldintzak eta merezimenduak, eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

7.3. *Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzea*

7.3.1. Epaimahai kalifikatzaileak alegatutako merezimenduak egiaztatuko ditu, kasuan kasu, dagozkion erregistroetan, administrazio publikoen datuen bitartekaritza- plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jardueraren organo arduradunak aintzat hartzen badu.

Aurkakotza arrazoitua agertuz gero, aurkakotza horrekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira agiriak, zeinen kontsultaren aurka agertu den.

7.3.2. 14. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonek, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izendatu aurretik, merezimenduei eta baldintzei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, baldin eta:

— Epaimahai kalifikatzaileak ezin izan badu egiaztapena egin, edo

— Izangaiak egiaztapen horren aurka agertu badira, organo eskudunak aurkakotza hori aintzat hartu duenean.

Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aurkezteko. Kasu horretan, dokumentazioak oinarri orokor hauetako 15. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

7.4. *Lanpostuen berariazko baldintzak*

Lanpostu-zerrendan berariazko baldintzak esleituta dituen lanpostu bati lotutako plaza baten esleipena lortu ahal izateko, izangaiek baldintza horiek alegatu beharko dituzte 7.2 oinarrian ezarritako epean, oinarri espezifikoetan lanpostu bakoitzerako zehazten den moduan.

8. Hautagaitzak onartzea

8.1. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitu eta haietan akatsak zuzentzeko izapideak egiteko epea amaitu ondoren, alkatetzak behin betiko onarpen, bazterketa eta

eek: BAO-2023a075

atzera egiteen zerrendak onartzeko ebazpena emango du, izangaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz. Ebazpen hori Bizkaiko aldizkari ofizialean, udaletxeko iragarki-oholean eta Lanbide Ekimenak Zentroko web orrian argitaratuko da (www.lanbide-ekimenak.eus).

Eskatzaile bakoitzak eskabide-orrian jaso eta erantzukizunpeko adierazpenaren pean dauden datuen arabera egingo da zerrenda hori.

Zerrendetan, hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera) eta prozesutik kanpo geratu diren pertsonak ez onartzeko arrazoia jasoko dira.

Gainera, zerrenda horietan argitaratuko da, behin-behinean, auto-balorazioaren inprimakian lortutako puntuazio osoa, hautagai bakoitzak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-orrien kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak) zehazteko.

8.2. Onarpen, bazterketa eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Udalburutzari hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Baztertutako pertsonak hautapen prozesura aurkeztu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela, egun horretarako ez bada ebatzi.

Probak egiten diren egunean aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada, hautagaiek kautelaz egin ahal izango dituzte. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

8.3. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa- prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Azkenean pertsona hautatzen bada, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu izangairen batek dagokion deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duela,

interesdunari entzun ondoren, izangaiak baztertzea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta pertsona horrek parte hartzeko eskabidean egindako okerrak edo faltsukeriak jakinarazi beharko dizkio.

9. Hautaketa-prozedura

9.1. 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren hautaketa prozedura lehiaketa-oposiziokoa izango da eta dagozkion txandak izango ditu eta deialdiaren oinarri espezifikoekin bat etorriz, eta hurrenez hurren gauzatu beharko dira oinarri espezifikoetan zehaztutako ariketek osatzen duten oposizio fasea eta merezimenduak baloratuko diren lehiaketa fasea, aurretiaz oposizio fasea egin eta gero.

9.2. Oposizio fasea.

a) Oposizio fasea oinarri espezifikoetan adierazitako ariketek osatuko dute eta ezagutu beharreko araudia izango da deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoena.

b) Ariketak teorikoak zein praktikoak izango dira, eta egun berean gauzatu ahal izango dira elkarren segidan. Gainera, epaimahaiak atseden hartzeko denbora bat utzi ahal izango die hautagaiei ariketen artean.

c) Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak dituzten lanpostuetan, eta borondatezkoa eta ez baztertzailea gainerako lanpostuetan. Euskarako derrigorrezko azterketa baztertzailea gain-

eek: BAO-2023a075

ditzen ez duten edo egiten ez duten izangaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanpostuak ez daramatzaten beste plazetan, eta, hala badagokio, ariketa horretan lortutako kalifikazioa zenbatuko da. Eta eskabide-orrian hala eskatu dutenak baino ezingo dira aurkeztu.

Erakunde deitzailean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen bada.

Aukera horretatik salbuetsita geratzen dira, eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da aipatutako 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen salbuespenen kasuan, aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira.

Nolanahi ere, euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskarako ariketa egiten den eguna izango da.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Lanbide Ekimenak Zentroari ziurtagiria edo haren salbuespena erregistro horretan egiaztatzeko.

Nolanahi ere, interesdunak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, esteka honen bidez: http://www. euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/

Hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan zehazten dira (297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen dituena Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin), bai eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa).

9.3. Lehiaketa fasea.

a) Lehiaketa fasean oposizio fasea gainditu dutenek eskarian idatzi dituzten merezimenduak aztertuko eta baloratuko dira. Eskaera erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, albo batera utzi gabe behin betiko kalifikatu baino lehen behin-behineko kalifikazioan puntuaziorik handiena izan duten hautagaiek aipatutako merezimenduak egiaztatzea, eskainitako plaza kopurua bete arte, edo hala badagokio, dagokion lan poltsako gehieneko pertsona kopurua bete arte, oinarri espezifikoetan ezarritako terminoetan. Merezimendu guztiak eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharko dira berau aurkezteko epearen barnean. Merezimenduak eskuratzeko gehienezko epea eskariak aurkezteko azken eguna izango da.

   Eskaera zein egunetan aurkeztu den albo batera utzita, merezimenduak zenbatuko dira eskaerak aurkezteko azken egunera arte.

b) Lehiaketa fasea ez da baztertzailea izango eta ezin izango da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko, Toki administrazioko funtzionarioen aukeraketa prozesuak arautzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Inolaz ere lehiaketa fasearen balorazioak ezingo du gainditu hautaketa prozesu osoan eskura daitekeen gehienezko puntuazioaren % 40 (ehuneko berrogei), kanpoan utzita euskara merezimendu gisa baloratzea, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.4 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio kidegoen eta eskalen azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa betez.

eek: BAO-2023a075

d) Fase horretan merezimenduak honela baloratuko dira:

d.1.) Lan-esperientzia

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia baloratuko da funtzionalki antzekoak diren lanpostuei lotutako plazak eskuratzeko.

— Deialdia egin duen erakundean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.

— Gainerako administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko agiriaren kopia soil bat aurkeztuta alegatu beharko dira. Aipatutako dokumentuak, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduan, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, plazari lotutako lanpostuaren taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, mota edo kategoria eta izena zehaztuz.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak zenbat denbora egon diren senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran; zenbat denbora egotz dakiekeen amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei; zenbat denbora eman duten bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren kontziliazio erantzunkidea errazten; baita langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluaren arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

d.2.) Titulazioak.

Titulazioen alegazioa, bai betekizun gisa bai merezimendu gisa, dagokion izapidean aitortuta egingo da, 7.2 puntuan xedatutakoaren arabera.

Atzerriko titulazioen kasuan, tituluaren kopia soila ere aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiriarena ere, epaimahai kalifikatzaileak hala eskatzen dionean.

d.3.) Hizkuntzak.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratuko. Errege-dekretu horrek, oinarrizko izaerarekin, hainbat ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen eta errege dekretukoen arteko baliokidetzak ezartzen ditu, betiere deialdiko plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin zerikusia badute.

— Hizkuntza-eskola ofizialek emandako tituluak eta ziurtagiriak merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

— Beste erakunde batzuek emandako tituluak eta ziurtagiriak. Aitorpenaz gain, egiaztagiriaren kopia soila aurkeztu beharko da.

d.4.) Informatika-ezagutzak.

Informatikako ezagutzak IT Txartela ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

Lehiaketa-fasearen balorazioa deialdiko merezimenduen baremoaren arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du.

10. Oposizio faseko ariketen garapena

10.1. *Argitalpena*

Oposizio fasearen lehen ariketa egiteko eguna, data eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaleko iragarkien oholean eta web orrian argitaratuko dira, hautapen prozesuko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera,

eek: BAO-2023a075

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Oposizioko gainerako ariketen iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu udalaren iragarkien oholean eta web orrian. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino gutxienez 48 ordu lehenago jakitera eman beharko dira.

10.2. *Deialdia*

Hautagaiei ariketa bakoitza egiteko behin deituko zaie, eta deituak izan diren unean ez badira ariketara aurkezten, automatikoki galduko dute dagokion ariketan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta horren ondorioz, hautaketa prozeduratik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak libreki onartutako kasuetan izan ezik. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketetako edozein egiten hasiak direnean bertaratzen diren hautagaiei. Borondatezko probak egitera joan ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

10.3. *Jarduteko hurrenkera*

Hautagaiek jarduteko hurrenkera herri-administrazioetarako estatu-idazkaritzak egin behar duen zozketaren emaitzen araberakoa izango da, izan ere, halaxe izan behar dela xedatu da 364/1995 Errege Dekretuko 17. artikuluan. Zozketan ateratzen den hizkiarekin hasten den lehen abizena duen izangairik ez badago, jarduketa ordena hurrengoen arabera gauzatuko litzateke.

10.4. *Identifikazioa*

Kalifikazio epaimahaiak eta bere laguntzaileek edonoiz eskatu ahal izango diete hautagaiei behar den moduan identifikatzeko. Hala, hautagaiek NAN agiria eraman beharko dute oposizioko ariketa guztietara, edo bestela, epaimahaiaren iritziz beraien nortasuna behar den moduan egiaztatzen duen beste edozein agiri (pasaportea, gidabaimena, Atzerritarren nortasun zenbakia eta abar).

10.5. *Ariketen arteko denbora*

Oposizioaren ariketa bakoitza bukatzen denetik hurrengoa hasi arte 72 ordu igaroko dira gutxienez eta 45 egun gehienez. Hala ere, epaimahaiak egokitzat jotzen badu, saio bakarrean hainbat ariketa aldi berean egin ahal izango ditu, eta hautagaientzat egokitzat jotzen dituen ariketak irakurri ahal izango ditu eta argitaratu egingo da eta epaimahaiak esandako egunetan eta orduetan gauzatuko da, eta kasu horretan 48 ordu aurretik jendaurrean esan beharko du.

11. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioak

11.1. *Emaitzak argitaratzea*

Ariketetako puntuazioak udaletxeko iragarki oholean eta web orrian argitaratuko dira, epaimahaiak kalifikazioa erabaki eta hurrengo 24 orduen barruan.

11.2. *Oposizio faseko ariketen kalifikazioa*

Oposizioko ariketa bakoitzaren kalifikazioak ateratzeko orokorrean epaimahaiko kideen puntuazioak batu eta emaitza hori epaimahaikide kopuruarekin zatitu beharko da; zatiketa horren zatidura hautagai bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da. Hala ere, epaimahaiak erabaki ahal izango du kalifikaziorik altuena eta baxuena baliogabetzea, edo hala badagokio, aurrekoen gisa errepikatuta dagoena deuseztatzea, baldin eta ikusten badute gehiegizko desbideratzea dagoela gainerako kideen batez besteko kalifikazioarekiko. Modu horretan lortuko dute kalifikazio orokorra homogeneoagoa izatea.

11.3. *Lehiaketa faseko merezimenduak baloratzea*

Oposizio fasea bukatu eta gero merezimenduen behin-behineko balorazioa egingo da, eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako betekizunak eta merezimenduak aintzat hartuta.

eek: BAO-2023a075

Ondoren, eta Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat etorriz, 10 egun balioduneko epea emango da eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean jasotako eta baloratu ez diren merezimenduak zuzentzeko, eta horrela, behin-behineko lehentasun-ordena lortzeko.

Inolaz ere ezingo dute epe hori erabili eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean jaso ez zituzten merezimendu berriak sartzeko.

Zuzenketak egiteko fasea bukatzen denean epe berri bat irekiko da behin-behineko kalifikazioan puntuaziorik handiena eskuratu duten hautagaiek adierazitako merezimenduak eta betekizunak egiaztatzeko, eskainitako plaza kopurua bete arte, edo hala badagokio, dagokion lan poltsako gehieneko pertsona kopurua bete arte, oinarri espezifikoetan ezarritako terminoetan.

Inolaz ere ez dira baloratuko eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean jaso ez diren merezimenduak. Adierazitako merezimenduak epearen barnean egiaztatu beharko dira, salbuetsiz hautagaiak aurretik Lanbide Ekimenak Zentroan lan egin izana eta udaleko langileen erregistroan egotea. Kasu horretan, egiaztapena ofizioz egingo da.

Oposizio fasea gainditu dutenen lehiaketa merezimenduen balorazioa esleitutako puntuen baturak zehaztuko du, deialdiaren oinarri espezifikoetako baremoak errespetatuz.

11.4. *Azterketak berrikustea eta kalifikazioak erreklamatzea*

Orokorrean bost egun balioduneko epea egongo da epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita egindako azterketak berrikustea eskatzeko edo kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak ebatzi eta gero kalifikazio epaimahaiak plaza eskuratu duten hautagaien behin betiko zerrenda onetsiko du puntuazio ordenaren arabera, eta udaleko iragarkien oholean eta web orrian argitaratuko da.

11.5. *Azken kalifikazioa eta lehentasun hurrenkera*

Azken kalifikazioa eskuratzeko oposizio faseko eta lehiaketa faseko puntuazioak batuko dira (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura), eta horrek zehaztuko du hautagaien lehentasun hurrenkera.

11.6. *Lehentasun klausula*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua), trebakuntza-berdintasuna badago, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkaritza %40tik beherakoa den eskaletan, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak baditu, sexuagatiko bereizkeriarik egiten ez dutenak, hala nola enplegua lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Ondorio horietarako, hautagaien trebakuntza berdina dela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, dagozkion merezimenduak batu ondoren.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan, deialdia egin duen udalak erabakiko du artikulu horretan xedatutakoa aplikatuko den ala ez, dagokion eskalan/azpieskalan/motan edo kategorian emakumeen ordezkaritzan oinarrituta.

11.7. *Berdinketa hausteko irizpideak*

Aurreko 11.6 apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, berdinketarik gertatuz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, zerbitzu-denbora gehien eman duen izangaiaren alde egingo da, deialdia egin duen erakundean, deitzen den eskala, azpieskala eta/edo kategoria berean; bigarrenik, deialdia egin duen erakundean zerbitzu-denbora gehien

eek: BAO-2023a075

eman duena hartuko da kontuan; hirugarrenik, beste administrazio batzuetan zerbitzuak luzeen eman dituena eta, azkenik, berdinketak iraunez gero, zozketa sistemara joko da.

12. Destinoa aukeratzea

Deialdi bakoitzerako izangaien behin betiko kalifikazioa egin eta argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea ezarriko da destinoa aukeratzeko.

12.1. *Parte-hartzaileak*

Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetan parte hartzeko deia egingo zaie epaimahaiak deialdi, txanda eta hizkuntza-eskakizun bakoitzeko zehazten duen lehentasun-hurrenkera bera edo txikiagoa dutenei. Kopuru horrek bermatu beharko du hautatuko diren plaza guztiak esleituko direla.

Prozesu honetan parte hartzera deitutako pertsonen izen-zerrendak epaimahai kalifikatzaileak behin betiko kalifikazioei buruz emandako ebazpenean sartuko dira, eta 5. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera destinoa garaiz eta behar bezala aukeratzen ez dutenek.

12.2. *Eskainitako plazen zerrenda*

Eskala/azpieskala/mota edo kategoria bakoitzerako eskainitako plazen zerrendan honako hau adieraziko da:

lotutako lanpostuaren izena, esleitutako destino-mailako osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data eta lanpostuaren berariazko baldintzak.

12.3. *Destinoak hautatzeko eskabideak*

Lanpostuak bide elektronikoz aukeratzeko, Gernika-Lumoko udalaren web orrian dagoen inprimakia bete beharko da (www.gernika-lumo.eus),

12.4. *Hautatutako lanpostuen hurrenkera*

Destinoa hautatzeko prozeduran parte hartzera deitutako pertsonek, 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren prozesuan, lanpostuen zerrenda bakarra egingo dute, eta bertan, euren lehentasunen arabera, hizkuntza-eskakizunaren arabera eta, hala badagokio, lanpostuei esleitutako berariazko betekizunen arabera eskaintzen zaizkien plazei lotutako lanpostuak ordenatuko dituzte.

13. Destinoak esleitzea

Zerrenda bat egingo da deialdi bakoitzeko eta, horren barruan, eskainitako plazen hizkuntza-eskakizun bakoitzeko, handitik txikira ordenatuta, prozesuan lortutako puntuazio osoaren arabera. Zerrenda horren ordena erabakigarria da destinoak esleitzeko, 10.5 oinarrian aurreikusitakoa izan ezik.

14. Hautatutako pertsonen zerrenda

Destinoak aukeratzeko epea amaituta, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, izangai bakoitzaren puntuazio-ordena eta adierazitako lehentasunak kontuan hartuta. Zerrenda hori Udalburutzaren ebazpen bidez argitaratuko da, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, eta 10 egun balioduneko epe komuna ezarriko da erreklamazioak egiteko eta izangaiek eskatutako lanpostuetako berariazko baldintzak zuzentzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, Bizkaiako aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta bertan adieraziko da hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin betiko zerrendak 5. oinarrian adierazitako lekuetan egongo direla ikusgai.

eek: BAO-2023a075

15. Dokumentuak aurkeztea

Proposatutako izangaiak udal deitzailearen erregistroan aurkeztu beharko ditu deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzen egiaztagiriak, 20 egun baliodunen buruan, gaindituen zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita:

1. Kargu publikoak betetzeko gaitasuna dutela eta Herri administrazioaren zerbitzutik kanpo diziplinazko espedienteengatik geratu ez direla frogatzeko aitorpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunik ez daukala adierazten duen aitorpena.
3. Mediku-ziurtagiria, udalbatzak zehazten dituen zerbitzu medikoek emana, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.
4. Deialdiaren oinarrietan eskatutako gainerako berariazko baldintzei buruzko frogagiriak, fotokopiaren bidez.

Adierazitako dokumentuak aurkezteko ezintasuna behar bezala justifikatzekotan, hautagaiak deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ahalko du zuzenbidean onar daitekeen edozein frogaren bidez. Funtzionario publikoak edo lan- kontratuko langileak salbuetsita egongo dira aurreko izendapena lortzeko frogatutako baldintzak eta betekizunak agiri bidez justifikatzetik, eta Ministerioaren, autonomia erkidegoko administrazioaren, toki-udalbatzaren edo haien mendeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, haien egoera eta zerbitzu-orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatuz. Arestian aipatutako epean, ezinbesteko arrazoien kasuan izan ezik, proposatutako hautagaiak dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ez da izendatuko eta jarduera guztiak baliorik gabe gelditu dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean azaldutako faltsukeriarengatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

16. Kontratazioa edo izendapena, lanpostuaren atxikipena eta lanpostuaz jabetzea

16.1. Epaimahaiak egindako proposamena eta izangaiak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, baldin eta oinarriek diotenarekin bat badatoz, Alkatetzak hautaketa-prozesua arrazoituta ebatziko du, eta, hala badagokio, gainditu duten izangaiak kontratatu edo izendatuko ditu. Izenpetuko den lan-kontratuak probaldia izango du. Funtzionarioentzat gordetako plazen kasuan, praktiketako funtzionario gisa izendatuko da, praktika aldi bat baitu, 15. oinarrian ezarritakoaren arabera.

16.2. Izendapen- edo kontratazio-ebazpenak lanpostuari atxikitzea ere jasoko du, eta behin-behineko izaera izango du, probaldia edo praktika aldia aurreikusten baita, 15. oinarrian ezarritakoaren arabera.

16.3. Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, legez ezarritako zina edo agintza egiteko eta udalbatzako idazkariaren aurrean karguaz jabetzeko. Zinik edo agintaritzarik ez egiteak edo karguaz ez jabetzeak eskubide guztiak galtzea ekarriko du, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

17. Probaldia edo praktika aldia

17.1. Praktika aldi bat ezarriko da funtzionario lanpostuetarako, eta probaldi bat lan-kontratuko langileen plazetarako, kasu zehatz bakoitzean. Kasu horretan, eta aldi horrek dirauen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutakoak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak negoziazio kolektiboko indarreko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera jasotzeko eskubidea izango du. Probaldia edo praktika aldia udal egoitza berean egingo da, Alkatetzak izendatutako karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izango den pertsona baten (edo ebaluazio-batzorde baten) tutoretzapean.

eek: BAO-2023a075

17.2. Probaldiaren edo praktika aldiaren iraupena hemen adierazten dena izango da, taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekotzat jotzen den lanbide-talde edo -kategoriaren arabera:

a) A eta B taldea: 6 hilabete.

b) C taldea: 3 hilabete.

c) Lanbide-taldeak: 3 hilabete.

17.3. Aldi horretan, tutore izendatuak (edo ebaluazio-batzordeak) ahalegina egin beharko du izangaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta dagozkion funtzioak arian-arian bere gain har ditzan.

17.4. Aldi hori amaitutakoan, tutoreak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du izangaiek probaldia edo praktika aldia gainditu duten. Gainditzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan-kontratu finkoa formalizatuko dute. Bestela, Udalburutzaren ebazpen arrazoitu bidez ez-gaitzat joko dira, aldez aurreko entzunaldi-izapidearekin, tutorearen (edo ebaluazio- batzordearen) txostena ikusita, eta ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eta lan-kontratuko langile finko kontratatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

17.5. Karrerako funtzionario izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta legez ezarritako beste edozein lekutan argitaratuko da.

18. Epaimahaia

18.1. *Osaera*

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: epaimahaiburu batek, epaimahaikide kopuru bakoiti batek, hiru kidek edo gehiagok osatuta, eta idazkariak, eta horien ordezkoek.

Trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango da epaimahaietan, salbu eta hori egokia ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ordezkaritza orekatutzat jotzen da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

Epaimahaiak komeni dela uste badu, aholkua eskatu ahal izango die adituei. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoaren alorreko aholkularitza eman besterik ez dute egingo, epaimahaiarekin lankidetzan ari direnean.

Egokitzat jotzen den kasuetan, eta deitutako plazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatzeko, hautagaiek alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak Erakunde deitzaileko teknikarien laguntza izan ahal izango du, behar dituen gai teknikoetarako.

Epaimahaikide-lana norberak egingo du beti, eta ezin izango da inoren izenean edo inoren ordezkari modura jardun.

18.2. *Izendapena*

Epaimahaikideak Udalburutzak izendatuko ditu. Izendapenak 5. oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

18.3. *Abstentzioa eta ezespena*

Epaimahaiko kideek ezin izango dute prozesuan parte hartu Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako kasuetan; eta, orduan, Alkatetza/Udalburutzari jakinarazi beharko diote. Horrez gain, ezin izango dute parte hartu baldin eta deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetan parte hartuko duen hautagairen bat prestatzen jardun badute.

Aurreko kasuren bat gertatzen denean ere, interesdunek epaimahaikideak ezetsi ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

eek: BAO-2023a075

18.4. *Jarduteko arauak*

Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.-18. artikuluetan jasotakoaren arabera jardungo du. Epaimahaiburuak aginduta, idazkariak bilerarako deia egingo du, eta epaimahaia prozesuak hasi baino behar beste denbora lehenago bilduko da. Epaimahaiaren osaera balioduna izateko, ezinbestekoa da epaimahaiburua eta idazkaria (edo, hala dagokionean, beren ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzea.

Epaimahaikideek hitza eta botoa izango dute, idazkaritzan diharduenak izan ezik, azken horrek hitza izango baitu, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengo bidez hartuko dira. Epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo bere ordezkoa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo bestelako lege-arrazoiren bat dagoelako, antzinatasun handiena duen edo adinez zaharrena denak hartuko du haren lekua, hurrenkera horretan.

Idazkari titularraren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularrari zein ordezkoari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haien kargua.

18.5. *Ahalmenak*

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jokatuko du, eta bera izango da prozeduraren gardentasun eta objektibotasunaren, proben eduki eta konfidentzialtasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat, batetik, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako, behar diren irizpideak ezarriko ditu.

18.6. *Egoitza*

Epaimahaiari erreklamazioak elektronikoki egingo zaizkio, www.gernika-lumo.eus web orrian eskuragarri dagoen inprimakia beteta.

Halaber, 6 oinarrian, adierazitako erakunde deitzailearen bulegoetara joz bete ahal izango dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztuz.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak helbide hau izango du: Alhondiga 6, Gernika-Lumo.

18.7. *Zerbitzuagatiko kalte-ordainak*

Epaimahaikideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren zerbitzuagatik, bai eta bertaratzeagatik ere, arlo honetako indarreko arautegiarekin bat etorriz.

Era berean, epaimahaiari aholkularitza ematen dioten pertsonek edo epaimahaiari zaintza edo laguntza materialeko lanetan laguntzen diotenek kalte-ordainak jasoko dituzte.

19. Gorabeherak, aurkaratzeak

Epaimahaiak ahalmena izango du agertzen diren zalantzak ebazteko eta prozesua behar bezala egiteko eta ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez. Deialdi honen, dagozkion oinarrien eta honetatik edota epaimahaiaren jardunetik sortutako administrazio-egintza guztien aurka egin ahal izango dute interesdunek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluak ezartzen dituzten kasuetan eta moduan.

eek: BAO-2023a075

20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, A2 ESKALAKO IRAKASLE SOZIOLABORALA (ZIENTZIAK) AZPIESKALARI DAGOKIONA

1. Deitutako plazak

A2 azpieskalako Irakasle Soziolaborala (Zientziak) Erdi-Mailako Teknikaria plazarako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Hizkuntza eskakizuna	Lanaldia
1	IRASKALSE SOZIOLABORALA (ZIENTZIAK)	3. HE (derrigortasun data 1994/12/31)	Denbora partziala, jardunaldiaren %65

2. Parte hartzeko eskakizunak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez titulazio hauek eskatzen dira: Zientzia Esperimentalen eta Osasunaren Zientzien arloko edo Irakaskuntza Teknikoen arloko

Lizentziaduna edo Ingeniaria, edo Osasun Zientzien edo Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren jakintza- adarreko edozein titulu ofizial graduatu.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1. Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 3. hizkuntza eskakizunak betekizun izan ahalko dira. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.

3.2. Era berean, deialdi honen muina diren plazei lotutako lanpostu jakin batzuek berariazko honako betekizun hauek izan ditzakete esleituta:

— IGA edo DBHko, Batxilergoko, Lanbide-Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate-Masterra egiaztatzea.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea.

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.

4.1.1. Lehen proba.

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

— A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

— B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi espezifikoaren ingurukoak izango dira.

Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). Kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 7. apartatuan aipatutako lekuetan.

eek: BAO-2023a075

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da nahitaezko 3 hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaientzat, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da nahitaezkoa ez den 3 hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituztenentzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Gernika-Lumoko Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara- maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 3 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3. Proben garapena.

9.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta eskabideetako akatsak zuzentzeko izapidea amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du behin betiko onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzeko, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz. Adierazpen hori Bizkaiako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Lanbide-Ekimank Zentroko iragarki-taulan eta www.gernika-lumo.eus webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetako erantzukizunpeko adierazpenekodatuen arabera egingo da.

Zerrendetan honako hauek jasoko dira: hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, baita prozesutik kanpo geratzen diren pertsonak ez onartzeko arrazoia ere.

Gainera, zerrenda horietan argitaratuko da, behin-behinean, Autobalorazio Formularioan lortutako puntuazio osoa, hautagai bakoitzakbehar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta daudenak) zehazteko.

9.2. Onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen Alkatetzarenebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Lehendakaritzari, hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialeanargitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2023a075

Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, baita euskara-proba egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta baldin eta egun horretarako errekurtsoa ebatzi ez bada.

Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsoa ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara-proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

9.3. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Azkenean pertsona hautatua izango balitz, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat ez dutela ondorioztatzen bada,prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duten hautagaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek egindako zehaztasun ezak edo faltsutasunak jakinarazi beharko dizkio.

10. Hautaketa-prozedura

10.1. Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapengehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi honetan. Txanda bat egongo da: librea, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa honetan, Auto Balorazioko Formularioan (III. Eranskina) alegatu eta aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko ditu Epaimahai

Kalifikatzaileak, hamargarren oinarri honetan eta deialdi

bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera horrela definitutako eskabide-kopurua aintzat hartuta.

Alkatetzaren onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda Auto Balorazioaren Formularioan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide- kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak) zehazteko, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera eta kategoria bakoitzerako deitutako plazen arabera, honako eskala honen arabera:

— Deitutako 5 plaza edo gutxiago: deitutakoplazak bider 5.

— Deitutako 5 plaza baino gehiago etagehienez 10: deitutako plazak bider 4.

— Deitutako 10 plaza baino gehiago: deitutakoplazak bider 3.

Aurrekoari kalte egin gabe, hautagai-zerrenda bideragarririk ez badago, Alkatetzaren onarpen, bazterketa eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduketa hori bertan agertzen den puntuazio-ordena zorrotza errespetatuz egingo da.

Eskaera-orrietan jasotako merezimenduakneurtzeko eskalak barnean hartuko ditu hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten pertsonak, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa den lanpostuetan. Baina kasuan kasuko euskara-azterketa egiteko izena eman badute eta azterketa gaindituz egokituko litzaiekeen puntuazioa adierazita. Derrigortasunik gabeko plazen kasuan ere egokituko litzaiokeen puntuazioa emango zaio.

Nolanahi ere, alegatzen eta aurkezten diren merezimenduak zenbatzeko erreferentziazko azken data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

10.2. Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanposturen bat duten lanpostuen kasuan, salbu eta hizkuntza- eskakizuna egiaztatuta badute, eta borondatezkoa eta ez baztertzailea gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzailea gainditzen

eek: BAO-2023a075

edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa- prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten plazetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Euskara-azterketa egin ahal izango dute prozesuan parte hartzen duten pertsonek, baldin eta lehiaketa-fasean oinarri espezifikoetan adierazitako gutxieneko puntuazioa lortu badute.

Gernika-Lumoko Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa- prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen- salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa), salbuespen hori Euskara Tituluen etaZiurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira, ezingo dira aukera horretaz baliatu eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, 47/2012Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenenkasuan.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz baimena emango dio Gernika-Lumoko Udalari egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen etaZiurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, esteka honen bidez:

— https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta. ziurtagirien-erregistro- bateratua/web01- a2etzeb/eu/

Deialdiko euskara-azterketa egin arte egiaztatuahal izango da lortutako hizkuntza-eskakizuna.

Eta eskabidean hala eskatu dutenek bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

10.3. Lehiaketa-fasearen kalifikazioa Deialdiko merezimenduen baremoaren araberaesleitutako puntuen baturak zehaztuko du lehiaketa-fasearen balorazioa.

10.4. Lehentasun-klausula.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, (martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatu duena), trebakuntza. berdintasuna badago, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkaritza %40tik beherakoa den eskaletan, salbu eta beste hautagaiak sexuaren ziozko diskriminaziorik ez dakarten arrazoiak dituenean, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen badute, hala nola enplegua lortzeko eta sustatzeko zailtasunbereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Horretarako, hautagaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa- prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, dagozkion merezimenduak batu ondoren.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan, deialdia egin duen udalak zehaztuko du artikulu horretan xedatutakoa aplikatuko den ala ez, dagokion eskala/azpieskala/klasean edo kategorian emakumeek duten ordezkaritzan oinarrituta.

10.5. Berdinketa hausteko irizpideak.

Aurreko 10.4 atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, gainera, berdinketak gertatzen badira, ordena ezartzeko kontuan hartuko da, lehenik eta behin, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenhautagaiaren alde, deitzen den eskala, azpieskala edota kategoria berdinetan; bigarrenik, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da.

eek: BAO-2023a075

10.6. Prozedura eta erreklamazioak. Merezimenduak baloratu ondoren, epaimahai-kalifikatzaileak behin-behineko kalifikazioak argitaratzeko aginduko du, deitutakolanpostuen hizkuntza- eskakizuna kontuanhartuta.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, etaaurkeztutakoak ebatzita, epaimahai kalifikatzaileak argitaratzeko agindua emango du, eta alkatetzara bidaliko ditu gaindituakoen azken kalifikazioak eta eskainitako lanpostuak. Deitutako eskala edo kategoria bakoitzeko gaindituen behin betiko zerrendak argitaratukodira, deitutako lanpostuen hizkuntza. eskakizuna kontuan hartuta. Zerrenda horietanhautagai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, lehentasun- klausula etaberdinketa hausteko irizpideak aplikatuta.

11. Destinoa aukeratzea

Deialdi bakoitzerako hautagaien behin betiko kalifikazioa egin eta argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea ezarriko da destinoaaukeratzeko.

11.1. Parte-hartzaileak.

Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetan parte hartuko duten pertsonak izango dira deialdi, txanda eta hizkuntza-eskakizun bakoitzeko epaimahaiak zehazten duen lehentasun-hurrenkera bera edo txikiagoa dutenak. Kopuru horrek ziurtatu beharko du hautatutako plaza guztien esleipena.

Prozesu honetan parte hartuko dutenpertsonen zerrenda nominalak behin betiko kalifikazioei buruzko epaimahai kalifikatzailearen ebazpenean sartuko dira, eta 6. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

11.2. Hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte destinoa oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera garaiz eta moduan aukeratzen ez dutenek.

Eskainitako plazen zerrenda Eskala/azpieskala/kategoria bakoitzerakoeskainitako plazen zerrendan honako hau adieraziko da: lotutako lanpostuaren izena, esleitutako destino-osagarriaren eta berariazkoosagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun- data eta berariazko betekizunak.

11.3. Destinoak aukeratzeko eskaerak.

Lanpostuak elektronikoki aukeratzeko, Gernika- Lumoko udalaren web orriko (www.gernika-lumo.eus) inprimakia bete beharko da.

11.4. Aukeratutako lanpostuen antolamen-dua. 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan destinoa aukeratzeko prozeduran parte hartzera deitutako pertsonek lanpostu-zerrenda bakarra egingo dute, eta, bertan, beren lehentasunen arabera, eskainitako plazei lotutako lanpostuak ordenatuko dituzte, hizkuntza-eskakizunaren eta, hala badagokio,lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoen arabera.

12. Destinoak esleitzea

Zerrenda bat egingo da deialdi bakoitzeko, eta, horren barruan, hizkuntza- eskakizun bakoitzeko eskainitako lanpostu bakoitzeko, prozesuan lortutako guztizko puntuazioarenarabera ordenatuta, handienetik txikienera. Zerrenda horren ordena erabakigarria izango da destinoak esleitzeko, 11.5 oinarrian aurreikusitakoa izan ezik.

13. Hautatutako pertsonen zerrenda

Destinoak aukeratzeko epea amaitutakoan, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, hautagai bakoitzarenpuntuazio-ordena eta adierazitako lehentasunak kontuan hartuta. Zerrenda hori Alkatetzaren/Lehendakaritzaren ebazpen bidez argitaratuko da, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da erreklamazioetarako eta hautagaiek eskatutako lanpostuen baldintza bereziak zuzentzeko.

eek: BAO-2023a075

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, ebazpena Bizkaiako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialeanargitaratuko da, eta bertan adieraziko da hautatutako pertsonen eta esleipenaren xedediren lanpostuen behin betiko zerrendak 6. oinarrian adierazitako lekuetan egongo direlaikusgai.

14. Dokumentuak aurkeztea

Proposatutako hautagaiak deialdiko Oinarrietan eskatzen diren hautaketa- prozesuan parte hartzeko baldintzen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, 20 egun balioduneko epean, gainditutakoen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen adierazpena.
3. Korporazioak zehazten dituen zerbitzu medikoek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.
4. Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoen fotokopia konpultsatua aurkeztea.

Adierazitako agiriak aurkeztea ezinezkoa bada, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izango du hautagaiak, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz. Funtzionario publiko edo lan- kontratuko langile denak ez ditu agiri bidez justifikatu beharko aurreko izendapena lortzeko egiaztatutako baldintzak eta betekizunak. Ministerio, administrazio autonomiko, toki- korporazio edo menpeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, bere izaera eta bere zerbitzu-orrian jasotako inguruabarguztiak egiaztatuz. Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako hautagaiak ez badu bere dokumentazioa aurkezten edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango da izendatu, eta bere jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe, eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko du.

15. Kontratazioa edo izendapena, lanpostua atxikitzea eta lanpostuaz jabetzea

15.1. Epaimahaiak egindako proposamena eta hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, oinarri hauek xedatzen dutenarekin bat badatoz, Alkatetzak arrazoituta ebatziko du hautaketa-prozesua, gainditu duten hautagaiak kontratatuz edo izendatuz, dagokionaren arabera. Izenpetuko den lan-kontratuak probaldia izango du. Funtzionarioentzat gordetako plazen kasuan egingo den izendapena praktiketako funtzionario gisa egingo da, praktikaldi bat duelako, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera.

15.2. Izendapen- edo kontratazio-ebazpenak lanposturako atxikipena ere jasoko du, eta behin-behineko izaera izango du, harik eta probaldia edo praktikaldia aurreikusten den arte, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera.

15.3 Funtzionario izendatutako hautagaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena Bizkaiako lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zina edo promesa egiteko eta korporazioko idazkariaren aurrean karguaz jabetzeko. Zina egin edo hitza ez emateak edo karguaz jabetzeak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskubide guztiak galtzea ekarriko du.

16. Probaldia edo praktikaldia

16.1. Praktikaldi bat ezarriko da funtzionarioen plazetarako, eta probaldia lan- kontratuko langileen plazetarako kasu zehatz bakoitzean. Kasu horretan, eta aldi horrek irauten duen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutakoak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, indarrean dauden negoziazio kolektiboko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera. Probaldia edo praktikaldia egoitza korporatibo berean egingo da, pertsona baten tu-

eek: BAO-2023a075

toretzapean (edo batzorde ebaluatzaile baten tutoretzapean). Pertsona horrek karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izan beharko du, Alkatetzak izendatua.

16.2. Probaldiaren edo praktikaldiaren iraupena jarraian adierazitakoa izango da, dagokion taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekatutako lanbide-talde edo -kategoriaren arabera:

a) A eta B taldeak: 6 hilabete.

b) C taldea: 3 hilabete.

c) Lanbide-taldeak: 3 hilabete.

16.3. Aldi horretan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio-batzordeak) ahaleginak egin beharko ditu hautagaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta arianarian dagozkion funtzioak bere gain har ditzan.

16.4. Aldi hori amaitutakoan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio- batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du hautagaiekprobaldia edo praktikaldia gainditu duten. Gainditzen dutenak karrerako funtzionarioizendatuko dira edo lan-kontratu finkoa formalizatuko dute. Bestela, ez- gaitzat joko diraLehendakaritzaren ebazpen arrazoituaren bidez, eta aldez aurretik entzunaldia emango zaie, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusita. Ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eta lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

16.5. Karrerako funtzionarioaren izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta legez ezarritako beste edozein aldizkaritanargitaratuko da.

17. Epaimahaia

17.1. *Osaera*

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: lehendakari batek, hirutik gorako batzarkide- kopuru bakoitiak, Idazkariak eta horien ordezkoek.

Epaimahaiaren osaera orekatua izan behar da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean. Horrela ez osatzekotan behar bezala justifikatu beharkoda. Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza duenean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako etaemakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

Epaimahaiak, egoki baderitzo, espezialisten aholkularitza izan dezake. Pertsona horiek, epaimahaiarekin lankidetzan, beren espezialitate teknikoei buruzko aholkularitza besterik ez dute emango.

Egokitzat jotzen den kasuetan, eta deitutakoplazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatzeko, hautagaiek alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak erakunde deitzaileko teknikarien laguntza eduki ahal izango du, behar dituen gaiteknikoetarako.

Epaimahaietako kidea norbere izenean izango da eta ezin izango da izan inoren ordezkari edoinoren kontura.

17.2. *Izendapena*

Alkatetzak/Lehendakaritzak izendatuko ditu epaimahaikideak. Izendapenak 6. oinarrianaurreikusitako moduan argitaratuko dira, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendarekin batera.

17.3. *Abstentzioa eta errefusatzea*

Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, alkatetzari/lehendakaritzari jakinarazita,-Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeretan, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetan parte hartzeko hautagaiak prestatzeko lanakegin badituzte.

eek: BAO-2023a075

Era berean, aurreko kausetako bat gertatzen denean, interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte epaimahaiko kideak, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluanezarritakoaren arabera.

17.4. *Jarduteko arauak*

Auzitegiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura zehaztutako arauetara egokituko du bere jarduna. Nolanahi ere, idazkariak deialdia egin ondoren, lehendakariak hala aginduta, prozesuak hasi baino lehen bilduko da, eta, eratzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria, edo, hala badagokio, horien ordezkoak, eta kideen erdiak, gutxienez, bertaratzea.

Epaimahaia osatzen dutenek hitza eta botoa izango dituzte, idazkari denak izan ezik, hitza izango baitu, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehendakariarenkalitatezko botoaren bidez ebatziko dira.

Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, lehendakariaren eta haren ordezkoaren lekua antzinatasun eta adin handieneko batzordekideak hartuko du, hurrenkera honetan:

Idazkariaren eta haren ordezkoaren ordezkapena, baldin eta kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo eragiten dien legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaiak gehiengoz aukeratutako kideak beteko du.

17.5. *Ahalmenak*

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, eta prozeduraren gardentasunaz eta objektibotasunaz, proben edukiaz eta konfidentzialtasunaz eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzeaz arduratuko da.

Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, horietan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez hartu beharreko irizpideak ezarriz.

17.6. *Egoitza*

Epaimahaiari erreklamazioak elektronikokiegingo zaizkio, (www.gernika-lumo.eus) web orriko inprimakia beteta.

Era berean, deialdia egin duen udalaren bulegoetara joan ahal izango dira (7. oinarrian adierazitakoak), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztu ahal izango dira.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Alhondiga kalea, 6 (Gernika-Lumo) an izango du egoitza.

17.7. *Zerbitzuagatiko kalte-ordainak*

Epaimahaiko kideek zerbitzuagatiko kalte- ordainak jasoko dituzte, bertaratzeenak barne, gai horri buruz indarrean dagoen araudiarenarabera.

Era berean, epaimahaiari aholkularitza ematen dioten pertsonek edo epaimahaiari zaintza edo laguntza materiala ematen laguntzen diotenek kalte- ordainak jasoko dituzte

18. Gorabeherak, aurkaratzeak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta prozesua behar bezala eta era egokian garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian. Interesdunek deialdiaren, harenoinarrien eta haren eta Auzitegiaren jarduketen ondoriozko administrazio-egintza guztien aurka egin ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

eek: BAO-2023a075

IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA, GERNIKA-LUMOKO LANBIDE EKIMENEKO, LAN- KONTRATUDUN, ADMINISTRARI PLAZA BATERI DAGOKIONA

1. Deitutako plazak

Gernika-Lumoko Behargintzarako C1 azpieskalako Administrari plaza baterako deialdia egiten da, lan-kontratuduna, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)
1	ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO/A	3. HE (derrigortasun data 2004/12/22)

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. Oinarrri orokorretako 2.h) atalean xedatutakoari dagokion, batxiler-titulua edo baliokidea izatea edo lortzeko moduan egotea eskatzen da.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1. Deialdi honen xede den plazari lotutakolanpostuan, 3. hizkuntza-eskakizuna bete beharko da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiekeskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzaridagozkion puntuak esleituko zaizkio,merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretanpuntuazioaren arabera ordenatutako instantzia- kopurua bakarrik baloratuko da. Lehiaketa ez da baztertzailea izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea,oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea, lotutako lanpostuak dituzten, 3. hizkuntza- eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaientzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararenezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte- hartzaileak baimena emango dio berariazGernika-Lumoko Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako

eek: BAO-2023a075

ikasketa ofizialakonartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimen. duen baremoaren arabera esleitutako puntuenbaturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa. prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu- poltsarik sortuko.

eek: BAO-2023a075

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) *Esperientzia: gehienez 80 puntu*

a.1. Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokorra da edozein administrazio

publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario- izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Administrari plazan, C1 azpitaldean, edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioa barne, egindako zerbitzuengatik: 0,02740 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa.

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

— Deialdia egin duen Administrazioan C1 azpitaldeko administrari plazan egindako zerbitzuengatik, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) *Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei*

b.1. Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero: 10 puntu.

— C1: Unibertsitate-graduko titulazioa edobaliokidea (MECES 2. maila).

b.2. Plaza lortzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (baldintza gisa egiaztatutakoaz bestelakoa), betiere titulazioak deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero: 7,5 puntu.

b.3. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,500 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero.

b.4. Deialdia egin duen administrazioan lanpostuak bitarteko edo aldi baterako betetzeko prozeduraren oposizio-fasea gainditzeagatik, C1 azpieskalako Administrari lanposturako, betiere deialdi hori dagokion aldizkari ofizialean argitaratu bada: 10 puntu.

b.5. Informatikako ezagutzak.

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010oinarrizkoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010oinarrizkoa.

— Oinarrizko Internet.

eek: BAO-2023a075

— Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010aurreratua.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010aurreratua.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

— Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

eek: BAO-2023a075

I. ERANSKINA /ANEXO I

ESKABIDEAK ESKATZEKO FORMULARIOA / FORMULARIO DE SOLICITUD DE INSTANCIAS

Garrantzitsua: Datuak jaso aurretik, kontsultatu jarraibide orokorrak.

Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones generales.

Lanpostuaren Izena/ Nombre puesto:

1 - Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud

Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

IFZ / NIF

Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social

Jaioteguna / Fecha nacimiento

Sexua / Sexo

Herritartasun nagusia / Nacionalidad principal

Jaiotze-udalerria / Localidad de nacimiento

Harremanetarako datuak / Datos de contacto

Telefono mugikorra / Teléfono móvil

Posta elektronikoa / Correo electrónico

Telefono finkoa / Teléfono fijo

Lehentasunezko hizkuntza / Idioma preferente

2 - Jakinarazpenen bidea aukeratzea / Seleccionar medio de notificaciones

Aukera ezazu zein bitarteko erabili behar den eskabide honetatik eratortzen diren jakinarazpenak helarazteko / Seleccione el medio para la práctica de las notificaciones derivadas de la presente solicitud.	☐ Paperean / En papel	☐ Baliabide Elektronikoak / Medios electrónicos

Paperean aukeratuz gero, zehaztu jakinarazpenaren posta-helbidea / En caso de seleccionar “En papel” especifique la dirección postal de notificación:

Eskaera honen ondoriozko jakinarazpenak eta/edo komunikazioak honako posta-helbide honetan egingo dira, baldin eta ematen den unean ez badago indarrean erakundearen Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan inskribatutako ahalorde-ematerik edota jakinarazpen elektronikorako harpidetza bat, udal-egoitza elektronikoaren «Nire harpidetzak» atalean jasoko dena.

Las notificaciones y/o comunicaciones derivadas de la presente solicitud se practicarán en la siguiente dirección postal siempre y cuando no exista en el momento de su emisión, vigente un otorgamiento de poder inscrito en el Registro Electrónico de Apoderamientos de la entidad y/o una suscripción a la notificación electrónica que constará en el apartado «Mis suscripciones» de la sede electrónica municipal.

Probintzia edo l. historikoa / Provincia o T. histórico

Udalerria / Municipio

Kalea / Calle

Posta kodea / Código postal

Blokea / Bloque

Atari zk. / Nº portal

Eskailera / Escalera

Solairua / Piso

Aldea / Mano

Atea / Puerta

eek: BAO-2023a075

3 - Deialdiaren datuak / Datos de la convocatoria

Txanda / Turno

☐ Askea / Libre	

Egokitzapena behar du? / ¿Requiere adaptación?	☐ BAI/SI	☐ EZ/NO

Egokitzapena behar izanez gero, adierazi jarraian eskatutako egokitzapena eta arrazoia / En el supuesto de requerir adaptación indique a continuación adaptación solicitada y motivo:

4 - Hizkuntz eskakizun / Perfil lingüístico

Adierazi jarraian egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Indique a continuación el perfil lingüístico acreditado

☐ 1. HE / PL1	☐ 2. HE / PL2	☐ 3. HE / PL3	☐ 4. HE / PL4

Beste hizkuntza-eskakizun baterako azterketarik ez badago? Adierazi:/ ¿A falta de examen para otro perfil lingüístico? Indíquelo:

☐ 1. HE / PL1	☐ 2. HE / PL2	☐ 3. HE / PL3	☐ 4. HE / PL4

5 - Aurkezten dudan dokumentazioa/ Documentación que presento

Eskatutako datuak eta dokumentuak / Datos y Documentos exigidos			Agiriak ez aurkezteko eskubidea /Derecho a no aportar Documentos
☐	Erakunde honetan emandako zerbitzuen datuen ziurtagiria.	Certificado de datos de servicios prestados en la entidad	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuen ziurtagiria	Certificado de servicios prestados en otras administraciones públicas	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Erantzukizunpeko adierazpen orria	Declaración responsable	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut /

eek: BAO-2023a075

			Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Autoebaluazio-formularioa	Formulario de autoevaluación	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Administrazio publikoko eskoletan emandako prestakuntzaren ziurtagiria	Certificado acreditativo de formación impartida en escuelas de administración pública	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Bitarteko edo aldi baterako oposizio fasea gainditu izanaren ziurtagiria	Certificado de superación de fase de oposición para la covertura interina o temporal	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Beste baldintza batzuk egiaztatzen dituen ziurtagiria	Certificado acreditativo de otros requisitos	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Lanbide-gaitasunaren ziurtagiria (CAP)	Certificado de aptitud Profesional (CAP)	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐	Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa Titulación exigida en las bases específicas	Zehaztu titulazioa / Especificar Titulación: --- ---	☐ Me Opongo / Aurka nago (*)
☐	Hizkuntza-eskakizuna egiaztagiria	Acreditación del perfil lingüístico	☐ Me Opongo / Aurka nago (*)
☐	Administrazio publikoko eskoletan jasotako prestakuntzaren ziurtagiria	Certificado acreditativo de formación recibida en escuelas de administración pública	☐ Me Opongo / Aurka nago (*)
☐	Gidatzeko baimena	Permiso de conducir	☐ Me Opongo / Aurka nago (*)
☐	IT Txartelaren ziurtagiria	Certificado de IT Txartela	☐ Me Opongo / Aurka nago (*)

(*) Aurka egiteak esan nahi du Administrazioak EZ dituela elektronikoki biltzen datuak edo dokumentuak, eta interesdunak AURKEZTU BEHAR duela dokumentua eskaerarekin batera / La oposición supone que la Administración NO recabe electrónicamente los datos o documentos debiendo la persona interesada APORTAR el documento junto con la solicitud.

eek: BAO-2023a075

Nortasun Agiri Nazionalean izen-abizenen zehaztasuna egiaztatzeko datuak datuen bitartekaritza-sistemen bidez egiaztatuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9.1 artikuluaren arabera.

La verificación de datos para la comprobación de la exactitud del nombre y apellidos que conste en el Documento Nacional de Identidad, se realizará mediante los sistemas de intermediación de datos conforme al artículo 9.1 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren alde edo [organo kudeatzaileari] emandako botere publikoak erabiliz egindako eginkizun bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos a [órgano gestor], en los términos previstos en el artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 y legislación aplicable

Behean izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla berton adierazitako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud

(Tokia/Lugar) (Urtea / Año) (Hilabetea / Mes)
(Eguna / Dia)

Sinadura / Firma

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 (EB) Erregelamendua. Arduraduna:Gernika_-Lumoko Lanbide Ekimenak. Helbidea Alhondiga kalea, 6, telefonoa,94 625 5758 IFK P9805502-C. Helburua: Hautaketa-prozesuaren kudeaketa.Hartzaileak. Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du toki-erakundearen helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiri bat erantsiz edo Korporazioaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiago nahi izanez gero: www.lanbide-ekimenak.eus

Información básica de tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679. Responsable: Centro de Iniciativas Profesionales de Gernika-Lumol, calle Alhondiga, 6 , teléfono 94 625 5758, CIF P9805502-C. Finalidad: Gestión del proceso selectivo. Destinatarios. Derechos: La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección de la entidad local incluyendo un documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible en la sede electrónica de la Corporación. Para más información:
www.lanbide-ekimenak.eus

eek: BAO-2023a075

JARRAIBIDE OROKORRAK	INSTRUCCIONES GENERALES
a) Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu. b) Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin. c) Interesduna hautaketa-prozesuan onartua izateak prozesuan eskainitako plaza guztietan parte hartzea eragingo du, plaza bakoitzari ezarritako hizkuntz eskakizuna eta eskakizuna nahitaezkoa den edo ez alde batera utzita, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera. d) Inprimakia izenpetu egin behar duzu.	a) Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares. b) Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras. c) La admisión en el proceso selectivo de la persona interesada implica su participación en él para todas las plazas ofertadas, con independencia del perfil lingüístico asignado a las mismas y de su carácter preceptivo o no preceptivo, de conformidad con las bases rectoras. d) No olvide firmar el impreso.
INTERESATUARENTZAKO JARRAIBIDEAK	INSTRUCCIONES PARA LA PERSONA INTERESADA
a) Oinarri espezifikoek eskatzen dituzten baldintzak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira (emandako eskola-orduak, etab.). b) Merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako ereduan aurkeztu behar dira («Autobalorazio orria»)	a) Se deberán aportar aquellos documentos que acrediten los requisitos exigidos por las bases específicas (clases impartidas, etc.). b) Los méritos se alegan en el modelo específico («Formulario de Autovaloración»).

eek: BAO-2023a075

II. ERANSKINA /ANEXO II

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Norberaren datuak / Datos personales

IFZ / NIF	Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social

- ☐ Eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla / Que son ciertos los datos consignados en la solicitud
- ☐ Hautaketa-prozesuaren oinarrietan eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen ditudala. / Que reúno los requisitos y condiciones exigidos en las Bases del proceso selectivo
- ☐ Auto-balorazioaren datuak egiazkoak direla / Que son ciertos los datos de la Autovaloración
- ☐ Alegatutako merezimenduak erantsitako dokumentazioarekin egiaztatuta daudela. / Que los méritos alegados se encuentran acreditados con la documentación que se adjunta

Eskabide honetan aipatzen den hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzen dut, eta ADIERAZTEN DUT

Solicito ser admitida al proceso selectivo a que se refiere la presente instancia y DECLARO

(Tokia/Lugar) (Urtea / Año) (Hilabetea / Mes)
(Eguna / Dia)

Sinadura / Firma

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 (EB) Erregelamendua. Arduraduna:Gernika_-Lumoko Lanbide Ekimenak. Helbidea Alhondiga kalea, 6, telefonoa,94 625 5758 IFK P9805502-C. Helburua: Hautaketa-prozesuaren kudeaketa.Hartzaileak. Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du toki-erakundearen helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiri bat erantsiz edo Korporazioaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiago nahi izanez gero: www.lanbide-ekimenak.eus

Información básica de tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679. Responsable: Centro de Iniciativas Profesionales de Gernika-Lumol, calle Alhondiga, 6 , teléfono 94 625 5758, CIF P9805502-C. Finalidad: Gestión del proceso selectivo. Destinatarios. Derechos: La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección de la entidad local incluyendo un documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible en la sede electrónica de la Corporación. Para más información:
www.lanbide-ekimenak.eus

eek: BAO-2023a075

III. ERANSKINA / ANEXO III

NORK BERE BALORAZIOA EGITEKO FORMULARIOA / FORMULARIO DE AUTOVALORACIÓN

Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud

IFZ / NIF	Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social

a – ESPERIENTZIA (Gehienez 80 puntu) / EXPERIENCIA (Máximo 80 puntos)

a.1 - Esperientzia orokorra (Gehienez 60 puntu) / Experiencia general (máximo 60 puntos)

Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak / Servicios prestados en cualquier Administración Pública

	Egunak / Días	Puntu - Kopurua / Puntuación
Deialdiko eskala, azpieskala eta/edo kategoria berean, edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik 0,02740 **puntu** lan egindako egun bakoitzeko, 60 **puntu** gehienez/ Por servicios prestados en la misma escala, subescala y/o categoría que la convocada, en cualquier administración pública 0,02740 **puntos** por día trabajado hasta un máximo de 60 **puntos**		

a.2 - Esperientzia espezifikoa (Gehienez 20 puntu) / Experiencia específica (máximo 20 puntos)

Deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak / Servicios prestados en la Administración convocante

	Egunak / Días	Puntu - Kopurua / Puntuación
Deialdia egin duen administrazioan deitutako eskala, azpieskala eta/edo kategoria berari atxikitako lanpostuak betetzeagatik 0,00914 **puntu** lan egindako egun bakoitzeko, gehienez ere 20 **puntu.** / Por el desempeño de puestos adscritos a la misma escala, subescala y/o categoría que la convocada**,** en la Administración convocante 0,00914 **puntos** por día trabajado hasta un máximo de 20 **puntos**.		

eek: BAO-2023a075

b – TITULAZIOAK ETA PROBAK (Gehienez 20 puntu) / TITULACIONES Y PRUEBAS (Máximo 20 puntos)

Gehienez ere **20 puntu** emango dira honako merezimendu hauengatik / Se valorarán hasta un máximo de **20 puntos** los siguientes méritos:

b.1 - Eskatutakoa baino titulu akademiko altuagoa (10 puntu) /Título académico superior al exigido (10 ptos)

			Puntu - Kopurua / Puntuación
Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila handiagoko titulu bat du. **10 puntu.** / Está en posesión de un título correspondiente en un nivel de formación académica superior al exigido para el acceso a la plaza convocada. **10 puntos.**	• BAI/SI	• EZ/NO	

b.2 - Eskatutako maila bereko titulu akademikoa (7,5 puntu) / Título académico del mismo nivel que el exigido (7,5 puntos)

			Puntu - Kopurua / Puntuación
Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa du. **7,5 puntu (**eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat) / Está en posesión de un título académico del mismo nivel que el exigido para el acceso a la plaza convocada. **7,5 puntos** (distinto al acreditado como requisito).	• BAI/SI	• EZ/NO	

b.3 – Jasotako Prestakuntza (Gehienez 20 puntu) / Formación recibida (Max 20 puntos)

	Orduak / Horas	Puntu - Kopurua / Puntuación
Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik. 0,500 **puntu** harrera-ordu bakoitzeko, gehienez 20 **puntu** / Por la cantidad de horas de recepción cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales. 0,500 **puntos** por cada hora de recepción hasta un máximo de 20 **puntos**.		

eek: BAO-2023a075

b.4 – Oposizio-fasea gainditua (10 puntu) / Fase de oposición superada (10 puntos)

Plazarik lortu gabe, deialdia egin duen administrazioan, deitzen den lanpostua bitarteko edo aldi baterako betetzeko prozedura baten oposizio fasea gainditzeagatik: **10 puntu.**

